

HITZAURREA

“Psikologo baten balore guztien zeharraldaketarako hiru atari-lan erabakigarri” hauek (Nietzschek *Ecce homo* obran), Moralaren genealogia osatzen dutenak, Nietzscheren obrarik goibel eta krudelentzat hartu izan dira beti. Liburu honen oinarrian Nietzschek bere buruarekiko eta irakurleekiko duen egiautasun errotikoena ageri du; mota guztietako inhibizioak gero eta erortzenago dira, eta horrela egia biluzik geratuz doa, “egia oro, egia simple, latz, itsusi, nazkagarri, ez-kristau, ez-morala... Bai baitira horrelako egia”. Nietzschek hemen, maskaradun-talde baten aurrean, eskua luzatu eta kolpe batez mozorroa kentzeko ausardia duenak bezala jokatzeko du. Hemen daukazue, esaten digu, zer diren egiaz kontzientzia, errukia, ongia eta gaizkia, apaiza, eta batez ere, eta hau agerpen ikaragarri bat da, apaiz maskaraduna; hau da, filosofoa, hau da, orain arte izandako filosofoa. Bada, nik filosofia berri bat iragartzen dut. Orain arte, dio Nietzschek, filosofoa oso urrun egon da izpiritu libre izatetik: oraindik sinetsi egiten zuen egian. Beharrezko da egiaren balioaz galdetzea, beharrezko da “noizbait auzitan jartzea, bide esperimentalez, egiaren balioa”.

Beste alde batetik, obra honen izaera ez-aforistikoa, izaera jarraitu eta sistematikoa izan da ikertzaileen arreta erakarri duen bigarren elementua. Nietzsche ez da nahikitzen hemen ezpatakada bat --aforismo bat-- jaurtitzeaz arazo bati buruz, aurreko obretan egiten zuenez, aurrera jarraitzeko beste auzi batzuen, beste erresistentzia batzuen, beste borroka batzuen ehizan, baizik eta hiru arazori egiten die aurre, eta patxada handiaz jarraitu eta jazartzen ditu haien azken gordelekuetaraino. Horretarako bere psikologo-arte errefinatura jotzen du eta, oso bereziki, bere ezaguera historikoetara. Hori egiteko gai zen, noski, bere heldutasunaren gailurrean aurkitzen baitzen. 1887ko udan, obra hau Sils-Marian osatzen ari den bitartean, Nietzschek sumatzen du udazkena hurbiltzen ari zaiola, fruituz abailduriko udazkena, gero, hondoratze psikologiko hurbilekoaren haizeak jotzean, hurrengo urteko obretan samaldatzen diren egien multzo trumilkatuak lurrera jaulkitzen utziko dituen. Liburu honetakoak ez dira hain zuzen uda horretan Nietzscheren burura etorritako ideiak. Jadanik antzinako ideiak dira, haurtzarotik bertatik ere bazetozenak, baina irauten horrek errebortxatu egiten du berarengan “hasieratik, nigan ez era isolatuan, ez halabeharrezkoan, ez irazekoan sortu ez ziren konfiantza bozkariotxoak, baizik eta erro komun batetik, ezagutze-nahimen oinarritzko batetik”.

Moralaren genealogia obraren egitura

Hilabete batzuk geroago, bere buruaren eta bere obraren Judizio Unibertsal gisako zerbait den *Ecce homo* horretan, Nietzschek liburu honen autokritika burutzen du. Ez digu hitz egiten hemen horren jaiotzaren inguruabarrez, beste idatzi batzuen aipamena egitean bezala; horren argitalpena hurbilegi zegoen oraindik; eta, bestalde, hitzaurre luzean argiturik zeukan puntu hori. Aitzitik,

burugogoeta gartsu baten suak argituriko lerro batzuetan, baina itxuraz bare eta hotz direnetan, bere egitura marratzen digu. Honela diote:

“Genealogia hau osatzen duten hiru tratatuak dira, agian, adierazpen, asmo eta sorpresaren arteari dagokienez, orain arte idatzi den kezkarriena. Dionisos, jakina denez, ilunpeen jainko ere bada. –Beti badago errakuntzara eramaten duen hasiera bat, hasiera hotz, zientifiko, eta ironiazkoa ere badena, berariaz lehen planoan kokatua, berariaz geroratua. Pixkanaka, asaldura gehiago: oinaztargi isolatuak; egia oso higuingarriak beren buruak entzunaraziz urrunetik orro sor batekin, –harik eta azkenean tempo feroce [erritmo izu] bat lortzen den arte, zeinean denak aurrerantz bultzatzen duen egundoko tentsioarekin. Azkenean, aldietako bakoitzean, guztiaren eztanda lazarrien artean, egia berri bat bihurtzen da ikusgai hodei trinkoen artean. –Lehen tratatuko egia kristautasunaren psikologia da: erresuminaren izpiritua kristautasunetik nola sortu den, ez “izpiritutik”, eskuarki uste izaten denez, –funtsean antimugimendu bat, balio nobleen domeinuaren aurkako errebolta handia. Bigarren tratatuak kontzientziaren psikologia eskaintzen du: hori ez da, normalean uste izaten denez, “Jainkoaren ahotsa gizakiarengan”, krudelkeriaren instintua da, atzera itzultzen dena kanporantz asaskatzen jadanik jarraitzerik ez duenean. Krudelkeria, kulturaren atze-hondo antzinakoenetako bat bezala hemen lehen aldiz aurkitua, zein kontuan hartu gabe uzterik ez baitago. Hirugarren tratatuak erantzuten dio ideal aszetikoaren, apaiz-idealaren botere eskerga nondik datorren galderari, nahiz eta hori ideal kaltegarria izan par excellence, amaiera-nahimen bat, *décadence*-ideal bat. Erantzuna: ez Jainkoa apaizen atzetik ari delako, eskuarki uste izaten denez, baizik *faute de mieux* [zerbait hobearen faltaz] –orain arte ideal bakarra izan delako, lehiakiderik izan ez duelako. “Zeren gizakiak nahiago izaten baitu ezereza nahi izatea ez nahi izatea bera bainoago”...Batez ere, kontraideal bat falta zen –Zaratustra arte. – Ulertu zait. Psikologo baten balore guztien zeharaldaketarako hiru atari-lan erabakigarri. – liburu honek bere baitan dauka apaizaren lehen psikologia”. (Ecce homo)

Lehen tratatua: “ona eta gaiztoa”,

“ona eta txarra”

Hasiera “hotz, zientifiko, eta ironiazkoa ere badena”k, hemen psikologo ingelesak aipatzen ditu. Nietzschek iseka arin bat egiten du giza zingiran txipili-txapala ari diren igel zahar, hotz, aspergarri horien lepotik. Horienganako oniritzia sentitzen du, kementsu eta bihotz-zabal izan litezen nahiko luke. Baina berehalaxe dator salakuntza larria: ez dute izpiritu historikorik. Kontraesankor bihurtzen dira ongi eta gaizkiaren kontzeptuak ahazmentuari eta azturari egoztean. Puntu horretan koherenteago gertatzen da, dio, nahiz eta egiazkoago ez izan, Spencer. Beraz, beharrezko da izpiritu historikora jotzea, genealogiara jo beharra dago eta, zehatzago, etimologiara. Zer esan nahi dute hitzek, eta zein da horien metamorfosi intelektualaren historia? Nietzschek “gaizto” (*schlecht*) berba aztertzen du, jatorriz “sinple”, gizaki arrunt eta beherea adierazi zuena. Aldiz, “on” (*gut*) kontzeptua goi-mailako gizakiari, ahaltsuari, jaunari zegokion. Balorazioak, beraz, izateko era batetik sortzen ziren, bizitzan eta gizartean aurkitzeko era batetik. Nahiz eta litekeena izan hemen eta beste toki batzuetan Nietzschek aipaturiko etimologia batzuk erratuak izan, balioak sortzen diren iturbururaino sartu izana da erabakigarria.

“Pixkanaka, asaldura gehiago; oinaztargi isolatuak” --esana zuen Nietzschek--. Izan ere § 6tik hasten dira egia higuingarriak. Nietzschek apaiz-kastaren aipamena egiten du, zaldun- eta aristokrazia-kastaren endeakuntza, eta geroago, antitesia. Haren azturak honen kontrakoak dira: apaizak ideiak eta sentimenduak inkubatzen aritzen dira; hortik datorkie neurastenia, dio Nietzschek. Baina beren gaixotasuna sendatzeko asmatu duten erremedioa gaixotasuna bera baino ere arriskutsuagoa izan da: apaizek erlijioa asmatu dute, zentzumenekiko etsaikorra den metafisika asmatu dute, “beste mundua” asmatu dute. Horrekin, hala ere, gizakia animalia interesgarri bihurtu da, horrekin giza arima sakon eta txar (böse) bihurtu da. Horrela agertzen da lehen aldiz txarkeria, aurreko gaiztakeria ez bezalakoa. Eta Nietzsche orain hatzaz zehazki balorazio berriaren iturburu seinalatzera pasatzen da: iturburu hori erresumina da, apaizaren mendeku-egarria da eta, batez ere, apaiz-herriarena par excellence: judu-herriarena. Lehen, garai osasungarriagoetan, balorazioak errealitateari atxikitzen zitzaizkion: ona (gut) besterik ez zegoen, hau da, gizaki indartsu eta ahaltsuaren nolakotasunak eta gaiztoa (schlecht) gizaki arrunt eta beherearen berezitasunak. Baina erresuminak baloreen zeharraldaketa bat sartzen du: orain baloreak ona (gut) eta txarra (böse) dira. Baloreen zeharraldaketa datza orain txar deitzean lehen ona zenari, orain txar deitzen zaio ahaltzu, bortxadun, biziz beteari. Aldiz, on deitzen zaio lehen gaizto zenari, hau da, gizaki behere, simple, behartsu, gaixoari.

Eta azkenik lehen tratatuaren egia berria dator: kristautasunaren psikologia. Kristautasuna da judu-herriak buruturiko baloreen zeharraldaketa moralaren oinordekoa. Kristautasuna, dio Nietzschek, ez da maitasunaren erlijioa, baizik eta onen, hau da, nobleen, ahaltsuen, egiatien kontrako gorroto sakonenaren erlijioa. Kristautasunak “berrerosi” egin du giza generoa, dio Nietzschek ironiaz: jaunengandik berrerosi du. Oraingo behintzat, plebeioak atera dira garaile.

Bigarren tratatua: “errua”, “kontzientzia txarra” eta antzekoak

Hemen ere hasiera hotz eta barea da. Nietzsche ahazteko gaitasunaz hitz eginez hasten da, indar aktiboa denaz eta ez uste denez pasibo hutsa. Ahazteko gaitasuna osasun-era indartsu bat da. Zenbaitetan, ordea, gogoratu beharra dago: promesak egiten direnean; eta horregatik sortu behar zaio gizakiari oroimen bat. Nola sortzen zaio gizakiari, hau da, aldiuneko animalari, afektu kontrajarriek dei egiten dioten, alde batetik bestera herrestan daramaten animalia horri oroimena? Zaila da oroimen hori sortzen, eta mina eraginez bakarrik egin daiteke: “zerbaitek oroimenean iraun dezan suz ezartzen zaio halako hori; min emateari uzten ez dionak bakarrik dirau oroimenean”. Eta oroimen horri, etorkizuna eskura edukitzearen sentimendu horri, gizakiak “bere kontzientzia” deitzen dio.

Alabaina, nondik dator “kontzientzia txarra”? Eta hemen beste behin Nietzschek genealogiara jotzen du, garai prehistorikoetara joz. Kontzientzia txarra errutik (Schuld) dator. Baina errua ez da erantzukizun moralarekin zerikusia duen ezer, baizik eta zorra (Schuld) da, hau da, hartzekodunaren eta zordunaren arteko harreman bat. Hartzekoduna gizartea denean, eta zorduntzen dena, hau da, errua egiten duena, harekiko bere konpromisoak hausten ditu, agindutakoa ahaztuz, eta orduan gizarteak bere kolperik krudelenez abailtzen du. Gizakia, bada, gizartearen preso da, eta bere institutuak kanporantz asaskatzerik ez duenez gero, barrurantz deskargatzen ditu: horrela sortzen da giza “barrentasuna”. Hori da bigarren tratatu honen egia:

Kontzientzia txarra gaitz sakontzat hartzen dut, zeinaren menpean gizakiak erori behar zuen, berak esperimentaturiko aldakuntza errotikoenaren presiopean, – gizakiak behin betiko gizartearen eta bakearen sortilegioan bere burua esparruturik aurkitzean gertatu zen aldakuntzarenean... Baina horrekin gaitzik handiena sartu zen, makurrena, gizateriak gaurdaino sendatu ez duena, gizakiarengatiko, bere buruarengatiko gizakiaren sufrimendua.(II.16)

Nietzschek uste du halaber jainkoen jatorria zor-, erru-sentimendu horretan dagoela. Etorki zaharrak beren arbasoekiko zordun sentitzen ziren. Eta beren zorra ordaintzeko (hau da, beren zorra kitatzeko) sakrifizioak eskaintzen dizkiete; zenbat eta zorra handiago, aurkezten dira jainkoak hainbat ahaltsuago, harik eta , zorra ordainezintzat jotzen denean, jainkoak garaiera gorenera iristen diren arte: Jainko bakar eta guztiahaldunarenganaino. Horregatik, dio Nietzschek, ateismoa datza zorrik ez izatean (Un-schuld) jainkoekin; bigarren errugabetasun bat da (Unschuld), teologia-aurreko izatera itzultze bat.

Amaiera supitukoa da:

- Baina, zer ari naiz esaten? Aski da! Aski da! Puntu honetan gauza bakarra komeni zait, isiltzea: bestela nahastu egingo naiz ni baino gazteago bati, “etorkizunago” bati, indartsuago bati bakarrik zilegi zaion zerbaitetan – Zaratustra, Zaratustra jainkogabeari bakarrik zilegi zaion zerbaitetan...(XXX or.)

Hirugarren tratatua: zer esan nahi dute
ideal aszetikoek?

Tratatu hau, guztietan luze eta garrantzitsuena, artistei buruzko iseka eta ironia mingarriekin hasten da eta, zehatzago esateko , Wagner eta haren Parsifal-en aurka. Artisten iritziek ez dute inolako baliorik, dio; horiek beti izan dira moral baten, filosofia baten edo erlijio baten ganbaralaguntzaile. Beraz, batzuetan sentsualitatea goresteak eta beste batzuetan kastitatea, horien iraupenik eza, horien nahikundea erakutsi besterik ez du egiten.

Gero “oinaztargi” batzuk datoz; zergatik sentitu dira filosofoak ideal aszetikoak erakarriak? Horretan independentziaranzko zubi batzuk iradokirik aurkitzen direlako. Pobretasuna, umiltasuna eta kastitatea (hiru apaiz-botoak, dio Nietzschek) aldekoago zaizkiolako filosofoari “fama, printzeak eta emakumeak “ bainoago. Filosofoa ezagutzen da hiru gauza distiratsu eta zaratatsu horietatik aldentzen delako Nietzschek orduan § 8 txundigarria idazten du, zeinean ironia izugarriarekin filosofoaren “hiru botoak” iruzkintzen baititu. Aszetismo gogor eta barea, edo, beste hitz batzuetan, ideal aszetikoa, aldeko zerbait izan zuen hasierako filosofoiak. Lurrean bere lehen pausoak ematen lagundu zion. Gizaki kontenplatiboak hasieran mesprezatuak izan ziren –edo ikaragarritzat hartuak. Horregatik apaiz-filosofoak ikara sortu behar izan zuen, eta hori krudelkeriarekin bakarrik lor zezakeen: norbere buruarekiko krudelkeria (aszetismoa), lehenik, eta gero, besteekiko krudelkeria. Apaizaren itzalpean zebilen filosofoa: “apaiz aszetikoa izan da, azken garaiotara arte, larba-era ilun eta nazkagarria, eta horren azpian filosofiari bizi izateko eta

alde batetik bestera alderrai ibiltzeko baimena eman zitzaion bakarra...”(XXX or.) Baina har horretatik, larba horretatik libratu al da filosofoa gure garian?

Horixe da arazo handia eta, inolako zalantzarik gabe, tratatu honen guztiaren erdigunea. Nietzschek erantzun negatiboa ematen du. Baina aurrena, galdera bat. Goazen auziaren mamira, dio Nietzschek: zein da ideal aszetikoaren zentzua? Nola baloratzen dute apaizek bizitza, errealitatea? Era negatiboan: bizitza onartzen dute baldin eta bere burua ukatzen badu. Burukontraesate hori apaiz-psikologiaren gakoa; hemen “egia-baloreen zeharraldaketa” gisako bat gertatzen da: apaizek existitzen ez den, berek itxuraturiko, berek asmatutako mundu bati deitzen diote “egiazko”, eta aldiz egia eta errealitatea ukatzen dizkiote mundu honi, existitzen den bakarrari. Eta burukontraesate horrek bere atseginkoitasun gorena lortzen du arrazoiaren buruisekatze aszetikora heltzean, zera esatean: “Bada egia eta izatearen erresuma bat, bai, hain zuzen arrazoa hartatik bazterturik dago!...”(XXX or). Baina kontraesate hori, baina zentzugabekeria horrek behin-behineko zerbait izan behar du; ez da soluzio bat, baizik “hitz soil bat, giza ezagutzaren pitzadura zahar batean txertatua”(XXX or.) Ideal aszetikoa, dio Nietzschek, endekatzen ari den arraza baten babeste- eta osasun-instintutik jaiotzen da. Gizaki gaixoak bere oinazearen argibide bat eskatzen du, eta hori emango dion bakarra aurkitzen du: apaiza. Hirugarren tratatu honetako egia berria hau da: apaiza bere gaixoen zauriak sendatzean pozoitzen dituen medikua da. Eta hori guztia gertatu da lurlean orain arte ideal bakar bat besterik izan ez delako. “Baina gizakiak nahiago du ezereza nahi izan ez nahi izan baino... (xxx or). Baina orain, gehitzen du Nietzschek, ideal berri bat dago: gaingizakiarena.

Genealogia eta interpretazioa

Hiru tratatu hauek interpretazioaren hiru maisu-lan dira. Interpretazio bat burutzeko beharrezko da, hala ere, horren arte bat, hau da, hermeneutika bat. Obra horren ezin zenbatu ahal pasartetan Nietzschek adierazpen teoriko ugari eskaintzen ditu gnoseologikoki horrek izan behar duenaz. Baina ez da nahikotzen horri buruz teorizatzearekin, baizik eta hiru tratatuak hermeneutika burutua dira. Interpretazioa (Deutung) Nietzscheri bere filologo-iraganetik datorkion zerbait da, baina gero berak filosofiara zeharraldatzen duena. Bere eskuetan, hala ere, interpretazioak zentzu erabat berria hartzen du. Kontua ez da soilik proposizio jakin batzuen egia edo faltsutasuna kritikoki aztertzea, baizik ilusio eta buruengainuei maskarak kentzea, hau da, egiazkotzat eskaintzen zaiguna susmagarri bihurtzea. Zentzu horretan Nietzsche “susmoaren” eskolako (P. Ricoeur) hiru handietako bat da. Beste biak Marx eta Freud dira (ez bedi ahaztu azken horren obra nagusiak Traumdeutung. Ametsen interpretazioa duela izenburu.) Susmoaren hiru maisu horietako bakoitzak ikuspegi pertsonaletik burutzen du bere obra. Nietzscheren kasuan, zeren bere oinarritzko arazoa balorearen arazoa baitzen, edo, nahi bada, balore guztien zeharraldaketarena, bere susmo-metodoak zinez genealogia izan behar zuen. Genealogia, G. Deleuzek oso ongi ikusi duenez, “jatorriaren balorea eta baloreen jatorria da. Genealogia kontrajarri egiten zaio baloreen izaera absolutuari, baita horien izaera erlatibo eta utilitarioari ere. Genealogiak esan nahi du baloreen elementu desberdintzailea, zeinetik bere balorea bera eratortzen baitu. Genealogiak esan nahi du, beraz, jatorria eta jaiotza, baina baita desberdintasuna edo distantzia ere jatorrian”.

Aurreko obran bezala itzultzaileak zenbait ohar gehitu ditu batez ere Nietzscheren pentsamenduaren giro historiko eta kulturala erakustera jotzen dutenak, baita haren obran arteko zenbait erlazioen berri ematera ere. Oro har, Nietzscheren obrak aipuz, gehienetan tazituz eta, beste banaka batzuetan, adieraziz beterik daude. Batzuetan zaila gertatzen bada ere azken horien iturria aurkitzea, zer esanik ez aipu tazituz, irakurlearen usna, oroimen eta aditasunaren beraren esku gelditzen direnak. Zailtasun hori gorabehera, itzultzaileak uste du aipu eta aieru guztiak edo ia guztiak identifikaturik daudela oharretan.

Andrés Sánchez Pascual
Kiek ut, 1971ko maiatza

MORALAREN GENEALOGIA

Idatzi polemikoa

F. Nietzsche

Gu, ezagutzaileok, ezezagunak gara geuretzat, geure buruarentzat: horrek badu oinarri onik. Ez dugu inoiz geure burua bilatu – nola gertatu behar zuen orduan egun batean gure burua aurkitzeak? Arrazoiz esan izan da: “Zuen aberastasuna non, zuen bihotza han”²³; gure aberastasuna gure ezagutzaren erlauntzak kokaturik dauden tokian dago. Beti haietaranzko bidean gaude jaiotzatiko animalia hegaldun eta izpirituaren ezti-biltzaile gisara, gauza bakarraz arduratzen gara bihotzez - zerbait “etxera eramateaz”. Gainerakoan, bizitzari, “bizipen” deituei dagokienez, -gutako zeinek du horietarako behar adina seriotasun? Edo behar adina denbora? Beldur naiz arazo horietan ez ote diogun inoiz behar bezala arreta zuzendu “arazoari”: ez daukagu bihotza horretan -eta ezta geure belarria ere! Aitzitik, gizaki jainkotiarki barreiatu eta bere baitan murgilduak bezala areago, eguerdiko hamabi kanpai-hotsez erlojuak belarriak bortizki durundatu dizkiona bat-batean itzartu eta bere buruari: “Zerk jo du hemen gero benetan?” galdetzen dionak bezala, guk ere horrelaxe igurtzitzen ditugu belarriak gauzak gertatu eta gero, eta, erabat txunditurik, guztiz zentzordaturik: “Zer da gero hemen benetan bizi izan duguna?” galdetzen dugu; areago oraindik: “Nor gara gu benetan?” eta atzerapenaz zenbatzeari ekiten diogu, jadanik esan dugunez, geure bizipeneko, geure bizitzako, geure izateko hamabi kanpai-hots dardaratiak -ai!, eta huts egiten dugu zenbaketan... Derrigorrez diraugu arrotz geure buruarekiko, ez dugu geure burua ulertzen, beste

²³²³ Mateo, 6, 21. Mendiko Hitzaldia.

batzuekin nahastu beharra daukagu, gugan betiko betetzen da zera dioen esaldia: “Bakoitza da bere buruarentzat urrunekoena”²⁴ – geure buruarentzat ez gara ezagutzaile...

2

Gure aurreiritzi moralen jatorriari buruzko nire pentsamenduak -zeren hori da idatzi polemiko honen gaia – “Gizatiar, gizatiarregi. Izpiritu askeentzako liburua” izeneko aforismo-bilduma horretan izan zuten lehen adierazpen urri eta behin-behinekoa, zeinen idazkuntza Sorrenton hasi bainuen negu batean, izan ere geldialdi bat egiteko aukera eman baitzidan, bidaztiak geldialdia egiten duen bezala, eta ordura arte nire izpirituak korritutako lurralde zabal eta arriskutsua begiradaz hartzekoa. Hori 1876tik 1877rako neguan gertatu zen; pentsamenduak berak zaharragoak dira. Funtsean orain tratatu hauetan berriro jasotzen ditudanak berak ziren: – espero dezagun tarte luze horrek mesede egingo ziela eta helduago, argitsuago, indartsuago, perfektuago bihurtuko zirela! Ni gaur ere oraindik horiei atxikirik egotea, horiek berak bitartean gero eta indar handiagoz elkarren artean lotu izanak, eta elkarrekin begiztatu eta urtu izanak, indartu egiten du nire baitan hasieratik nigan konfiantza pozkariotsua, zeinek era isolatuan, ez halabeharrezkoan, ez esporadikoan sortu ez zirelako, baizik eta erro komun batetik, ezagutzaren nahimen oinarrizko batetik, zeinek, bere aginduak sakonean ematen baitzituen, gero eta era erabakitsuago batean hitz egiten baitzuen, eta gero eta gauza zehatzagoak eskatzen baitzituen. Horixe da, izan ere, filosofoari komeni zaion gauza bakarra. Guk ez dugu eskubiderik inon bakarrik egoteko: ez zaigu zilegi bakarrik huts egitea ere, ezta egia bakarrik aurkitzea ere. Aitzitik, zuhaitzak bere fruituak ematen dituen beharrianaz, horrela hazten zaizkigu geure baitatik pentsamenduak, geure balioak, geure baietz eta ezetzak, geure galderak eta geure zalantzak – horiek guztiak elkarren artean ahaidetu eta harremanduak, nahimen bakar baten, osasun bakar baten, lurreko erresuma bakar baten, eguzki bakar baten lekuko. – Atsegin izango ote dituzue gure fruitu hauek? – Baina bost axola hori zuhaitzei! Bost axola guri, filosofooi!...

3

Arazo batzuei buruz gogoeta egiteko dudan isuriarekin, zein gogoz kontra aitortzen baitut -zeren moralari, orain arte lurrean moral gisa goretsi izan den guztiari buruzkoa baita-, nire bizitzan hain goiz, hain berezko, hain geldiezin, ingurune, adin, jarraibide, jatorriarekiko hain kontraesankor agertu zen isuria, non ia eskubidea izango nukeen neure “a priori”a deitzeko, – nola nire jakinminak hala nire susmoek goiz gelditu behar izan zuten gure onak eta gure gaiztoak benetan zer sorrera duten galderan. Izatez, ni hamahiru urteko mutikoa nintzela kezkatzen ninduen ordurako gaizkiaren sorreraren arazoak: berari eskaini nion, “bihotza atal berdinetan haur-jolasen

²⁴ Terenzioren Andriana obrako “proximus sum egomet mihi” esaldi sonatuari bira ematen dio hemen Nietzschek.

eta Jainkoaren artean banaturik”²⁵ edukitzen den adinean, neure lehen haur-joko literarioa, kaligrafia filosofikoko neure lehen ariketa -eta orduan arazoari eman nion “soluzioa”ri dagokionez, Jainkoari eman nion, bidezkoa denez, ohorea eta Gaizkiaren Aita bihurtu nuen bera. Horrelaxe nahi ote zuen nigandik nire “a priori”ak ? “A priori” berri, immoral, edo gutxienez immoralistak, eta ai! bere baitan mintzo den hain “inperatibo kategoriko” antikantiar, hain enigmatikoak, eta zeini ordudanik gero eta gehiago belarria jarri diodan, eta ez belarria bakarrik?... Zorionez laster ikasi nuen aurreiritziteologikoa eta aurreiritzimorala bereizten, eta ez nuen bilatu harrez gero gaizkiaren sorrera munduaren atzealdean. Eskolatzeko historiko eta filosofiko pixka batek, eta gainera auzi psikologikoei oro har dagokienez jaiotzatiko hautespen-zentzu batek, laster bihurtu zuten nire arazoa beste hau izateraino: zer baldintzatan asmatu zituen gizakiak on eta gaizto balio-judizio horiek?, eta zer balio dute horiek beroriek? Balaztatu ala azkartu egin dute orain arte giza garapena? Bizitzaren gabezi, pobretasun-, endekatze-zeinu ote dira? Ala, aitzitik, horietan agertzen ote dira betetasuna, indarra, bizitzaren nahimena, bere balioa, bere konfiantza, bere etorkizuna? – Neure barruan aurkitu eta erantzun ugari eman nizkien galdera horiei, bereizi egin nituen garaiak, herriak, gizabanakoen maila hierarkikoak, bereizi egin nuen neure arazoa, erantzunak galdera, ikerkuntza, aieru eta egiantz berri bihurtu ziren, harik eta neure lurralde propio bat, lursail propio bat, hazi eta loratzen zen mundu erreserbatu oso bat, jardun sekretu batzuk izaten hasi nintzen arte, zeinen susmorik inork ezin baitzuen izan... Oi, zeinen zoriontsu garen ezagutzaileok, behar adina denboran isilik egoten badakigula auresuposatuz!...

4

Moralaren sorreraz nire hipotesiez zerbait zabaltzeko lehen estimulua liburuxko argi, garbi, zuhur eta jakintsua ere bazen batek eman zidan, zeinean lehen aldiz argiro topo egin bainuen hipotesi genealogikoen espezie alderantzikatu eta makur batekin, bere espezie benetan ingelesarekin; liburuxkoak erakarri egin ninduen antitetikoa den, gure antipodetan dagoen guztiak daukan erakarindar horrekin. Liburuxkoaren izenburua zen “Sentimendu moralen sorrera”; haren autorea, Paul Rée doktorea²⁶; haren argitarapen-urtea, 1877. Agian ez dut ezer irakurri neure barruan hainbesteko indarrez, esaldiz esaldi, ondorioz ondorio, liburu horri bezala ezetz esan diodan ezer; baina inolako gogait eta egonezinik gabe. Lehen aipaturiko obran, ni orduan lanean ari nintzenez, egokierarekin eta hura gabe, haren tesien aipamena egiten nuen, ez ezeztatuz – bost axola niri ezeztapenak!-, baizik eta izpiritu positiboari dagokionez, egiantzik gabearen lekuan, zerbait egiantzekoagoa ezarriz, eta, batzuetan, errakuntza baten lekuan, beste bat. Esan dudanez, orduan atera nituen lehen aldiz argitara tratatu hauei eskainiriko hipotesi genealogiko haiek, moldegabeki, neu izango bainintzen azkena neure burua ezkutatu nahi izateko, eta gainera, askatasunik gabe, eta gainera, neure hizkera propiorik gabe gauza propio horiek esateko, eta berrerorketa gora-behera ugarirekin. Bereiziki konpara bedi zer diodan “Gizatiar, gizatiarregi” obran, (51 or.) ongiaren eta gaizkiaren historiaurre bikoitzaz (hau da, noble eta esklaboen esferatikoaz); halaber (101 eta hh.) diodana, moral aszetikoaren balio eta jatorriaz; baita (72 or. eta hh, eta 330 orrialdean [ibidem])

²⁵ Goetheren *Faust* obraren aipua. Deabruak Gretcheni esaten dizkion hitzak katedraleko hiletan dagoen bitartean (3.781-3.782).

²⁶ Paul Rée (1849-1901) Nietzscheren adiskide izatera iritsi zen eta negu batez Italian elkarrekin egon ere egin ziren. Bere ideiek eragina izan zuten Nietzscheregan, nahiz eta gerora adiskide izateari utzi zioten.

“ohituraren etizitateaz”, moralaren espezie askozaz antzinakoago eta sorrerazkoago horretaz, balioespen-era altruistatik *toto coelo*²⁷ desberdintzen denaz (horretan ikusten du Rée doktoreak, moralaren genealogista ingeles guztiek bezala, balioespen-era morala bere baitan); era berean, (69 orrialdean eta hh.); “Bidaiaria” (446 orrialdea eta h.; “Goizalba” (88 or. eta h.) justiziaren jatorriaz gutxi gora-behera ahalmen bera dutenen arteko konpromisu bat bezala (oreka kontratu guztien eta, ondorioz, eskubide ororen auresupostu gisa); gainera, zigorraren jatorriaz, “Bidaiaria” (442 or. eta h. eta 450 or. eta h.), zeini ez funtsezko ez sorrerazko ez baitzaio xede ikaratzaila (Rée doktoreak dioenez -xede hori gehitu egin zitzaion, beranduago, zirkunstanzia jakin batzuetan, eta beti eranskin, gehigarri gisa).

5

Barrenean niri orduan interesatzen zitzaidana moralaren sorrerari buruzko hipotesi propioa edo inoren batzuk baino zerbait askozaz garrantzitsuagoa zen (edo zehatzago esateko: azken hori xede bakar baterako interesatzen zitzaidan, zeinerako hura beste askoren arteko bitarteko bat baizik ez baita). Niri axola zitzaidana moralaren balioa zen, – eta puntu horretan nik aurre egin beharreko ia bakarra Schopenhauer neure maisu handia zen²⁸, zeini zuzentzen baitzaio, presente balego bezala, liburu hura, liburu haren grina eta kontraesan ezkutukoa (zeren hura ere “idatzi polemikoa” baitzen). Errukia, buruukapen –, buruopalkuntza-instintu “ez-egoista”ren balioaz zen bereziki auzia, zeinek hain zuzen ere Schopenhauerrek urreztatu, jainkotu eta haraindikotu baitzitu hainbeste denboran, harik eta “beren baitako balio” gisa gelditu zitzaizkion arte, eta haietan oinarrituz ezetz esan zien bizitzari eta bere buruari ere. Baina hain zuzen ere instintu horien aurka entzunarazten zuen bere ahotsa nigan gero eta mesfidantza errotikoago batek, gero eta zulo sakonagoa egiten zuen eszeptizismo batek! Horietan, hain zuzen, ikusten nuen nik gizateriaren arrisku handia, bere tentazio eta sedukziorik sublimeena – norantz?, ezerezerantz? –, horietan, hain zuzen, ikusten nuen nik amaieraren hasiera, geldialdia, begirada atzerantz zuzentzen duen unadura, nahimena bizitzaren aurka bihurtzen, azken gaixotasuna era samur eta malenkoniazkoan bere burua iragartzen: nik ulertzen nuen errukiaren moral hori, gero eta sail zabalagoa bereganatzen ari dena, eta filosofoak berak ere eraso eta gaixotu dituen, sortetxea galdutako gure europar kulturaren zantzu kezkarriena zela, bere desbideratze gisa, budismo berri baterantz?, europarron budismo baterantz?, nihilismorantz?... Filosofoek errukiarekiko izan duten hobespen eta gainbaliozte moderno horiek, izan ere, zerbait berria dira: hain zuzen ere, errukiaren balio ezaz ados egonak ziren orain arte filosofoak. Platon, Spinoza, La Rouchefoucauld eta Kant aipatzera mugatzen naiz, elkarrekiko lau izpiritu erabat desberdin, baina puntu batean ados zeudenak: errukiarekiko gutxiespenean. –

6

²⁷ *toto coelo*: latinez “zeru guztian”, *erabat*, *zeharo* esan nahi du

²⁸ Nietzschek hasieran gogoz onartu zuen Schopenhauerren maisutza, baina gerora errefusatu egiten du. Ikus *III. Desgaraikoa*

Errukiaren balioaren eta erruki-moralaren arazo hau (– ni neu sentimenduen biguntze moderno lotsagarriaren arerioa naiz –) badirudi lehen une batean zerbait bakartua, galde-zeinu bakarti bat dela; baina honetan gelditu behin, eta hemen galderak egiten ikasten duenari, niri gertatu zaidana gertatuko zaio: – ikuspegi berri eta neurgabe bat irekitzen zaio, hartaz, zorabio baten gisara, ahalbide berri bat jabetzen da, era guztietako fidakaiztasunak, mesfidantzak, beldurrak, kordokatu egiten da moralarekiko, moral ororekiko sinesmena, -azkenean eskakizun berri bat entzunarazten da. Adieraz dezagun, eskakizun berri hori: balio moralen kritika bat behar dugu, noizbait auzitan jarri beharra dago balioen balioa bera- eta horretarako horiek sortarazi, garatu eta aldatzeko izan zituzten baldintza eta inguruabarren ezagutza izan behar da (moralala ondorio gisa, sintoma gisa, maskara gisa, tartufokeria gisa, gaixotasun gisa, gaizkiulertze gisa; baina baita moralala kausa gisa, sendagai gisa, estimulu gisa, balazta gisa, pozoiz gisa ere), orain arte existitu ez den ezagutza baina desiratua ere izan ez dena. “Balio” horien balioa zerbait emandakotzat, erreal eta eraginkortzat hartzen zen, auzitan-jartze oroz haraindi kokatutzat; orain arte ez da zalantza eta ez bai txikienik ere izan “ongia” balioa “gaizkia”ren gaintik dagoelakoaz, gizakiarentzat (gizakiaren etorkizuna barne) bere horretan faboragarri, baliagarri, probetxuzko izatearen zentzuan. Eta zer alderantzizkoa egia izango balitz, zer? Eta zer “ongi”an atzerapen-sintoma bat balego, eta era berean arrisku bat, sedukzio bat, pozoiz bat, narkotiko bat, eta horren kariaz agian orainaldia etorkizunaren lepotik biziko balitz? Behar bada era erosoagoan, arrisku gutxiagokoa, baina baita estilo kaskarragokoa, apalagoan biziko balitz?... Halako moldez, non moralala errudun izango litzatekeen gizaki-tipoaren ahalatasun eta bikaintasun goren bat inoiz lortuko ez balitz, berez posible dena? Halako moldez, non moralala hain zuzen arriskuen arriskua izango bailitzateke?...

7

Aski izan zen hori, ikuspegi hori ireki zitzaidan unetik, nik neure inguruan lagun jakintsu, ausart eta beharginak bilatzeko (oraindik ere horretan ari naiz). Kontua da galdera zeharo berriekin eta, nolabait esateko, begi berriekin moralaren lurralde neurgabe, urrun eta ezkutua korritzea – benetan existitu den moralarena, benetan bizi izandako moralarena –: eta horrek ez al du esan nahi lehen aldiz lurralde bat aurkitzea bezainbat ia? Baldin eta hemen, besteak beste, jadanik aipaturiko Rée doktorearengan pentsatu banuen izan zen ez nuelako zalantza txikienik ere bere itaunen izaerak berak metodika egokiago baterantz bultzatuko zuela, erantzunak lortzeko. Engainatu egin ote naiz puntu horretan? Nolanahi ere, nire nahia zen hura bezalako begirada hain zorrotz eta hain alderdigabeari norabide hobe bat, moralaren historia erreal bateranzko norabidea, ematea eta ataizean jartzekoa, garai egokian artean, zeruaren urdinean galtzen diren hipotesi ingeles horien aurka. Zeren begibistakoa baita zein kolorek izan behar duen ehun bider garrantzitsuago moralaren genealogistarentzat urdinak baino; hau da, grisak, esan nahi dut, agiritan oinarrituak, errealki egiaztagarria denak, errealki existitu denak, hitz batean, giza moralaren iraganeko idazkuntza hieroglifiko luze eta nekez deszifragarriak! – hori ezezaguna zitzaien Rée doktoreari; baina berak irakurrita zeukan Darwin: eta horrela bere hipotesietan piztia darwindarrak eta moralaren mengelkeria gultiz moderno eta neurritzkoak, “jadanik hozka egiten ez

duenak”, adeitsuki eskua luzatzen diote elkarri eta gutxienez hori, entretenigarria gertatzen da, azken horrek bere aurpegian halako nagitasun onbera eta samur bat erakusten duelarik, zeinean ezkortasun, nekadura pixka bat ere nahasten baitu: egiazki inondik ere konpentsatuko ez balu bezala horrelako gauzak -moralaren gauzak- benetan hartzeak. Niri, aitzitik, iruditzen zait ez dagoela hainbeste saritzen duen beste gauzarik; saritze horren parte da, esaterako, noiz edo behin alaiki onartzea. Zeren, izan ere, alaitasuna, edo, neure hizkeran esateko, zientzia pozkariotsua -sari bat baita: seriotasun iraunkor, kementsu, behargin eta lurpeko batentatiko saria, edonoren gauza ez dena noski. Baina bihotz-bihotzez esan dezakegun egunean: “Aurrera! Gure moral zaharra ere komediaren parte da!”, endredo berri bat eta ahalbide berri bat aurkituak izango ditugu “arimaren destinoa”aren drama dionisiererako –: eta berak aterako du hortik etekina, horretaz apustu egin daiteke, berak, gure existentziaren komediagile handi, zahar eta betikoak!...

8

Baldin eta idatzi hau ulertezin gertatzen bada norbaitentzat eta gaizki belarrietaritzen bazaio, errua, nik uste, ez dago derrigor nigan. Aski argia da, nik auresuposatzen dudana auresuposatuz gero, nire aurreko idatziak lehendabizi irakurri izana eta hori egitean nekerik batere ez gorde izana: zeren, hori bai, ez baitira atzemanerrazak. Nire Zaratustrari dagokionez, adibidez, nik ez dut bere ezagutzailatzat inor jotzen, haren hitzek batzuetan sakon zauritu ezean eta, beste batzuetan, sakon liluratu ere bai: orduan bakarrik zaio zilegi elementu alzionikoan²⁹ begirunez esku hartzearen pribilegioaz gozatzea, nondik obra hura jaio zen bere argizkotasun, urruntasun, zabalera eta ziurtasun eguzkizkoan. Beste kasu batzuetan, era aforistikoak zailtasunak sortzen ditu: gaur egun era horri behar adinako garrantzirik ez ematean datza hori. Aforismo bat, ongi akuinatua eta urtua badago, ezin liteke “deszifratu” gera irakurria izan delako; aitzitik, orduan hasi behar du haren interpretazioak, eta horretarako horren arte bat behar da. Liburu honen hirugarren tratatuan, nik, antzeko kasu batean, interpretazioaz ulertzen dudanaren lagin bat eskaini dut: -tratatu horren aurretik aforismo bat doa, tratatua bera horren iruzkin bat da. Jakina, irakurketa horrela arte gisa praktikatzeko ezer baino lehenago, gaur hain zuzen, ahantziena den zerbait behar da -eta horregatik iragan behar du denborak oraindik nire idatziak “irakurgarri” izateko-, horretarako ia behi izan behar da eta, nolana ere, ez “gizaki moderno”: hausnarrean egitea...

Sils-Maria, Engadin Garaian, 1887ko uztailean.

²⁹ Mito grekoa: Alzion, Eolo eta Zeix senar-emazteen alaba, senarra hil zitzaielako saminez bere burua ito zuen. Martin arrantzale bihurtu zen.

Lehen Trataturia

“Ona eta gaiztoa”, “ona eta txarra”

1

– Psikologo ingeles horiek, zeini orain arte moralaren historia genetiko bat eraikitzeko saio bakarrak ere eskertu behar baitzaizkie, – ez digute enigma batere txikia berek eskaintzen; horrexegatik aitortzen dut, hezur eta haragizko enigma direlako, aldea ateratzen diete funtsezko zerbaitetan beren liburuei – berak dira interesgarri! Psikologo ingeles horiek – zer da benetan nahi dutena? Nahi badugu eta ez badugu, beti obra berari atxikiak aurkitzen ditugu, hau da, gure barne-munduaren partie honteuse [alderdi lotsagarri] hori lehen mailan jartzen eta garapenerako obratzailea, arauzkoa, erabakigarria dena bilatzen, hain zuzen ere harrotasun intelektualak gutxien aurkitu nahiko lukeen tokian (adibidez, azturaren vis inertiae-n [inertziatzko indarra], edo ahanzkortasunean, edota ideien kateakuntza eta mekanika itsu eta halabeharrezko batean, edo erabat pasiboa, automatikoa, erreflexuzko, molekular eta errotik ergela den zerbaitetan) – zer da psikologo horiek beti hain zuzen norabide horretan joatera bultzatzen dituen? Gizakia kaxkartzeko instintu sekretu, makur, arrunt, agian bere buruari aitortu gabe bat ote da? Edo agian susmo ezkor bat, idealista desengainatu, itsutu, pozoitsu eta herratsu bihurtu direnen mesfidantza propioa? Edo kristautasunaren (eta Platonen) aurkako etsaikortasun eta herra txiki eta lurpekoak, agian kontzientziaren atalaseaz haraindi inoiz irten ez direnak? Edo existentzian estrainio, mingarriro paradoxazko, arazotsu eta absurdua denarekiko gustu lizun batengatik? Edo, azkenik, -denetik zerbait, arrunkeria apur bat, itsutasun apur bat, antikristautasun apur bat, hazkura apur bat eta piper-premia ezinbesteko bat?... Baina igel zahar, hotz, aspertuak direla esaten didate, gizakiaren inguruan arrastaka eta jauzika dabilzanak, gizakiaren barruan, hemen bere elementuan, hau da, zingira batean zehazki aurkituko balira bezala. Kontrakarrarekin entzuten dut hori esaten, areago, ez dut horretan sinesten; eta zilegi bada desiratzea jakitea ezinezko denean, nik bihotzez desiratzen dut kasu honetan alderantzizkoa gertatzea, – arimaren ikertzaile eta mikroskopiatzaile horiek animalia kementsu, bihotz-zabal eta harroak izan daitezen, bai beren bihotza eta bai beren sufrimendua balaztaturik edukitzen jakin dezaten, desira guztiak egia sakrifikatzeke heziak izan dira, egia orori, baita egia soil, latz, itsusi, nazkagarri, ez-kristau, ez-moralari ere... Zeren bai baitaude horrelako egiak. –

2

Gure begirune guztia izpiritu onentzat, moralaren historialari horiengan agian dihardutenentzat! Baina, zoritxarrez, egia da izpiritu historikoa falta dutela, zientzia historikoaren izpiritu on guztiek,

hain zuzen, bertan behera utzi dituztela! Jadanik filosofoen usuario zaharra denez, horiek guztiek funtsean a-historikoa den era batean pentsatzen dute; horretaz ez dago inolako zalantzarik. Horien moralaren genealogiaren kamustasuna hasieran bertan agertzen da, kontzeptuaren eta judizio “ona”ren jatorria arakatu behar den tokian. “Sorreran – horrela dekretatzen dute – egintza ez-egoistak goretsi eta on deitu zituzten, haiek zeini egozten baitzitzaizkien, hau da, baliagarri zitzaizkien haiek; gerora gorespenaren sorburu hori ahaztu egin zen, eta egintza ez-egoistak, azturaren arabera, beti on gisa goretsiak izan zirelako bakarrik, on gisa sentituak izan ziren -bere baitan zerbait ona izan balira bezala.” Berehala ikusten da eratorpen horrek psikologo ingelesen idiosinkrasiaren ezaugarri tipiko guztiak dituela bere baitan, – hemen ditugu “baliagarritasuna”, “ahanzmendua”, “aztura” eta, azkenean, “errakuntza”, hori guztia preziazio balioesle baten oinarri gisa, zeinez orain arte gizaki garaiagoa harro egon baitzen, gizakia gizaki zen heinean izandako pribilegio gisako zerbait bailitzan. Harrotasun hori umiliatu beharra dago, preziazio balioesle hori desbalioetsi beharra dago: lortu al da hori?... Niretzat begibistakoa da, lehenik, teoria horrek leku faltsu batean bilatzen eta kokatzen duela “ongi” kontzeptuaren benetako oinetxea: “on” judizioa ez dator “ontasuna” egiten zaienengandik! Aitzitik, “onak” berek, hau da, nobleek, ahaltzuek, posizio garai eta sentimendu jagiko gizakiek sentitu eta balioetsi zituzten beren buruak eta beren obratzea ontzat, hau da, lehen lerruneko zerbait gisa, beheko, nardagarri, arrunt eta plebeio zen guztiarekiko kontrajarririk. Distantziaren pathos horretatik abiatuz hartu zuten beren gain balioak sortzeko, balioen izenak akuinatzeo eskubidea: bost axola zitzaien haiei baliagarritasuna! baliagarritasunaren ikuspuntua guztietan estrainio eta desegokiena gertatzen da lerrunearen ordenatzaile, lerrunearen nabarmentzaile diren balio-judizio goren iturburu kiskalgarri horri dagokionez, hain zuzen: hemen sentimendua tenperaturaren gradu baxu haren alderantzizkora iritsi da, hain zuzen, zein zuhurtzia kalkulatzaileroren, kalkulu baliagarri oren auresupostua baita, – eta ez behingoz, ez salbuespeneko ordu batean, era iraunkorrean baizik. Noblezia eta distantziaren pathosa, esan dugunez, goi-espezie dominatzaile baten osotasun- eta oinarri-sentimendu iraunkor eta dominatzaile bat behe-espezie batekiko, “behe” batekiko bere erlazioan, –hori da “on” eta “txar” antitesiaren sorrera. (Jaunak duen izenak emateko eskubidea hain urrun iristen da, non hizkuntzaren beraren sorrera ere dominatzaileen ahalmen-kanporatze bezala kontzebitzeko baimena hartu beharko genukeen: “hau halako eta bestelako da” diote, gauza bakoitzari eta jazoera bakoitzari soinu baten zigilua ezartzen diote eta horrenbestez berenganatu egiten dute, nolabait esateko.) Sorrera horretan datza “on” hitza alde aurretik inondik ere ez egotea derrigor loturik egintza “ez-egoistei”: moralaren genealogista haien superstizioa dagoenez. Aitzitik, balio-judizio aristokratikoen beheraldi batean soilik “egoista” / “ez-egoista” gero eta gehiago gainjartzen zaio giza kontzientziari, – neure hizkeraz baliatzeko, artalde-instintua da antitesi horrekin azkenean bere hitza esaten duena (baita bere hitzak ere). Baina orduan ere denbora luzeak iragan behar du harik eta instintu hori nagusi izan dadin arte, non balio moralen preziazioa antitesi horretan errealki katigatu eta trangotua gera dadin arte (gaur eguneko European, esaterako, gertatzen denez: gaur egun “moral”, “ez egoista”, “désintéressé” baliokide direla kontsideratzen duen aurreiritzia nagusi da “ideia finko” baten eta buru-gaixotasun baten bortxarekin).

Baina bigarren lekuan: erabat alde batera utzirik “on” balio-judizioaren jatorriari buruzko hipotesi haren sustengaezintasun historikoa, kontrazentzu psikologiko baten gaitza dauka bere baitan. Egintza ez-egoistaren baliagarritasuna, dio, bide da bere gorespenaren sorrera eta sorrera hori ahazturik bide dago: – nola liteke posible ahazte hori bera ere? Agian noizbait utzi egin ote dio egintza horien baliagarritasunak irauteari? Alderantzizkoa gertatzen da: baliagarritasun hori, aitzitik, eguneroko esperientzia izan da garai guztietan, hau da, behin eta berriz iraunkorki azpimarratu den zerbait; ondorioz, kontzientziaz ezabatu ordez, gero eta argitasun handiagoarekin grabatu zen hartan nonbait. Askoz arrazoizkoagoa da horri kontrajarririko teoria hura (ez da horregatik egiazkoago –), zein defendatzen baitu, adibidez, Herbert Spencer-ek³⁰: berak “on” kontzeptua funtsean “baliagarri”, “komenigarri” kontzeptuaren pareko bihurtzen du, halako moldez, non “on” “txar” judizioetan gizateriak gehitu eta santzionatu bide dituen baliagarri-komenigarria, kaltegarri-ezkomenigarriari buruzko bere esperientzia ahaztugabeak eta ahaztezinak.

On da, teoria horren arabera, betidanik baliagarri frogatu dena, horregatik zilegi da “goren graduan baliotsu”, “bere baitan baliotsu” bezala aurkeztea. Azalpen-bide hori ere faltsua da, dagoeneko esan dugunez, baina gutxienez azalpena bera bere baitan arrazoizkoa eta psikologikoki sustengagarria da.

4

Bide zuzenerako seinalea auzi batek eskaini zidan: hizkuntza desberdinek akuinaturiko “on”aren izendapenek benetan zer adierazi nahi duten zentzu etimologikoan: hor aurkitu nuen horiek guztiek kontzeptu-metamorfosi berera igortzen dutela, – nonahi estamentu-zentzuan “noble”, “aristokratiko” dela oinarritzko kontzeptua, zeinetik garatu baitzen gero, premiaz, “on” “arimaz noble”, “aristokratiko”, “arimaz izaera jasoko”, “arimaz pribilegiatu”ren zentzuan: garapen hori beti parez pare doa beste harekin, zeinak “arrunt”, “plebeio”, “baxu”, azkenerako “txar” kontzeptura pasarazten dituen. Azken horren adibiderik adierazgarriena alemanezko “txar” (schlecht) hitza bera da: berez “simple” (schlicht) hitzaren identikoa da -konpara bitez “simpleki” /schlechtweg, schlechterdings)- eta sorreran gizaki sinplea, arrunta esan nahi zuen, nahiz eta hori egitean oraindik ez zuen zeharbegiratu goganbehartsurik egiten ez zuen, baizik eta noblearekiko kontrajartze soila. Hogeita Hamar Urteko Gerra aldera gutxi gora-behera, hau da, berandu samar, zentzu hori gaur ohikoa dena lerratu da. – Moralaren genealogiari dagokionez, horri funtsezko ezagutza deritzat; hori aurkitzea hain berandu gertatu izana jatorriari buruzko arazo guztietan mundu modernoan aurreiritzidemokratikoak obratzen duen eragin oztopatzaileari zor zaio. Eta hori itxuraz objektiboena den natur zientzien eta fisiologiaren eremuan ere bai, hemen aipatzea besterik egin ez dugun arren. Baina aurreiritzihorrek, gorrotoaren hesiak hautsi ondoren, aurrena moralari eta zientzia historikoari egin liezaiekeen kaltea Buckle-ren kasu sonatuak erakusten du; izpiritu

³⁰ Herbert Spencer (1820-1903), ingeles filosofoa, Darwinen aitzindaria, bilakaera organiko oro “homogeneitate”tik “heterogeneitate”rako urrats bat delako bere ideiarekin. Nietzsche haren ideien oso kontra ageri da, batez ere, “egoismoa” eta “altruismoa”ren arteko adiskidetzeari proposatzen diolako.

modernoaren plebeismoak, etorki ingelesekoa denak, hemen bere jaioterrian beste behin leher egin zuen sumendi lokaztatu baten bortxarekin, eta sumendi guztiek orain arte hitz egin duten bokantza gaziegi, txiliotsu, arruntarekin.-

5

Gure arazoari, arrazoi onengatik arazo isil dei lekiokkeenari buruz, zeina belarri-kopuru urri baterantz, hautespenez, zuzentzen den, ez da interes gutxikoa frogatzea, “on” adierazten duten hitz eta erroetan oraindik, era askotara, nabarmentzen dela oinarritzko ñabardura, zeinengatik nobleak hain zuzen goi-lerruneko gizaki sentitzen baitziren. Egia da, agian kasurik gehienetan, horiek beren buruari ahalmenaren nagusitasunaren arabera besterik gabe ematen diotela izena (“ahaltsuak”, “jaunak”, “agintariak” deitzen diote beren buruari). Edota nagusitasun horren zeinurik ikuskorrenaren arabera, adibidez, “aberatsak”, “jabeak” deitzen diote beren buruari (hori da arya-k duen zentzua; eta gauza bera gertatzen da iranieraz eta eslavieraz). Baina, beren izaeraren ezaugarri tipiko baten arabera ere bai: eta hori da hemen interesatzen zaigun kasua. Adibidez, beren buruari “egiatiak” deitzen diote: lehenik aristokrazia grekoak, Teognis megaratarra ³¹ poeta bozeramaile izan zuenak. Horretarako akuinaturiko hitzak (GRIEGO) [noblea] erroaren arabera baden norbait adierazten du, errealitatea duena, erreal dena, egiazkoa dena; gero, itzuli subjektibo batekin, egiazkoa egiati den heinean esan nahi du: bere kontzeptuzko metamorfosi horretan aipaturiko hitza aristokraziaren bereizgarri eta goiburu bihurtzen da eta “aristokratiko” zentzua erabat izatera pasatzen da, gizaki arrunt gezurtiarekiko zedarriztapen gisa, Teognisek kontzebitzen eta deskribatzen duenez, -harik eta, aristokraziak behera egin eta gero, arimazko noblesse [noblezia] adierazteko gelditzen den arte, eta orduan, nolabait esateko, heldu eta ezti bihurtzen da. Bai (GRIEGO) [gaizto] eta bai (GRIEGO) [beldurti] hitzetan plebeioa (GRIEGO) [on]jekiko kontrajarririk koldarkeria azpimarratzen da: horrek agian seinale bat ematen du (GRIEGO)en era askotara interpretagarria den etorki etimologikoa zein norabidetan bilatu behar den. Latinezko malus [gaizto] hitzarekin (nik horren ondoan (GRIEGO) [beltza] jartzen dut) agian gizaki arrunta ezaugarritzen zen larru iluneko gizaki zen heinean, eta batez ere ile beltzarekiko gizakia zen heinean (hic niger est³², italiar lurreko aurreariar biztanle gisa, zein kolorez bereizten baitzen argiroen arraza horailetik, hau da, nagusi bihurtu ziren konkistatzaileen arraza ariarretik; gutxienez gaelikoak erabat parez pareko kasua eskaini dit, -fin (adibidez, Fin-Gal izenean), aristokraziaren hitz bereizgarria, azkenerako ona, noblea, garbia esan nahi duenak, jatorriz buru horaila adierazten zuen, larru ilun eta ile beltzeko lehen gizakiei kontrajarririk. Zeltak, bidenabar esanik, arraza guztiz horaila ziren; bidegabekeria bat egiten da funtsean ile iluneko biztanleria-zerrenda horiek, zein Alemaniako mapa etnografiko arretatsuetan ohargarri baitira, jatorri zelta eta odol-nahaste zeltarekin harremanean jartzen direnean, Virchowek oraindik egiten duenez: toki horietan, aitzitik, Alemaniako biztanleria aurreariarra agertzen da. (Gauza bera esan daiteke ia Europa osoaz: funtsean arraza menperatua azkenerako nagusitu egin da berriz ere han bertan

³¹ Nietzscheren lehen lan filologikoa poeta horri buruzkoa izan zen.

³² Horazioen *Satirak* liburuko hitzak (I. lib, 4. sat., 85. l.) Hitzez hitz: “Hau beltza da”, baina poeman “gaizto” zentzua hartzen du.

larruaren kolorean, burezurraren laburrean eta agian instintu intelektual eta sozialetan: norik bermatzen digu demokrazia modernoak, oraindik modernoagoa den anarkismoak eta, batez ere, commune rako [komuna], gizartearen era primitiboenerako joerak, gaur egun Europako sozialista guztiek amankomunean dutenak, ez al duten adierazten funtsean kontrakolpe eskerga bat -eta konkistatzaileen eta jaunen arraza, ariarrena, fisiologikoki ere beheraka doala?...). Uste dut baimendurik nagoela latinezko bonus [on] “gerraria” zentzuan interpretatzeko: suposatuz arrazoa dudala bonus antzinagokoa den duonusetik etorraztean (ikus bellum = duellum = duellum, zeinean duonus hura gorderik dagoela dirudien). Bonus, beraz, eztabaidaren, banaketaren (duo) gizasemea, gerraria litzateke: argi dago, antzinako Erroman gizasemearen “ontasuna” eratzen zuena. Gure alemanezko “on” (gut) hitzak berak: ez al lezake “jainkozkoa” /den Göttlichen), “jainkozko leinu”ko gizakia (göttlichen Geschlechts) adieraz? Eta godoen (Goten) izen herritarren (jatorriz aristokratikoen) identiko izan? Suposizio horren arrazoiak ez dira hemen ematekoak.-

6

Arau horretatik, hau da, lehenetsun politikoaren kontzeptua lehenetsun arimazkoaren kontzeptu bihurtzen delatik, ez da oraingoz salbuespen (nahiz eta egokiera ematen duen horretarako) kasta gorena aldi berean apaiz-kasta izatea eta, ondorioz, multzoko bere izendapenerako bere apaiz-funtzioa oroitarazten duen predikatu bat nahiago izatea. Hemen kontrajartzen dira, adibidez, lehen aldiz “garbia” eta “ez-garbia” estamentuzko bereizgarri gisa; eta halaber hemen garatzen dira geroago “on” eta “txar” bat ere jadanik zentzu ez-estamentuzkoan. Gainerakoan, kontu egin dezagun “garbi” eta “ez-garbi” kontzeptu horiek ez direla hartu behar alde aurretik zentzu zorrotzegian, zabalegian, eta askozaz gutxiago zentzu sinbolikoan: guk ozta-ozta imajina dezakegun neurri batean, lehen gizateriaren kontzeptu guztiak hasiera batean era gordin, zakar, kanpoko, estu, era zuzen eta bereziki ez-sinboliko batean hartu behar dira. “Garbia”, hasieratik, bere burua garbitzen duen, larruko gaitzak sortarazten dituen janari jakin batzuk bere buruari debekatzen dizkion, herri behetarreko emakume lohiakin oheratzen ez den, odolari nazka dion gizakia da soilik, -besterik ez, ez askoz gehiago! Bestalde, zalantzarik gabe, funtsean apaiz-aristokrazia den baten izaera osoak argitu egiten du zergatik oso goiz balioespen-antitesiak barneratu eta gaiztotu ahal izan ziren era arriskutsuan, hain zuzen ere, hemen; eta, izatez, azkenerako gizakia eta gizakiaren artean halakoxe lezeak sortu diren, zeinen gainetik librementsamenduaren Akiles batek ere ezingo zukeen jauzi egin ikararik gabe. Hasieratik badago osasungaitza den zerbait apaiz-aristokrazia horietan eta hor nagusi diren azturetan, ekintzatik alden, eta, parte batez, ideiak inkubatzera eta, parte batez, sentimenduz leherkorretara zuzendurikoetan, eta zeinen ondorioz agertzen baita garai guztietako apaizei ia huts egin gabe erasotzen dien hesteetako eritasun hura eta neurastenia hura; baina beren eritasun horren kontra berek asmatu duten sendagaia -ez al dugu esan behar azkenerako, bere eraginetan, ehun bider arriskutsuagoa dela frogatu duela libratu behar zuen gaixotasuna baino? Gizateria bera ari da oraindik jasaten apaiz-sendakuntzaren inozokeria horien eraginak! Pentsa dezagun, adibidez, zenbait dieta-eratan (okelarik ez jatea), barauan, sexu-kontinentzian, “basamortu”ra ihes egitean

(Weir Mitchell-en ³³gisako isolamenduan, nahiz eta ondorengo gizentze-kura eta gainelikatzerik gabe, zeinean ideal aszetikoaren historia guztiaren aurkako kontrapozoirik eraginkorra baitatza): gehi bekio horri apaizen metafisika osoa, zentzumenen etsaia, ustelgarri eta birfintzailea, fakirren eta brahmanaren erako beren buru-hipnotizatzea – Brahma beirazko bola eta ideia finko gisa erabilia- eta horien sendakuntza errotikoaren azken okegite orokor eta oso ulergarria, Deusezarena (edo Jainkoarena: Jainkoarekiko unio mysticarako [bateratze mistikoa] guraria da budistak Deusezarako, Nirvanarako duen guraria – eta kito!). Apaizen artean dena bihurtzen da noski arriskutsuago, ez bakarrik sendagaiak eta mediku-arteak, baita harrokeria, mendekua, maltzurkeria, nasaikeria, maitasuna, agintenahia, bertutea, gaixotasuna – nolana ere, zuzentasun pixka batekin, gehi liteke giza izatearen funtsezko era arriskutsu horren lursailean bihurtu dela gizakia animalia interesgarri, hor bakarrik lortu duela giza arimak sakonera zentzu goitar batean eta gaizto bihurtu dela – eta horiek dira, izan ere, nagusitasunaren oinarritzko bi erak gizakiak orain arte gainerako animalien gain dituenak!...

7

Dagoeneko igarri bide zaio zeinen aise apaizen balioespen-era saihesta daitekeen zaldun-aristokratikoarenetik, gero haren antitesi bihurtzeko; horretarako bereziki bultzatzen duen egokiera bat izaten da, apaizen kastak eta gerrarien kastak zeluengatik elkarrekin tupust egiten duten bakoitzean eta ados jarri nahi ez dutenean ordaindu beharreko prezioan. Balio-judizio zaldun-aristokratikoek erakuntza fisiko ahaltsua, osasun jori, aberats eta gaiztoak ere badute auresupostutzat, horri eusteak baldintzatzen duenarekin batera, hau da, gerra, abenturak, ehiza, dantza, gudu-jokoak eta, oro har, jarduera indartsu, aske, pozkariotsuak berekin duen guztiarekin.

Nagusi-apaizen balioesteko erak -dagoeneko ikusia dugu- beste auresupostu batzuk ditu: gauzak oso gaizki doazkie gerra agertzen denean! Apaizak, jakina denez, etsaierik gaiztoenak dira – zergatik? Ezinduenak direlako. Ezintasun horrengatik gorrotoa hazi egiten zaie beren baitan zerbait desarauzko eta makur bihurtu arte, izpiritual eta pozoitsuak. Historia unibertsaleko gorrotatzailerik handienak, baita gorrotatzaile izpirituz aberatsenak ere, apaizak izan dira beti – apaiz-mendekuaren izpirituekin alderatuta, beste edozein izpiritu ez da ia kontuan hartzekoa. Giza historia gauza ergelegia izango litzateke ezinduek hartan sartu duten izpiritua gabe: – har dezagun berehalaxe etsenplurik gorena. “Nagusi”, “bortxadun”, “jaun”, “ahaltzu”en aurka lurrean egin den ezerk ez du merezi aipatzerik juduek horien aurka egin dutenarekin alderatuz gero: juduek, apaiz-herri horrek, zeinek etsai eta dominatzaileengandik bere buruari asetasuna ematen ez baitu jakin, horien balio propioen errotiko balio-ordezpen baten bitartez izan ezik, hau da, mendekurik izpiritualenezko egintza batez. Horixe bakarrik zen egokia apaiz-herri batentzat, apaiz-mendekuaren irrika isilgordeeneko herri batentzat. Juduak ausartu dira, konsekuentzia logiko ikaragarri batekin balioen identifikazio aristokratikoa (on = nagusi = ahaltsu = eder = zorientsu =

³³ Silas Weir Mitchell (1829-1914), amerikar neurologo eta idazleak bere izena daraman nerbioetako gaitzak sendatzeko tratamendua asmatu zuen. Masajea, atsedena eta isolamendua ditu funtsezko osagaiak eta oso sonatua zen Nietzscheren garaian.

Jainkoak maitatu) alderantzikatzen eta gorrotorik hondargabeenaren (ezintasunaren gorrotoaren) hortzekin eutsi diote alderantzikatze horri, hau da, “errukarriak dira onak; behartsuak, ezinduak, baxuak dira on bakarrak; sufritzen dutenak, ezedukiak, gaixoak, itsusiak dira pietatsu bakarrak, Jainkoaren zorioneko bakarrak, horientzat bakarrik dago zorientasuna, – zuek, aldiz, zuek noble eta bortxadunok, zuek zarete betiera osoan gaizto, krudel, lizun, aseegin, jainkogabeak, eta zuek izango zarete betiko dohakabe, madarikatu eta kondenatuak!...” Jakina da nork jaso duen balio-ordezpen judutar horren ondarea... Gerra-aitorpen horrekin juduek beren gain harturiko ekimen desarauzko eta neurgabeki zorigaiztokoari buruz, gogoan dut beste egokiera batean idatzi nuen esaldia (“Ongiaz eta gaizkiaz haraindi”: 85 or.) – hau da, juduekin hasten dela moralean esklaboaren errebolta, bere atzetik bi mila urteko historia daukan eta guk gaur egun – garaile gertatu delako bakarrik – bistatik galdu dugun errebolta hori...

8

– Baina ez al duzue ulertzen? Ez al duzue begirik garaitia eskuratzeko bi mila urte behar izan dituen zerbait ikusteko?... Ez dago horretan ezer harrizkorik: gauza luze guztiak zailak dira ikusten, begipean hartzen. Baina hori da gertatua: mendeku eta gorrotoaren, gorroto judutarraren zuhaitz haren enborretik, gorroto sakon eta sublimeenaren, hau da, idealak sortzen, balioak aldatzen dituen, lurtean parekorik izan ez duen gorrototik –, era berean paregabea den zerbait erne zen, maitasun berri bat, maitasun-mota guztietan sakon eta sublimeena: – eta beste zein enborretatik erne ahal izango zen?... Baina ez bedi pentsa mendeku-egari haren benetako ukapen gisa agian erne zenik, gorroto judutarraren antitesi gisa erne zenik! Ez, alderantzizkoa da egia! Maitasun hori gorroto hartatik jaio zen haren koroa bezala, haren koroa triunfatzaile bezala, gero eta zabalera handiagoz hedatua argitasun garbienean eta eguzki-betetasunean; eta argiaren eta garaieraren erresuman maitasun horrek jazartu egiten zituen gorroto haren itua, jazartu egiten zituen garaitia, harrapakina, sedukzioa, joran berarekin, nolabait esateko, zeinekin gorroto haren erroak hondoratzen baitziren barrenago eta irriki gehiagok sakonera zuen eta gaiztoa zen guztian. Nazaretoko Jesus hori, maitasunaren ebanjelio haragitua, behartsu, gaixo, bekatariei zorientasuna eta garaitia dakarkien “berrerosle” hori – ez al zen bera, hain zuzen, sedukzioa bere erarik kezkagarri eta jarkiezinenean, idealaren berrikuntza judutar haietarantzko eta balio judutar haietarantzko sedukzioa eta desbideratzea? Ez al du eskuratu Israelek, hain zuzen ere “berrerosle” horren, Israelen itxurazko antagonista eta likidatzaile horren itzulginguruz, bere mendeku-joran sublimearen azken jopuntua? Ez al da mendekuaren politika egiazki handi baten magia beltz ezkutukoaren parte, ikusmira zabaleko, lurpeko, aurreratze geldoko mendeku aurrekalkulatzailerik baten, Israelek berak ukatu eta mundu osoaren aurrean gurutzean josi behar izana, bere etsai heriozkoa balu bezala, bere mendekuaren benetako tresna, “mundu osoak”, hau da, Israelen aurrezko guztiek, goganbeharririk gabe beita horri hozka egin ziezaioten? Eta bestalde, pentsa ote zitekeen inondik ere, izpirituaren finezia guztiarekin, beita arriskutsuagorik? Indar erakargarri, hordigarri, zentzordagarri, ustelgarrian “gurutze santua”ren, “Jainko bat gurutzean” egotearen paradoxa lazarri hura, krudeltasun imajinaezin, azkeneko, ezin gehiagokoaren eta gizakiaren salbamenerako Jainkoaren buru-gurutzearen sinbolo hura berdinduko duenik?... Gutxienez,

egia da sub hoc signo [zeinu horren azpian] Israel behin eta berriz garaile gertatu dela, bere mendekua eta balio guztien balio-ordezpenarekin, gainerako beste ideal guztien gainetik, ideal nagusien guztien gainetik. —

9

– ”Baina zertan ari zara zu hitz egiten oraindik ideal nagusienez! Atxiki gakizkien gertakariei: herria -edo “esklaboak”, edo “jendaila”, edo “artaldea”, edo nahi duzun bezala deitu- garaile atera da, eta hori juduen bitartez gertatu bada, ongi!, orduan ez du beste herrik misio handiagorik izan munduaren historian.”Jaunak” ezabaturik daude; gizaki arruntaren morala garaile atera da. Garaitia hori aldi berean odolaren pozoitze bat bezala har daiteke (horrek arrazak beren artean nahastea ekarri du) -ez dut ukatzen; baina ez bairik gabe, toxikatze horrek arrakasta lortu du. Gizajendearen “berrerospena” (hau da, “jaun”ekiko) biderik hoberenean dago; dena judutu edo kristautu egiten da, edo plebeiotu begibistan (bost axola hitzak). Pozoitze horren abioak gizateria osoaren gorputzean barrena geldiezia dirudi, bere tempoa [erritmoa] eta bere urratsa hemendik aurrera, gero eta geldoagoa, finagoa, entzunezinagoa, arretatsuagoa ere izan daiteke – izan ere, astia dago... Ba ote dagokio oraindik Elizari, zentzu horretan, derrigorrezko eginkizunik? Ba ote du inola ere izateko arrazoirik? Ala ba ote legoke hartaz gabetzerik? Quaeritur [Galde egiten da]. Badirudi, Elizak balaztatu eta geldiarazi egiten duela abio hura, bizkorragotu beharrea? Alabaina, hori izan liteke bere baliagarritasuna... Ziurra da pixkanaka Eliza zerbait zakar eta oiesa bihurtu dela, inteligentzia delikatuari, edo gustu benetan modernoari min egiten diona. Ez ote luke gutxienez zertxobait findu beharko?... Gaur egun, seduzitu baino gehiago aldaratu egiten du. Gutako zein izango litzateke librepenetsatzaile Elizarik ez balego? Elizak egiten digu kontra, ez bere pozoiak. Elizaz gabeturik geuk ere maite dugu pozoia...”– Hori da librepenetsatzaile baten epilogoia nire hitzaldiarentzat, animalia jator batena, sobera frogatu duenez, eta, demokrata batena gainera; honaino entzun egin ninduen, eta ez zuen jasan ni isiltzen entzutea. Zeren puntu honetan nik isiltzeko asko baitaukat.–

10

Esklaboen errebolta moralean erresumina bera sortzaile bihurtu eta balioak erditzearekin hasten da: benetako erreakzioa, egintzaren erreakzioa debekatua duten, eta mendeku imajinario batez soilik ordaina hartzen duten izakien erresuminarekin. Nork bere buruari esandako baietz triunfatzaile batetik moral noble oro jaiotzen den bitartean, esklaboen moralak ezetz esaten dio, alde zuzenetik, “kanpo” bati, “beste” bati, “ez-ni” bati; eta “ez” hori da bere egintza sortzailea eratzen duena. Balioak ezartzen dituen begiradaren alderantzizkatze hori – derrigorrezko kanporantz zuzentze hori norbere baitara bihurtu ordez- erresuminaren parte da hain zuzen ere:

sortzeko, esklaboen moralak mundu kontrajarri eta kanpoko bat behar du beti aurrena, fisiologikoki hitz eginez, kanpo-estimuluak behar ditu inondik ere obratu ahal izateko, -bere egintza, barrenetik, erreakzioa da. Alderantzizkoa gertatzen da balioesteko era noblean: horrek obratu egiten du eta espontaneoki hazten da, bere buruari baietz esker on handiagoz, pozkario handiagoz esateko bilatzen du bere kontrakoa, – bere kontzeptu negatiboa, “baxua”, “arrunta”, “txarra”, bere oinarritzko kontzeptu positibo, bizitza eta grinaz erabat blai egindakotik, “gu nobleok, gu onok, gu ederrok, gu zoriontsuok!” kontzeptutik geroago jaiotako kontraste zurbil bat besterik ez da. Balioesteko era nobleak huts egin eta errealtatearen aurka bekatu egiten badu, aski ezaguna ez zaion esferarekiko erlazioan gertatzen zaio hori, areago, zeinaren ezagutza errealari zakarki kontrajartzen zaion: ez du ulertzen batzuetan berak arbuaturiko esfera, herri baxuko gizaki arruntaren esfera; bestalde, kontuan har bedi, nolana ere, mesprezioaren afektua, goitik behera begiratzearena, nagusitasunez begiratzearena, mespreziatuaren imajina faltsutzen duela aurreuposaturik ere, ez da urrundik ere iritsiko faltsutzeraino, zeinarekin gorroto erreprimituak, ezinduaren mendekuak, bere arerioari -in effigie [irudian], noski- erasoko baitio. Izatez, mesprezioan zabarkeria gehiegi, arinkeria gehiegi, bistaren saiheste gehiegi eta egonezin gehiegi nahasten dira, baita pozkario gehiegi ere norbere baitan, bere objektua benetako karikatura eta txorimamu bihurtzeko gauza izateko. Ez bitez oharkabean pasa, adibidez, aristokrazia grekoak bere burua herri baxutik desberdintzeko erabilitako hitz guztietan ezartzen dituen, nuances [ñabardurak] ia onberak; ohar bedi nola beti nahasten den horietan, azukreztatuz tamal, begirune, barkaberatasun gisako bat, harik eta gizaki arruntari dagozkion hitz guztiak “dohakabe”, “errukarri” adierazteko esamolde gisa azkenerako gelditu diren arte (ikus (GRIEGO) [beldurti], (GRIEGO) [koldar], (GRIEGO) [bilau], (GRIEGO) [ziztrin], bi azken horiek gizaki arrunta lan-esklabo eta zamari gisa ezaugarritzen dutelarik) eta nola, bestalde, “txar”, “baxu”, “dohakabe” hitzek ez zuten inoiz belarri grekoarentzat tonu bakar baten soinua baizik izan, “dohakabe” nagusitzen den tinbre batekin: eta hori balioesteko era nobleago, aristokratikoago baten ondare gisa, zeinak ez duen bere buruaz uko egiten ezta mesprezioan ere (-filologoei gogora diezaiegun zer zentzutan erabiltzen duten (GRIEGO) [errukarri], (GRIEGO) [dohakabe], (GRIEGO) [etsitu], (GRIEGO) [porrot egin, zorte txarra izan], (GRIEGO) [zorigaitza]. “Ongi jaiotek” beren buruak arrazoiz sentitzen zituzten “zoriontsu”; horiek ez zuten artifizialki beren zoriona eraiki beharrik, eta batzuetan hartaz pertsuaditu, gezurra esan beharrik, beren etsaiei zuzenduriko begirada batez (erresuminaren gizaki guztiek egin ohi dutenez); eta halaber, gizaki osoak, indarrez beteak izaki eta, ondorioz, derrigorrean aktibo, ez zekiten jarduera eta zoriona bereizten, – haiengan hura, ezinbestean, horren parte zen (hortik du (GRIEGO) [ongi obratu, zoriontsu izan] hitzak bere jatorria) -hori guztia oso kontrajarririk zoriontasunari ezindu, zapaldu, sentimendu pozoitsu eta etsaikorrek zaurituen mailan, zeinetan zoriona funtsean narkosi, zentzordatze, baretasun, bake, “zapatu”, aldarrearen barreiatze eta gorputzatalen erlaxatze bezala agertzen baita, labur esateko zerbait pasiboa bezala. Gizaki noblea konfiantza eta irekitasunez bizi bere buruaren aurrean (GRIEGO) hitzak “jaiotzez aristokrata”, “ireki” eta zalantzarik gabe “xalo” nuance-a [ñabardura] azpimarratzen du bizi den bitartean), erresuminaren gizakia ez da irekia, ez xaloa, ez jator eta zuzena bere buruarekiko. Horren arimak zeharka begiratzen du; bere izpirituak ezkutalekuak ihesbideak eta atzeko ateak maite ditu, estaldiriko orok bere mundu, bere segurtasun, bere kontsolamendu gisa erakarri egiten du; aditua da isiltzen, ez ahazten, itxaroten, irazean kaxkartu eta umiliatzen. Erresuminaren gizakien horrelako arraza derrigorrean izango da

azkenerako edozein arraza noble baino zuhurrago, eta zuhurtzia neurri zeharo bestelakoan gurtuko du: hau da, existentziaren baldintzarik garrantzitsuena bezala, aldiz gizaki nobleen artean zuhurtziak luxu eta fineziazko kutsu delikatu bat duen bitartean: – horiengan ez da gutxiagorik ere instintu inkontziente arautzaileen funtzionamendu ziurtasun perfektua bezain garrantzizkoa, ezta zenbait zuhurgabekeria adinakoa ere, horrela, adibidez, itsumustuan oldartze kementsua, bai arriskura, bai etsaiarengana, edota koleraan, maitasunean, begirunean, esker onean eta mendekuan bat-batekotasun suhar hura, zeinean arima nobleek elkar ezagutu baitute garai guztietan. Gizaki noblearen erresumina bera, beragan agertzen denean, ahitu eta agortu egiten da, izan ere, bat-bateko erreakzio batean eta, horregatik, ez du pozoitzen: bestalde, agertu ere ez da egiten ezin zenbatu ahala kasutan, zeinetan ezinbestekoa gertatzen baita hura ahul eta ezinduengan agertzea. Norbere etsaiak, norbere ezbeharrak, norbere makurkeriak – hori da natura indartsu beteen zeinua, zeinetan dagoen indar plastiko, birmoldatzaile, birsortzailezkoaren, ahaztarazi ere egiten duen indarraren gainugaritasun bat, (Mirabeau da mundu modernoan horren adibide on bat, zeinak ez zeukan oroimenik iraintzat eta bere kontra egiten ziren bilaukerientzat, eta zeinek ezin zituen barkatu arrazoi bakar batengatik... ahazten zituelako). Horrelako gizakiak kolpe bakarraz har ugari astintzen ditu, zeinek besteengan, aldiz, lurpean habiak egiten baitituzte; hemen bakarrik da posible beste gauza bat, hori inondik ere lurpean posible dela suposatuz – ”bere etsaienganako maitasun” benetakoa. Zenbat begirune duen gizaki nobleak bere etsaienganako! -eta begirune hori jadanik zubi da maitasunerako... Gizaki nobleak bere etsaia sari bat bezala eskatzen du beretzat, ez du etsaitzat jasaten, izan ere, ezer mespreziatzeko duenik, eta ohoratzeko berriz asko baino askoago duena baizik! Aitzitik, imajina dezagun “etsaia” erresuminaren gizakiak kontzebitzen duenez – eta hain zuzen ere horretan datza haren egintza, haren sorkuntza: “etsai gaiztoa”, “gaiztoa ” kontzebitu du, eta hori oinarritzko kontzeptu gisa, nondik imajinatzen duen era berean osteirudi eta antitesi gisa, “on” bat -bere burua!...

11

Hain zuzen ere noblearengan gertatzen denaz alderantzitara, zeinak kontzebitzen duen “on” oinarritzko kontzeptua era alde aurretiko eta espontaneoan, hau da, bere buruarengandik kontzebitzen du, eta hartatik bakarrik sortzen du “txarra”ren ideia bat! Sorrera nobleko “txar” [schlecht] hori, eta “gaizto” [böse] hura, gorroto asegabearen egos-galdaratik irtena -lehena, eratorpenezko sorkuntza, zerbait bazterrekoa, kolore osagarri bat, bigarrena, aitzitik, jatorrizkoa, hasiera, benetako egintza esklaboen moral baten kontzepzioan-, bai desberdinak direla bi hitz hauek, “txar” [schlecht] eta “gaizto” [böse], itxuraz “on” [gut] kontzeptu berari kontrajartzen zaizkionak! Baina ez da “on” kontzeptu bera: galde egin bedi, areago, nor den benetan “gaizto” erresuminaren moralaren zentzuan. Zorroztasun guztiarekin erantzunik: hain zuzen ere beste moraleko “ona”, hain zuzen ere noblea, ahaltzua, dominatzailea, bakarrik kolorez aldatu, interpretatu eta alderantziz ikusia suminaren begi pozoitsutik. Bada hemen gauza bat guk inondik ere ukatu nahi ez duguna: “on” haiek etsai gisa bakarrik ezagutu dituenak, etsai gaiztoak besterik ez ditu ezagutu, eta gizaki haiek azturak, begiruneak, usuarioak, esker onak eta oraindik areago elkarren zainketak, inter pares [berdinen artean] lehiak hain zorrozki neurrian mantenduak, gizaki

haiek berek, zeinek bestalde elkarrekiko portaeran hainbesteko asmamena erakusten duten, arreta, norbere burua menperatze, finezia, fideltasun, harrotasun eta adiskidantzari dagokienez, -kanporantz, hau da, arrotza, atzerria hasten den tokian ez dira solte utzitako piztia harrapariak baino askozaz hobeak. Han, gizarte-hertsapen orotatik askatasunaz gozaten dute, oihanean, komunitateko bakean luzaroan sarturik eta itxita egoteak sorturiko tentsioaz ordaina hartzen dute, han, animalia harraparien kontzientziaren errugabetasun propiora itzultzen dira, munstro pozkariotsu gisa, zeinek behar bada atzetik uzten baitute asasinatze, sute, bortxatze eta tortura-sail nardagarria, berek egindako gauza bakarra ikasle-bihurrikeria bat besterik ez balitz bezalako izpiritu-baretasunarekin, sinetsirik berriz ere poetek, luzaroan, izango dutela zerbait kantatu eta goresteko. Ezinezkoa da ez berrezagutzea, arraza noble horien guztien oinarrian, animalia harraparia, harrapakin eta garaitiaz gutziatsu alderrai dabilen piztia horail bikaina; noizean behin barren ezkutatu horrek asaskatu beharra dauka, animaliak berriz ere kanpora irten behar du, oihanera itzuli behar du: – aristokrazia erromatar, arabiar, germaniar, japoniarrak, heroi homerotarrak, vikingo eskandinaviarrak -guztiak bat datoz hain premia ezinbestekoan. Arraza nobleek beren atzetik “barbaro” kontzeptua utzi dute iragan diren toki guztietan; beren kultura gorenean ere horren kontzientzia nabarmentzen da, eta harrotasun bat ere bai, (adibidez, Periklesek bere atenastarrei esaten dienean, hileta-otoitz sonatu hartan, “lur guztiak eta itsaso guztiak behartu egin ditugu gure ausardiaren eskura jartzera, alderdi guztietan monumentu irangaitzak utziz onean eta txarrean”)³⁴. Arraza nobleen “ausardia” hori, era zoro, absurdu, bat-batekoan agertzen dena, haien egitekoetako elementu aurreikustezin eta egiantzik gabe hori – Periklesek laudorioz nabarmentzen du atenastarren (GRIEGO) [arduragabetasuna] –, gorputza, bizitza, ongizatearen segurtasunarekiko haien axolagabetasuna eta haien mesprezioa, haien arraitasuna eta deuseztean sentitzen duten atsegin sakona, triunfoa eta krudelkeriaren gozamina – hori guztia bildu zen, nozitzen zutenarentzat, “barbaro”aren, “etsai gaizto”aren, adibidez, “godo”aren, “vandal”aren irudian. Alemaniarrak sortarazten duen mesfidantza sakon, izotzezkoa orain ere boterera iristen den bezain laster -oraindik ere mendeetan zehar Europak piztia horail germaniarraren sumina begietsi zuen izulaborri iraungiezinaren berragertze bat da (nahiz eta antzinako germaniarren eta gu alemaniarron artean jadanik ia ez dagoen inolako kontzeptu- eta odol-ahaidetasunik). Beste leku batean ³⁵ ohartarazi dut Hesiodoren txundimenaz kultur aroen joairaz gogoeta egin eta urrea, zilarra eta brontzeaz adierazten ahalegintzen zenean: Homeroren munduak, mundu hain bikain, baina, aldi berean, hain lazgarri eta ankerrak eskaintzen zion kontraesanetik, aro bakar bat bitan banatuz eta bata bestearen ondoren ezarriz soilik asmatu zuen ihes egiten -aurrena Troia eta Tebasko heroi eta erdi-jainkoen aroa, mundu hark leinu nobleen oroimenean biziraun zuenez, haietan baitzeuzkaten beren arbasoak; eta gero, brontze-aroa, mundu hura bera menperatuei, arpilatuen, tratutxartuen, deportatuen, salduen ondorengoei agertzen zitzaenez: brontze-aro baten gisara, esan dugunez, gogor, hotz, krudel, sentimendu eta kontzientziarik gabea, dena birrintzen eta odolez zirtatzen duen aro bat bezala. Demagun egiazkoa zela orain edozein kasutan “egia” zela uste dena, hau da, kultura ooren zentzua zinez “gizakia” animalia harrapariarengandik, hezkuntzaren bitartez, abere otzan eta zibilizatu bat, etxabere bat ateratzea zela, inolako zalantzarik gabe kontsideratu beharko litzateke erreazio eta

³⁴ Ikus Tuzidides, *Peloponesoko gerraren historia*, II, 41.

³⁵ Ikus *Goizalba*, 189. aforismoa (“Politika handiaz”. Nietzschek Hesiodo aipatzen du, *Lanak eta egunak*, 143-173. lerroak.

erresuminezko instintu haiek guztiak, zeinen laguntzarekin umiliatu eta dominatu baitziren azkenerako arraza nobleak, baita haien ideal guztiak ere, kulturaren tresna benetakoak izan direla; horrekin, nolana ere, ez legoke esana oraindik instintu horien eroaleek beren aldetik aldi berean kultura ordezkatzeko dutenik. Alderantzizkoa izango litzateke, areago, ez egiantzekoa bakarrik – ez!, gaur begibistakoa da! Ordaina hartzeko irrikitan dauden instintu zapaltzaile horien eroaleek, europar eta ez-europar esklabotza ororen ondorengoek, eta biztanleria aurreariar ororenek batik bat -gizateriaren atzerakada ordezkatzeko dute! “Kulturaren tresna” horiek gizakiaren lotsaizun bat dira eta areago ordezkatzeko dute susmo bat, bere horretan kulturaren aurkako kontraargumentu bat! Eduki liteke eskubide guztia arraza noble guztien barrenean bizi den piztia horailarenganako beldurretik ez libratzeko eta goardian egoteko: baina nork ez luke nahiago ehun bider beldurra sentitu, baldin eta aldi berean miresteke baimena badu, ezen ez beldurrik ez sentitu, baina porroteginen, kaxkartuen, zimelduen, pozoituen ikuspen kirastunetik ezin aldendu ahal izan? Eta ez al da hori gure patua? Zer da gaur “gizakia”renganako gure aiherra sortzen duena? -zeren guk gizakiarengatik sufritzen baitugu, ez dago zalantzarik. – Ez da beldurra; baizik eta gizakiarengan jadanik ezer beldurtzekorik ez izatea; “gizaki” harrak lehen maila hartzea eta harat-honat ibiltzea; gizaki otzan”, sendaezinki erdipurdiko eta higuinarrak bere burua helmuga eta gailur bezala, historiaren zentzu bezala, “gizaki garaia” bezala sentitzen ikasi izana; – areago oraindik, horrela sentitzeko nolabaiteko eskubidea izatea, gaizki eratu, gaixotien, nekatuen, unatuen multzotik urrundua sentitzen den neurrian, zeinen kiratsa jariatzen hasi baita gaur Europa, eta, ondorioz, gutxienez erlatiboki ongi eraturiko zerbait bezala, gutxienez oraingo bizi izateko gai den zerbait bezala, gutxienez bizitzari baietz esaten dion zerbait bezala...

12

-Puntu horretan zanpatu egiten dut zotin bat eta azken itxaropen bat. Zer da, hain zuzen ere, niri erabat jasanezina zaidan hau? Nik bakarrik gainetik kendu ezin dudana, eta irato eta kontsumitzen nauen hori? Aire gaizkoatua! Aire gaizkoatua! Gaizki eraturiko zerbait niregana datorrelakoa; gaizki eraturiko arima baten erraiak usnatzera beharturik aurkitzea!... Zer da bestalde miseria, gabezia, klima txar, gaixotasun, neke eta bakardadez jasaten ez duguna? Barrenean guztiari gaina hartzen diogu, izate lurpeko eta borrokalari baterako jaio baikara; behin eta berriz irteten gara argitara, behin eta berriz sentitzen dugu garaitiaren urrezko ordua -eta une horretan jaio ginen bezala agertzen gara, haustezin, teinkatu, zerbait berria, zerbait zailagoa, oraindik zerbait urrunagoa konkistatzeko prest, gabeziek oraindik teinkatuago jartzea besterik lortzen ez duten arku bezala. – Baina noizean behin -demagun badirela jagole zerutarrak ongi eta gaizkiaz haraindi- emadazue begirada bat, emadazue begirada bakar bat zuzentzea zerbait perfektu, erabat garatu, zorientsu, ahaltsu, garaikorra den zerbaiti, zeinean oraindik beldur izateko zerbait dagoen. Gizakia zuribidetzen duen gizaki bati begirada bat, gizakia osagarritu eta berrerosiko duen zorioneko kasu bati begirada bat, zeinen kariatz zilegi izango baitzait gizakiarengan sinesmenari eustea!... Zeren horrela baitaude gauzak: Europar gizakiaren kaxkartze eta berdintzeak gordeta baitauka gure arriskurik handiena, zeren ikuspen horrek nekatu egiten baitu... Gaur ez dugu ikusten handiago izan nahi duen ezer, gero eta beherago jaisten ari garela sumatzen dugu, gero eta

beherago, ahulagoa, otzanagoa, zuhurragoa, bareagoa, erdipurdizkoagoa, axolagabeagoa, txinatarragoa, kristauagoa den zerbaitea – gizakia, ez dago zalantzarik, gero eta “hobe” bihurtzen ari da... Hain zuzen, horretantxe dago Europaren patua – gizakiarenganako beldurra galtzean harenganako maitasuna, harenganako begirunea, harengan dugun itxaropena, areago, harenganako nahimena ere galdu egin ditugu. Gaur egun gizakiaren ikuspenak nekatu egiten du – zer da gaur egun nihilismoa hori ez bada?... Nekaturik gaude gizakiaz...

13

Baina itzul gaitzen atzera: “on”aren beste sorreraren arazoa, erresuminaren gizakiak onaren sorrera imajinatu duenez, azkeneraino iristea eskatzen du. -Bildotsek herra izatea hegazti harrapari handiei ez da harrizkoa: ezik ez dagoela horretan batere arrazoirik harrapariei gaizki hartzeko bildotsak harrapatzea. Eta bildotsek beren artean diotenean “hegazti harrapari hauek gaiztoak dira; eta ahalik eta gutxien hegazti harrapari denak, aitzitik haien antitesi, bildots bat denak, – ez al luke on izan behar?”, ez dago inolako eragozpenik horrela ideal bat ezartzean, ezik hegazti harrapariak beherantz begiratuko dutela isekati samar eta agian esango dutela: “Gu ez gaude inondik ere haserreturik bildots on horiekin, maite ere baditugu: ez dago ezer goxoagorik bildots samur bat baino.” –Sendotasunari dominatu-nahia, menperatu-nahia, nagusitu-nahia, etsai eta erresistentzia eta triunfo-egari bat ez izateko eskatzea ahultasunari sendotasun bezala kanporatzeko eskatzea bezain zentzugabea da. Indar quantum bat doiki horrelako pulstio, nahimen, jarduera-quantum bat da -areago, pulstionatze hori bera, nahi izate hori bera, jardute hori bera besterik ez da, eta, beste gauza baten itxura izan balezake ere, hori hizkuntzaren sedukzioarengatik bakarrik da (eta hizkuntza hari egindako arrazoiaren errotiko errakuntzengatik), zeinak ulertzen eta gaizkiulertzen duen egite oro egile batek, “subjektu” batek baldintzaturik dagoela. Hau da, herriak tximista eta haren erlantz bereizten eta bigarrena egite bat bezala kontzebitzen duen bezala, tximista deritzan subjektu baten egintza bezala, horrela herriaren moralak bereizi egiten du sendotasuna haren kanporatzeetatik, indartsuaren atzetik substrato indiferente bat balego bezala, kanporatzeko libre dena eta, baita sendotasuna ez kanporatzeko ere. Baina ez dago horrelako substratorik; ez dago inolako “izaterik” egitearen, jardutearen, bilakatzearen atzean; “egilea” fikzioz gehitu zaio egiteari -egitea da dena. Barrenean herriak bikoiztu egiten du egitea; tximistak erlantz bat jaurtikitzen duela pentsatzen duenean hori egitearen egite bat da: jazoera berak bi bider jartzen du, aurrena kausa gisa eta gero, beste behin, haren ondorio gisa. Naturaren ikertzaileek ez dute hobeki egiten “indarrak higitu egiten du, indarrak kausatu egiten du” eta antzekoak esatean, – gure zientzia osoa, bere hoztasun guztia, afektuarekiko bere askatasun guztia gora-behera, hizkuntzaren sedukziopean dago oraindik eta ez da iragazi zaizkion seme-alabegandik, “subjektu” faltsuengandik libratu (atomoa, adibidez, seme faltsu horietako bat da, eta gauza bera gertatzen da “bere baitako gauza” kantiarrarekin): ez da harrizkoa mendekua eta gorrotoaren grina erreprimatu eta ezkutuki irazekiek sineste horretaz beren buruen alde baliatzea, eta barrenean, besterik ez sustengatzea suhar handiangoarekin sendoa libre dela ahul izateko, eta hegazti harraparia, libre bildots izateko: -horrekin konkistatzen dute, izan ere, berentzat hegazti harrapariari hegazti harrapari izatea egozteko eskubidea... Zapalduak,

oinperatuek, bortxatuek ezintasunaren zuhurtzia mendekuzkoak eraginik elkarri esaten diotenean: “Izan gaitezen gaiztoak ez bezalakoak, hau da, onak! Eta ona da bortxatzen ez duen oro, inor iraintzen ez duena, erasotzen ez duena, konturik kitatzen ez duena, mendekua Jainkoari uzten diona, zeina ezkutuan egoten den gu bezala, eta gaitz ororen bidetik saihestu eta bizitzatik gutxi eskatzen duen, guk egonarritsuok, apalok, zintzook bezalaxe” -horrek, hoztasunarekin eta inolako aurreiritzirik gabe entzunda, honako hau besterik ez du esan nahi: “Gu, ahulok, ahulak gara noski; ezer ez egitea komeni zaigu, horretarako behar bezain sendoak ez bagara”; baina gertakarien errealitate mingots hori, maila beheerenera zuhurtzia hori, intsektuek bere ere badutena (zeinek arrisku handia denean, hildakoarena egiten duten ezer “gehiegizkorik” ez burutzeko), jantzi egin da, ezintasunaren faltsifikazio eta burugezurtapenaren arte horri esker, bertute ukatzaile, isil, igurikatzailearen erlantzaz, ahularen ahulezia bera -hau da, bere funtsa, bere obratzea, bere errealitate oso, bakar, saihestezin, ezabaezina- berariazko lorpen bat balitz bezala, zerbait nahi izana, hautatua, egintza bat, meritu bat. Burugordepn-, burubaieztapen-instintu batengatik, zeinean gezur oro santutzen baita, gizaki-mota horrek “subjektu” indiferente, hautatzeko askearengan sinetsi beharra dauka. Subjektua (edo, era herritarragoan hitz eginez, arima) izan da orain arte lurrean dogmarik hoberena, agian hilkorren, ahulen eta era guztietako zapalduen multzo eskergari, ahulezia bera askatasun gisa interpretatzearen, bere hola-eta-hola izatea meritu gisa interpretatzearen buruiruzurtze sublimea ahalbidetzen ziolako.

14

-Norbaitek begiratu nahi al du pixka bat beherantz, lurrean idealak nola fabrikatzen diren? Nork du horretarako adorea?... Ederki! Hona hemen tailer ilun horretarantz irekitako begirada. Zaude une batean, Arinkeria eta Ausarkeria jauna: zure begiak ohitu beharra dauka aurretik argi faltsu aldakor horretara... Horrela! Aski da! Hitz egizu orain! Zer gertatzen da han behean? Esazu zer ikusten duzun, jakinmin arriskutsueneko gizona -orain neu naiz entzuten ari dena. –

– ”Ez dut ezer ikusten, baina hainbat gehiago entzuten dut. Marmarra eta txutxuputxu arretatsu, makur, isil, kantoi eta zoko guztietatik datorren bat da. Jende hori gezurretan ari dela deritzat; ezintasun azukrezko bat itsasten zaio hots bakoitzari. Ahuleziak gezurretan meritu bihurtua izan behar du, ez dago zalantzarik -zuk esaten zenuen bezala da.” –

– Aurrera!

– ”...eta ordainik hartzen ez duen ezintasuna ‘ontasun’; baxukeria larria, ‘umiltasun’; gorrotatzen denarekiko menpekotasuna, ‘obedientzia’ (hau da, menpekotasun hori agintzen duela dioten norbaiti – Jainko deitzen dute –). Ahularen kaltegabeak, hainbeste daukan koldarkeriak berak, bere atean-zain-egoteak, bere ezinbesteko itxaron-beharrak, hemen izen on bat hartzen du, ‘pazientzia’, eta bertutea ere deitzen zaio; mendekua-ezin-hartu-ahal izateari mendekua-ez-hartu-nahia deitzen zaio, eta agian barkamen ere bai (‘zeren horiek ez baitakite zer egiten duten’³⁶ – guk

³⁶ Lukas, 23, 24. Jesukristok gurutzean esandako hitzak.

bakarrik dakigu horiek zer egiten duten!’ Jende horrek ‘norbere etsaienganako maitasunaz’ ere hitz egiten du³⁷ eta bitartean izerdia dario.”

– Aurrera!

– ”Miserableak dira, ez dago zalantzarik, marmarti eta kantoietako diruketari faltsu horiek, nahiz eta kuzkurturik dauden elkar berotzen -baina beren miseria Jainkoaren hautapen bat eta sari bat dela, gehien maite diren txakurrak zigortu egiten direla; agian miseria hori prestamen bat dela, proba bat, eskolatze bat, eta agian zerbait gehiago – egunen batean kitatua izango den zerbait, eta korritu izugarriekin ordainduko dena urretan, ez!, zorionetan. Horri deitzen diote ‘zoriontasuna’.”

– Aurrera!

– ”Orain ulertarazten didate horiek ez direla ahaltzuak baino hobeak bakarrik, lurreko jaunak baino ere, zeinen listua mihiztatu behar baitute, (ez beldurrez, inola ere ez beldurrez, baizik Jainkoak agintari oro ohoratzeko eskatzen duelako)³⁸, – ez hobeak bakarrik, baizik eta ‘hobeki ere badoakiela’, edo, edonola ere, noizbait hobeki joango zaiela. Baina, aski da!, aski da! Ezin dut gehiago eraman. Aire gaizkoatua! Aire gaizkoatua! Idealak fabrikatzen diren tailer horri -gezur-kiratsa dariola iruditzen zait.”

-Ez! Zaude une batean oraindik! Oraindik ez diguzu ezer esan beltz guztiaz zurtasuna, esnea eta errugabetasuna eraikitzen dakiten nigromante horien maisu-lanaz: – ez al duzu ohartu zein duten perfekzio gorena finezian, beren artista-amarru txit ausart, txit fin, txit zoli, txit gezurtia? Adi! Mendekuz eta gorrotoz beteriko soto-abere horiek -zer egiten dute hain zuzen mendekuarekin eta gorrotoarekin? Entzun al dituzu inoiz hitz horiek? Horiek diotenaz bakarrik fidatuko bazina, susmatuko al zenuke erresuminaren gizakien erdian zaudela?...

– ”Ulertzen dut, berriz irekitzen ditut belarriak (ai!, ai!, ai!, eta itxi egiten dut sudurra). Orain bakarrik entzuten dut lehen hain sari ziotena: ‘gu onok -gu gara zuzenak’ -horiek eskatzen dutenari ez diote ordaina hartzea deitzen, ‘zuzentasunaren triunfoa’ baizik; horiek ez dute etsaia gorrotatzen, ez!, horiek ‘zuzentasunik eza’ gorrotatzen dute, ‘jainkogabekeria’; horiek sinesten eta itxaroten dutena ez da mendekuaren itxaropena, mendeku gozoaren horditasuna (– ‘eztia baino gozoagoa’, deitzen zuen jadanik Homerok)³⁹, baizik eta Jainkoaren garaitia, Jainko zuzenarena jainkogabeen gain; horiei maitatzeko lurrean gelditzen zaiena ez dira gorrotoko beren neba-arrebak, baizik eta ‘maitasuneko beren neba-arrebak’⁴⁰, berek diotenez, lurreko on eta zuzen guztiak.”

– Eta nola deitzen dute bizitzako sufrimenduen aurka pozbidetzat balio dien hura- etorkizuneko zoriontasun aurreratuaren beren fantasmagoria?

– “Nola? Ongi entzuten al dut? Horri deitzen diote ‘azken epaia’, bere erresumaren etorrera, ‘Jainkoaren erresumarena’ – baina bitartean ‘sinesmenean’, ‘maitasunean’, ‘itxaropenean’ bizi dira’⁴¹.

³⁷ *Mateo*, 5, 44. Mendiko hitzaldia.

³⁸ *Epistola Erromatarrei*, 13,1.

³⁹ *Iliada*, XVIII, 119. Akilezen hitzak Tetisekiko bere elkarrizketan.

⁴⁰ *I. Epistola Tesalonikarrei*, 3,12.

⁴¹ *II. Epistola Tesalonikarrei*, 1,3.

– Aski da! Aski da!

15

Zerekiko sinesmenean? Norenganako maitasunean? Zeren itxaropenean? – Ahul horiek -noizbait, izan ere, berek ere sendo izan nahi dute, ez dago zalantzarik, noizbait heldu behar du horien erresumak ere – zer eta ”Jainkoaren erresuma” deitzen diote, dagoeneko esan dugunez: izan ere, hain dira apalak guztian! Horren lekuko izateko luzaro bizi beharra dago, heriotzaz haraindi, – izan ere, betiko bizitza beharrezkoa da betieran kitatu ahal izateko, “Jainkoaren erresuman” lurreko bizitza hartaz “sinesmenean, maitasunean, itxaropenean”. Zertaz kitatu? Zerekin kitatu?... Nik uste dut Dantek erru makurra egin zuela, xalotasun ikaragarri bere infernuko atearen gainean “ni ere betiko maitasunak sortu nau” idazkuna ezartzean⁴²: – paradisu kristauaren eta bere “betiko zorientasuna”ren atearen gainean edonola ere, eskubide gehiagoz, egon liteke, “ni ere betiko gorrotoak sortu nau” idazkuna-, suposatuz egia bati zilegi zaiola gezur batera daraman atearen gainean ezarrita egotea! Bada, zer da paradisu haren zorientasuna?... Agian guk geuk ere igarriko genuke; baina hobe da espreski testiga diezagun horrelako gauzetan gutxiestekoa ez den autoritate batek, Tomas Aquinoko maisu eta santu handiak. “Beati in regno coelesti”, dio bildots batek bezain otzan, “videbunt poenas damnatorum, ut beatitudo illis magis complacet.” [Zorionekoek zeruko erresuman kondenatuen zigorrak ikusiko dituzte, zorientasuna atseginago izan dakien]. Ala hori bera entzun nahi al da tonu indartsuagoan, adibidez, Elizako guraso baten aho triumfatzailetik, zeinek ematen baitzien kristauei jendaurreko ikuskizunetako plazer krudeletara ez joateko burubidea – zergatik, ordea? “Sinesmenak, izan ere, askozaz gauza gehiago eskaintzen digu – dio, de spectac. c. 29 hh. – “askozaz gogorragoa”; berrerospenari esker, izan ere, zeharo bestelako atseginak dauzkagu; atleten ordez guk geure martiriak dauzkagu; eta odola nahi badugu, orduan, Kristoren odola daukagu... Baina zerk itxaroten digu bere itzuleraren, bere triumfoaren egunean!” – eta orain honela jarraitzen du bisionario arrotatu honek: “At enim supersunt alia spectacula, ille ultimus et perpetuus iudicii dies, ille nationibus insperatus, ille derisus, cum tanta saeculi vetustas et tot ejus natiuitates uno igne haurientur. Quae tunc spectaculi latitudo! Quid admirer! Ubi gaudeam! Ubi exultem, spectans tot et tantos reges, qui in coelum recepti nuntiabantur, cum ipso Jove et ipsis suis testibus in imis tenebris congemescerent! Item praesides! (probintzietako gobernariak) persecutores dominici nominis saevioribus quam ipsi flammis saevierunt insultantibus contra Christianos liquescentes! Quos praeterea sapientes illos philosophos coram discipulis suis una conflagrantibus erubescerent, quibus nihil ad deum pertinere suadebant quibus animas aut nullas aut non in pristina corpora redituras affirmabant! Etiam poetas non ad Rhadamanti nec ad Minois, sed ad inopinati Christi tribunal palpitantes! Tunc magis tragoedi audiendi, magis scilicet vocales” (zenbat eta ahotsa hobe, hainbat okerragoa egingo dute garrasia) “in sua propria calamitate; tunc histriones cognoscendi, solutiores multo per ignem; tunc spectandus auriga in flamma rota totus rubens, tunc xystici contemplandi non in gymnasiis, sed in igne jaculati, nisi quod ne tunc quidem illos velim vivos, ut qui malim ad eos potius conspectum insatiabilem conferre, qui in dominum

⁴² Dante, *Divina Commedia*, Infernua III, 5-6 “fecemi la divina potestate,
la somma sapienza e’l primo amore.

desaevierunt. <Hic est ille <, dicam, > fabri aut quaestuariae filius < “ (ondorengo guztiak erakusten duenez, eta Talmudetik ezaguna den izendapen honek ere bai bereziki, Jesusen amarenak, hemendik aurrera Tertulianok juduei hitz egiten die), sabbati destructor, Samarites et daemonium habens. Hic est, quem a Juda redemistis, hic est ille arundine, et colaphis diverberatus, sputamentis dedecoratus, felle et aceto potatus. Hic est, quem clam discentes subripuerunt, ut resurrexisse dicatur vel hortulanus detraxit, nec lactucae suae frequentia commeantium laederentur.< Ut talia spectes, ut talibus exultes, quis tibi praetor aut consul aut quaestor aut sacerdos de sua liberalitate praestabit? Et tamen haec jam habemos quodammodo per fidem spiritu imaginante repraesentata. Ceterum qualia illa sunt, quae nec oculus vidit nec auris audivit nec in cor hominis ascenderunt? (1 Kor. 2, 9) Credo circo et utraque cavea (lehen eta laugarren lerroa, edo, beste batzuen arabera, teatro komiko eta tragikoa) et omni stadio gratiora”⁴³. – Per fidem: horrela dago idatzita.

16

Amari dezagun. Bi balio kontrajarriek “on eta txarrak”, “on eta gaiztoak”, borroka ikaragarria izan dute lurtean, milaka urtez iraun duena; eta egia bada ere bigarren balioa aspaldi nagusitu dela, ez dira falta, orain ere, borroka erabaki gabe horretan diharduten tokiak. Zera ere esan liteke,

⁴³ “Baina oraindik beste ikuskizun batzuk gelditzen dira, epai-egun azken eta betiko hura, nazioek itxaroten ez duten eguna, trufa egiten dioten eguna, munduaren zaharria hain handi hau eta hartako hainbat belaunaldi su bat berean erreko direnean. bai ikuskizun handiosa ordukoa! Hamaika gauzaz harrizko naiz! Hamaika gauzaz egingo dut barre! Han bai gozatuko dudala! Han bai hartuko dudala atsegina ikusiz, hainbeste eta hain handi diren erregeak, zeinez esaten baitzen zeruan hartuak izan zirela, nola ilunpe sakonetan intzirika ari diren Jupiterrekin berarekin eta beren testigekin batera! Ikusiz, halaber, Jaunaren izenaren jazarle izan diren presidentek [probintzietako gobernariak] berek kristauen kontra sustatu zituztenak baino sugar krudelagotan urtzen! Ikusiz, halaber, nola jakintsu filosofo haiek lotsagorritzen diren berekin erretzen ari diren ikasleen aurrean, zeinek konbentzitzen baitzituzten ezer ez dagokiola Jainkoari, zeinei ziurtatzen baitzieten arimarik edo ez dagoela edo ez direla beren lehenagoko gorputzetara itzuliko! Eta ikusiz, halaber, nola dardar egiten duten poetek, ez Radamanto edo Minosen auzitegiaren aurrean, baizik eta itxaroten ez zuten Kristorenean! Orduan gehiago entzungo ditut tragedia-antzezlariek, hau da, bokantza handiagoa izango dute beren ezbeharrez hitz egitean; orduan historioak ezagutuko ditut, suarengatik askozaz zailuago; orduan auriga ikusiko dut, erabat goriturik suzko gurdian; orduan atletak begietsiko ditut, txabalina ez gimnasioetan jaurtikitzen, baizik sutan, orduan bizirik egotea nahi izango ez banu behintzat eta nahiago izango ez banu begirada aseezin bat Jauna oinazetu zutenengana zuzentzea. “Hau da, esango dut, zurginaren edo prostitutaren semea, zapatuaren deuseztatzailea, samaritarra eta deabruduna. Hau da Judasi erosi zenioten hura, hau da kanaberaz eta betondoka jo zuten hura, listuka umiliatua, behazuna eta ozipina edateko eman zeniotena. Hau da ikasleek ezkutuka lapurtu zuten hura, berpiztu zela esan zezaten, edota baratzaren jabeak handik kendu zuena, joan-etorrian zebiltzanen jendetza handiak bere letxuak honda ez zitzaizkan.” Ikuskizun horiek ikustea, gauza horiez pozteko ahalbidea, zein pretorek, edo kontsulek edo kuestorek, edo apaizek, eman ahal izango dizu, bere eskuzabaltasun guztiarekin ere? Eta, hala eta guztiz ere, neurri batean badauzkagu jadanik gauza horiek sinesmenez, imajinatzen dituen izpirituan irudikatutakoak. Gainerakoan, zeintzuk dira begiak ikusi ez dituen, belarriak entzun ez dituen, gizakiaren bihotzean sartu ez diren gauza horiek? (I. Kor. 2,9). Zirkua, eta teatro bikoitza, eta estadio guztiak baino atseginoagoak direlakoan nago.]

bitartean borroka gero eta gorago eramana izan dela eta hain zuzen horrexegatik, gero eta sakonago bihurtu dela, gero eta izpiritualago: halako moldez, non gaur agian ez dagoen zantzu erabakigarriagorik “natura garaiagoa”renik, natura izpiritualagoarenik, zentzu hartan erdibiturik egotea baino, eta oraindik antitesi haien borrokaleku errealki izatea baino. Borroka horren sinboloak, gizateriaren historia osoan zehar orain arte irakurgarri iraun duten karakteretan idatziak dio “Erroma Judearen aurka, Judea Erromaren aurka”: -orain arte ez da izan jazoera handiagorik borroka hori baino, arazoaren planteaketa hori baino, etsai heriozkoen kontraesan hori baino. Erromak juduarengan antinatura moduko zer bait, nolabait esateko, bere antipodetako mostrum-a [munstroa] bezalakoa ikusten zuen; Erroman judua “gizateria osoaren kontrako gorrotoz errudun”⁴⁴ gisa ikusten zen: arrazoiz, gizajendearen salbamena eta etorkizuna balio aristokratikoen, balio erromatarren nagusitasun baldintzagabeari lotzeko eskubidea dagoen neurrian. Zer da juduek sentitzen zutena, aldiz, Erromaren aurka? Mila zantzutatik igartzen da; baina aski da beste behin Joanen Apokalipsia, mendekuak bere kontzientziaren gainean idatzirik daukan larderia basaena gogora ekartzea. (Bestalde, ez bedi gutxiets, instintu kristauaren ondorio logiko sakona zinez gorrotoaren liburu horren gainean maitasunaren dizipuluaren izena, Ebanjelio maitemindu eta suhar hura bera egotzi zionarena berarena –: hemen egia pixka bat ezkutaturik dago, zeinahi ere handia izan den helburu hori lortzeko beharrezko faltsifikazio literarioa.) Erromatarrek, izan ere, sendoak eta nobleak ziren; hainbestearino ziren, non orain arte ez den izan lurrean gizaki sendo eta nobleagorik, eta amets ere ez da egin holakorik; horien erlikia orok, horien idazkun orok estasia sortzen du, han zer dagoen idatzirik igartzen dela suposatuz. Juduak, aldiz, erresuminaren apaizherria ziren par excellence, zeinean bizi zen jeinutasun herritar-moral paregabe bat: aski da alderatzea antzeko gaitasunak dituzten herriak, adibidez, txinatarrak edo alemaniarrek, juduekin, zer den lehen lerrunekoa eta zer den bosgarrenekoa ulertzeko. Bitartean horietako zein atara da garaile, Erroma ala Judea? Ez dago, noski, zalantza txikienik ere: kontuan izan bedi noren aurrean makurtzen diren gaur egun gizakiak, Erroman bertan, balio goren guztien sintesiaren aurrean bezala, -eta ez Erroman bakarrik, ia lurbira erdian, gizakia otzan bihurtu den edo otzan bihurtu nahi duen toki guztietan, -hiru juduren aurrean, jakina denez, eta emakume judu baten aurrean (Nazareteko Jesusen, Pedro arrantzalearen, Paulo alfonbra-ehulearen eta aipaturiko Jesusen amaren, Maria deituaren aurrean). Hori oso ohargarria da: Erromak hondoa jo du, inolako zalantzarik gabe. Nolanahi ere Errenazimentuan ideal klasikoaren, gauza guztiak balioesteko era noblearen berpizte distiratsu eta kezkarri bat izan zen: Erroma bera higitu zen begiak irekitzen dituen itxuraz hildako baten gisara, Erroma berriaren, haren gainean eraikitako Erroma judutartuaren presiopean, zeinek eskaintzen baitzuen sinagoga ekumeniko baten itxura eta “Eliza” deitzen zena; baina berehalaxe triumfatu zuen Judeak berriz ere errotik plebeioa (ingeles eta alemaniarra) zen erresuminaren mugimendu hari esker, zeini ematen baitzaio Erreforma protestante izena, horretatik jarraitu behar zuena gehituz, Elizaren berrezarpena. -Erroma klasikoaren hilobizko lasaitasun zaharraren berrezarpena ere bai. Zentzu erabakigarriago batean oraindik eta Erreforma protestantea baino sakonagoan, Judea berriz ere garaile atara zen ideal klasikoaren gainetik Iraultza Frantsesarekin: European zegoen azken noblezia politikoa, XVII eta XVIII. mende frantsesetakoa, erresuminaren instintu herritarren pean erori zen – sekula ez zen lurrean entzun

⁴⁴ Tazito, *Analak*, XV, 44. (...) haud proinde in crimine incendii quam odio humano generis conuicti sunt.[gutxiago izan ziren sutearen krimenez konbentzituak gizajendearen aurkako gorrotoarenaz baino.]

pozkariorik handiagorik eta suhar zaratatsuagorik! Egia da haren guztiaren erdian gauzarik beldurgarriena, ustegabekoena, gertatu zela, antzinako ideala bera agertu zela haragiturik, distira entzungabearekin, gizateriaren begien eta kontzientziaren aurrean, – eta beste behin, gehienen pribilegioaz hitz egiten duen erresuminaren kontsigna zahar eta gezurtiaren aurrean, beheratze-, kaxkartze-, berdintze-, hondoratze-nahimenaren eta gizakiaren ilunabarraren aurrean sendoago, sinpleago, inoiz baino sarkorrago egin zuen durundi gutxienean pribilegioaren antikontsigna ikaragarri eta liluragarriak! Beste bidearen azken adierazpen gisa Napoleon agertu zen, inoiz izan den gizonik apartekoena eta beranduen jaioa, eta berarengan, berarengan haragitua, bere baitako ideal noblearen arazoa – gogoeta egin bedi zer arazo den hori: Napoleon ezgizakia eta gaingizakiaren arteko sintesi hori...

17

– Horrenbestez dena amaitu al da dagoeneko? Horrela ad acta [artxiboetara] bazterturik gelditu al zen betiko inoizko ideal-sintesi handien hura? Ala atzeratu, luzaroan atzeratu besterik ez zen egin?... Ez ote du gertatu behar noizbait antzinako sutea berriro izekitzea, oraindik askozaz ikaragarriagoa, denbora luzeagoan prestatua? Areago oraindik: ez ote litzateke nahi izan beharko hori hain zuzen indar guztiekin?, eta nahi izan ere bai?, eta faboratu ere bai?... Puntu honetan hasten dena, nire irakurleak bezala, gogoeta egiten, pentsatzeari jarraitzen, zaila da laster bukaerara iristea, – hori niretzat aski arrazoi da neu bertara irits nadin, auresuposatuz aspaldi aski argi geratu dela neuk nahi dudana, “Ongiaz eta gaizkiaz haraindi” neure azken liburuaren aurrealdean ezarri dudana kontsigna arriskutsu hori... Horrek ez du esan nahi, gutxienez, “Onaz eta txarraz haraindi”. —

Oharra. Tratatu honek eskaintzen didan egokieraz baliatzen naiz publikoki eta formalki nahi bat adierazteko, orain arte noizbehinkako elkarrizketatan, eta pertsona ikasiekin aditzera eman dudana; hau da, Filosofiako Fakultateren bat moralaren historiako azterketen sustapenaren benemeritu bihur dadila sari akademiko batzuetarako deialdiak eginez: – agian liburu honek balioko du norabide horretan hain zuzen ere bultzada indartsu bat emateko. Gisa horretako ahalbideren bat aurreikusiz, honako auzi hau proposatzen da: nola filologoen hala historialarien arreta merezi du, baita ofizioz filosofian benetako jakintsu direnena ere.

Zer aztarna eskaintzen dizkigu hizkuntzaren zientziak, eta bereziki ikerkuntza etimologikoak, kontzeptu moralak bilakatzearen historiaz?

– Bestalde, beharrezkoa da halaber, noski, fisiologo eta medikuen interesa irabaztea arazo horietarako (orain arte izandako preziazio balioesleen balioaz) hemen ofiziozko filosofoei utz lekieke aparteko kasu honetan ere abokatu- eta bitartekari-eginkizuna burutzea, jatorriz hain latza, hain fidakaitza izan den filosofia, fisiologia eta medikuntzaren arteko erlazioa trukerik adiskidekor

eta emankorrena bihurtzea lortu eta gero. Izatez ondasun-taula guztiak, historiaz edo ikerkuntza etnologikoaz ezaguturiko “behar duzu” guztiak behar dute, batez ere, argitzapen eta interpretazio fisiologikoa, edozein kasutan, psikologikoa baino lehenago; guztiak espero dute halaber kritika bat zientzia medikoaren aldetik. Auzi hau: zer balio du ondasun-taula eta “moral” honek edo hark? ikuspegi desberdinenetatik planteatu beharrekoa da, batez ere “baliotsu zertarako?” galdera sekula ezingo da behar adinako fineziaz aztertu. Adibidez, arraza baten iraupenerako (edo klima jakin batera, edo kopuru handiena kontserbatzera moldatze-indarrak gehitzeko) gaitasun posible handienari dagokionez balioa izan lezakeen zerbaitek begibistan dago ez lukeela inondik ere balio bera izango, adibidez, tipo sendoago bat eratzea helburua izango balitz. Gehienen ongia eta gutxien ongia balio-ikuspuntua kontrajarriak dira; bere baitan lehenak balio jasoagoa duela uste izatea guk biologo ingelesen xalotasunerako utziko dugun zerbaite da... Zientzia guztiak prestatu behar dute orain bidea filosofoaren etorkizuneko lanerako: eginkizun hori filosofoak balioaren arazoa konpondu behar duen zentzuan ulerturik, balioen hierarkia determinatu behar du. –

Bigarren tratatua

“Errua”⁴⁵, “kontzientzia txarra” eta antzekoak

Promesak egitea zilegi zaion animalia bat haztea – ez al da horixe bera naturak gizakiarekiko bere buruari jarri dion eginkizun paradoxazkoa? Ez al da hori gizakiaren benetako arazoa?... Arazo hori neurri handi batean ebazirik egoteak hainbat harrigarriagoa iruditu behar du beraren kontra diharduen indarra, ahanzmena erabat preziazten dakienarentzat. Hori ez da vis inertiae [inertziatzko indar] soil bat, axalekoek uste dutenez inhibizio-gaitasun aktiboa, terminoaren zentzu hertsianean positiboa dena, zeini egotzi behar baitzaio guk bizi izandako, esperimenterikoa, gudan asumituriko bakarra, gure kontzientzian barrentzea, digestio-egoeran (“arimaratze” dei lekiok), gure gorputzaren elikatzea garatzen den prozesu era-anitz guztia, “gorputzeratze” deritzana bertan barrentzen den bezain gutxi. Noizean behin kontzientziaren ate-leihoak ixtea, organo zerbitzarien lurpeko gure munduak bere lankidetzat eta oposizioa garatzen dituen zarata eta borrokak eragozpenik sortu gabe egotea; kontzientziaren isiltasun pixka bat, tabula rasa [ohol garbia], berriz ere berriarentzat lekua izan dadin, eta batez ere funtzionario eta funtzio nobleentzat, gobernatzeko, aurreikusteko, aurre-determinatzeko (zeren gure organismoa era oligarkikoan egituraturik baitago) -hori da, esan dugunez, ahanzmen aktiboaren mesedea, atearen zaindari gisako bat da, nolabait esateko, ordena arimazkoaren gordetzailerik bat da, nolabait esateko, lasaitasunarena, etiketarena: eta horrekin berehalaxe gertatzen da ikuskor ahanzmenik gabe ezin

⁴⁵ Errua = *Schuld* Alemanez *Schuld* hitzak aldi berean “errua” eta “zorra” esan nahi ditu. *Gure Aita* otoitzeko “barkatu gure zorrak (erruak)” esamoldea funtsezkoa da bere zentzu-bikoiztasunean bigarren tratatu honen eraikuntzan.

litekeela zorionik, arraitasunik, itxaropenik, harrotasunik, orainaldirik. Inhibizio-aparatu hori hondaturik daukan eta funtzionatzeari uzten dion gizakia dispeptiko batekin alderatzekoa da (eta ez alderatzekoa soilik) – gizaki horrek ez du osorik ezer “digeritzen”. Beharrianez ahanzkorra den animalia horrek hain zuzen ere, zeinengan ahanztea indar bat baita, osasun sendoaren era bat, horri kontrajarritako gaitasun bat hazi du bere baitan, oroimen bat, zeinen laguntzarekin ahanzmena esekita gelditzen den zenbait kasutan, – hau da, promesak egin behar diren kasuetan; – beraz, ez da inondik ere, behin grabaturiko inpresiotik ezin-libratu-ahal-izate soil bat, ez da behin emandako hitz baten indigestio soila, baizik eta berriz-norbere-buru-libratu-nahi aktibo bat da, behin nahi izandakoa nahi izaten eta nahi izaten jarraitze bat, nahimenaren oroimen benetako bat, halako moldez, non sorburuzko “nahi dut”, “egingo dut” eta nahimenaren benetako deskarga, bere egintzaren artean zilegi baita lasaitasunez gauza, inguruabar eta nahimen-egintza berri eta estrainiozko mundu bat ere, nahimenaren katea luze hori eten gabe. Baina zenbat gauza auresuposatzen dituen horrek! Horrela aldeztu aurretik etorkizuna eskura edukitzeko, zenbat ikasi behar izan duen gizakiak bereizten jazoera ezinbestekoa eta ustekabekoa, ustekabearen pentsatzen, eta urrunekoa presenteko bezala ikusi eta aitzinatzen, helburu dena eta helbururako bitarteko dena, oro har zenbatzen, kalkulatu jakitea -zenbateraino behar duen gizakiak berak, hori lortzeko, aurretik kalkulagarri, erregular, beharrezko bihurtu, bere buruari bere errepresentazioaz erantzun ahal izan, azkenean bere buruaz etorkizun gisa erantzun ahal izateko promesa egiten duenak egiten duenaren antzera!

2

Hauxe da zinez erantzukizunaren jatorriaren historia luzea. Promesak egitea zilegi zaion animalia haztearen eginkizun hori bere baitan dauka baldintza eta prestamen gisa, dagoeneko ulertu dugunez, aldeztu aurretik gizakia egitearen zeregin konkretuagoa, maila jakin bateraino, beharrezkoa, erabakarra, berdinen artean berdina, araura doitu, eta, ondorioz, kalkulagarria. Nik “ohituraren etizitatea” deitu dudaren lan gaitza (ikus bedi “Goizalba”, 16.hh.)⁴⁶ -gizakiak bere buruarekiko gizajendearen denboraldirik luzeenean egin duen benetako lanak, bere lan prehistoriko guztiak, hemen du bere zentzua, bere justifikazio handia, nahiz eta hartan hainbeste gogorkeria, tirania, ergelkeria eta idiotismo egon: ohituraren etizitatearen laguntzarekin eta indarator sozialarekin gizakia errealki kalkulagarri egin zen. Koka gaitzen, aldiz, prozesu eskergaren bukaeran, zuhaitzak azkenerako bere fruituak helarazten dituen tokian, non gizarteak eta ohituraren etizitateak azkenerako argitara ateratzen baitute hura, zeinerako haiek bitarteko baizik ez baitziren: bere zuhaitzeko fruiturik helduentzat, gizabanako soberanoa aurkituko dugu, bere buruarekiko bakarrik berdina den gizabanakoa, ohituraren etizitate berriz ere libratu den gizabanakoa, gizabanako autonomia, etizitatearen gainetik kokatua (zeren “autonomo” eta “etiko” elkar-eskluditzailak baitira), hitz batean, nahimen propio iraunkorreko gizakia aurkituko dugu, independentea, promesak egitea zilegi zaiona -eta, beragan, kontzientzia harro bat, giharre guztietan pilpilka ari dena, hemen lortu denarena azkenean eta hartan haragitu dena, boterearen eta askatasunaren benetako kontzientzia bat, gizakiak bere horretan duen betetasun-sentimendu bat. Gizaki askatu horrek, zeini errealki zilegi baitzaio promesak egitea, nahimen askearen jaun

⁴⁶ Ikus *Goizalba*, 4 aforismoa (“Ohituraren etizitatearen kontzeptua”), 14 aforismoa (“Eromenaren esanahia moralitatearen historian”) eta 16. aforismoa (“Zibilizazioaren lehen printzipioa”)

horrek, soberano horrek -nola ez zuen jakingo horrekin zuen nagusitasuna promesak egitea eta bere buruaz erantzutea zilegi ez zaion hura guztiarekiko, nola ez zuen jakingo zenbat konfiantza, zenbat beldur, zenbat errespetu sortzen duen – berak hiru gauzak “merezi” ditu-, eta nola, bere buruaren domeinu horretan ematen zaion halaber ezinbestean inguruabarren, naturaren eta fidagarritasun gutxiagoko eta nahimen laburragoko izaki guztien domeinua? Gizaki “aske”, nahimen iraunkor eta haustezinaren jabeak badu, bere jabetza horretan, bere balio-neurria: bere baitatik besteei begira, ohoratu edo mespreziatu egiten du; eta bere berdinak, sendoak eta fidagarriak (promesak egitea zilegi zaien horiek) ohoratzen dituen beharizan beraz, -hau da, soberano batek bezala promesak egiten dituen oro, zailtasunarekin, bakan, geldotasunez, bere konfiantza emateko zikoitza den guztia, fidatzen duenean ohoratzen duena, fidatzeko moduko zerbait bezala bere hitza ematen duena, zeren berak bai baitaki aski indartsua dela ezbeharretan ere eusteko, baita “zoriaren aurrean” ere-: beharizan beraz edukiko du prestatu ostikoa zilegi izan gabe promesak egiten dituzten erbitxakur argalentzat, eta bere taketa, oraindik ahoan daukan unean bertan bere hitza hausten duen gezurtiarentzat. Erantzukizunaren pribilegio apartekoaren ezagutza harroa, askatasun estrainio horren kontzientzia, bere buruaz eta bere destinoaz duen ahalmenaz, bere sakonera barrenekoraino grabatu da beragan eta instintu, instintu dominatzaile bihurtu: – nola deituko du instintu dominatzaile hori, suposatuz horrentzat hitz bat behar duela? Baina ez dago inolako zalantzarik: gizaki soberano horrek bere kontzientzia deitzen du...

3

Bere kontzientzia? ... Aldez aurretik igartzen zaio “kontzientzia” kontzeptua, hemen bere taxukerarik gorenean, ia paradoxazkoan, aurkitzen dugunak baduela bere bizkarretan historia luze bat, metamorfosi luze bat. Gizakiari zilegi izatea bere buruaz erantzutea, eta harrotasunez egotea, hau da, gizakiari zilegi izatea bere buruari ere baietz esatea – hau da, dagoeneko adierazi dugunez, fruitu heldu bat, baina baita fruitu berantiar bat ere: – zenbat denboraz egon behar izan zuen, garratz eta mingots, zuhaitzetik zintzilik! Eta oraindik denboraldi askozaz luzeago batean ez zen posible izan fruitu horren ezer ikustea, -inori ez zitzaiokeen zilegi izango horren promesa egitea, nahiz eta oso fruitu ziurra izan eta zuhaitzean dena prestatu eta hartarantz zuzenean hazten egon! – ”Nola egin oroimen bat animalia gizakiari? Nola ezarri aldiunearen ulerkuntzan, partez kamutsa den, partez durduzatu ulerkuntzan, ahanzmen gorpuzdun horretan, presente iraun dezan?”... Arazo txit antzinako hori, pentsa daitekeenez, ez zen hitz eta bitarteko samurrekin ebatzi hain zuzen ere; agian ez dago ezer, gizakiaren historiaurre guztian, bere mnemoteknika baino ikaragarri eta makurrakorik. “Zerbaiten oroimenean iraun dezan suz grabatzen du; min emateari uzten ez dionak bakarrik irauten du oroimenean” – hori lurrean izan den psikologiarik antzinakoenaren (zoritarrez, baita luzatuenaren) axioma bat da. Zera ere esan liteke horko gizakiaren eta herriaren bizitzan oraindik solemnetasuna, seriotasuna, misterioa, kolore ilunak gertatzen diren toki guztietan, jardunean dirauela behiala promesa egiten zen, hitza ematen zen, lurreko toki guztietan botoak egiten ziren izuaren zerbaiten: iraganak, iragan luzeak, sakonenak, gogorrenak hats hartzen du eta berpiztu egiten da gudan “serio” jartzen garenean. Gizakiak beharrezkotzat jo zuzenean oroimen bat egitea, horrelakorik ez zen inoiz odolik, martiriorik, sakrifiziorik gabe egin; sakrifizio eta bahiturarik ikaragarrienak (horien artean daude lehen semeen sakrifizioak), mutilaziorik nazkagarrienak (adibidez, kastrozioak), kultu erlijioso guztietako era ritual krudelenak (eta erlijio guztiak, azken barrenean, krudelkeria-sistemak dira) – horrek guztiak

mnemoteknikaren bitarteko lagungarri ahaltsuena oinazean igarri zuen instintu hartan du sorrera. Zentzu batean aszetika guztia alor horretakoa da: ideia banaka batzuek ezabaezin, oropresente, ahanztezin, “finko” bihurtu behar dute, “ideia finko” horiek sistema nerbioso eta intelektual guztia hipnotizaturik eduki dezaten –eta prozedura eta bizikera aszetikoak bitarteko dira ideia haiek gainerako guztiekin konkurrentzian sartzearagotz dezaten, “ahanztezin” bihurtzeko. Zenbat eta okerrago egon den “oroimen”ez gizateria, hainbat ikaragarriagoa izan da beti haren usarioen itxura; bereziki zigor-legeen gogortasunak erakusten digu zenbat neke kostatzen zitzaion gizateriari ahanzmenaren aurka garaitia lortu eta presente edukitzea, afektuen eta irriaren aldiuneko esklabo horiengan, gizarte-bizikidetzako eskakizun primitibo banaka batzuk. Guk, alemaniarrok, ez daukagu geure burua herri bereziki krudel eta bihotz gogorrekotzat, eta gutxiago oraindik jende arin eta egunera bizi denekotzat; baina aski da begiratu bat ematea antzinako gure zigor-ordenamenduei konturatzeko nolako ahalegina kostatzen den lurlean “pentsalari-herri”⁴⁷ bat haztea (esan nahi dut: oraindik konfiantzarik, seriotasunik, gustu txar eta objektibitate gehien aurki daitekeen Europako herria, eta gaitasun horiengatik European era guztietako mandarinak hazteko eskubidea duena). Alemaniar horiek bitarteko ikaragarrienen bidez eraiki dute oroimen bat, beren oinarriko instintu plebeioak eta beren oiastasun ankerraz nagusitzeko: pentsa bedi antzinako zigor alemaniarretan, adibidez, harrikatzean (–elezaharrak berak errotarria errudunaren buru gainera erorarazten du), gorpila (jeinu alemaniarren zigorraren erresumako asmakari eta espezialitate bereizgarriena!), paldoratzea, zaldiek erruduna zarratatu edo hankapetzea (“laurdenkatzea”), hobenduna oliotan edo ardotan irakinaraztea (XIV. eta XV. mendeetan oraindik erabilia), eta larrutze hain preziatua (“larru-zerrendak ateratzea”), bularretik haragia kentzea, baita gaizkilea eztiz estali eta, eguzki beroaren pean, eulien baitan uztea. Horrelako imajina eta prozeduren laguntzarekin azkenerako bospasei “ez dut nahi” eradukitzen dira oroimenean, zeini buruz nork bere promesa eman baitu gizarteko abantailen artean bizi izateko, – eta errealki!, oroimen gisako horren bitartez azkenerako “arrazoi”ra heldu zen! – Ai, arrazoia, seriotasuna, afektuen domeinua, gogoeta deitzen den arazo goibel hori guztia, gizakiaren pribilegio eta apainduria horiek guztiak: bai garesti ordainarazi direla!, zenbat odol eta lazgarrikeria “gauza on” guztien barrenean!...

4

Baina, nola etorri zen mundura beste “gauza goibel” hori, erruaren kontzientzia, “kontzientzia txar” guztia? – Eta horrekin berriro moralaren geure genealogistengana gatoz. Beste behin esateko – ala oraindik ez ote dut esan? – horiek ez dute ezertarako balio. Esperientzia propioa, “moderno” soila, bost arrabeteko luzera duena; ezagutzerik ez, iragana ezagutzeko gogorik ez: eta gutxiago oraindik instintu historiko bat, “bigarren ikuspen” bat, hementxe beharrezko dena – eta, hala eta guztiz ere, moralaren historia egin: begibistakoa da honek emaitza batzuk emango dituela, zeinen egia-erlazioa hauskorra baino zerbait gehiago den. Orain arte izandako moralaren genealogista horiek, imajinatu al dute, urrunetik bada ere, adibidez, “errua” (Schuld) moralaren kontzeptu nagusia “zorrak eduki” (Schulden) kontzeptu guztiz materialetik datorrela⁴⁸? Edota zigorra konpentsazio gisa nahimenaren askatasunari edo askatasun gabeziari buruzko auresupostu

⁴⁷ “Alemania, pentsalari-(eta poeta)-herri” XIX. mendean barra-barra zebilen esamoldea da. Antza denez, XVIII. mendearen azkenetan bizi izan zen Karl Musäus-ena da.

⁴⁸ Ikus aurrerago datorren 23. oharra.

orotatik erabat kanpo garatu dela? – eta hori halako punturaino, non areago, beti beharrezko den gizatiartze-maila garai bat, askozaz primitiboagoak baitira bereizkuntza horiek egiten “gizaki” animalia has dadin, “berarizko”, “zabar”, “halabeharrezko”, “egozkarri” bezalakoak, eta, horien alderantzizkoak, eta zigorra ezartzean kontuan edukitzen. Orain hain arrunta eta itxuraz hain naturala, hain saihestezina den pentsamendu hori, zuzentasun sentimendua lurrean nola agertu zen azaltzeko aurreratu behar izan dena, “errudunak zigorra merezi du, zeren beste era batera jokatu ahal izan baitu”, izatez oso berandu eskuraturiko era da, areago, gizakiaren jolas egite eta arazoitzearen era findu bat; hasieran kokatzen duenak, errakuntza baldarra egiten du gizateria antzinakoenaren psikologiaz. Giza historiaren denboraldi luzeenean zigorrak ezarri ziren ez gaizkilea bere egintzaren erantzule egiten zelako, hau da, ez errudunari bakarrik zigorrak ezarri behar zaizkion auresupostupean: – baizik, areago, oraindik gurasoek seme-alabak zigortzen dituzten erara, kalte bat jasan izanagatik koleraz, zein kausatzailearen gain asaskatzen baita, - baina kolera horri neurri batzuen barruan eusten zaio eta aldarazi egiten du kalte orok nonbait bere baliokidea daukalako eta errealki konpentsatua izan daitekeelako ideiak, nahiz eta kaltearen kausatzailearen minarekin bada ere. Nondik atera du bere indarra ideia guztiz antzinako, sakon errotu, eta agian orain ia ezin erauzizkoa den horrek, kaltea eta minaren artean baliokidetza bat dagoelako ideiak? Nik dagoeneko igarria dut: zorduna eta hartzekodunaren arteko harreman kontratualetik, zein “eskubide-subjektuen” izatea bezain antzinakoa baita eta zeinek, bere aldetik, erosketa, salmenta, trukea, merkataritza eta trafikoaren oinarritzko eretara igortzen baitu.

5

Harreman kontratual horiek presenteratzeak, aurrez esandakotik espero litekeenez nolana ere, susmo eta kontrakar anitz sortarazten ditu horiek sortu eta baimendu zituen gizateria antzinakoenaren aurka. Zinez hor egiten dira promesak; zinez hor ahalegintzen da promesak egiten dituenari oroimena egiten; horietan, zilegi da maliziarik gabe susmatzea, gogor, krudel, nekagarriaren aztarnategi bat izango da zinez. Zordunak, bihurtuko duen promesan konfiantza emateko, bere promesaren seriotasun eta santutasunaren bermea emateko, bere baitan bere kontzientziari bihurtzea betebehar bat, obligazio bat bezala jartzeko, bahitu egiten du hartzekoduna kontratu baten indarrez, eta ordaintzen ez duen kasurako, oraindik “daukan” beste gauza bat, oraindik boterea daukan beste gauza bat, adibidez, haren gorputza, edo haren emaztea, edo haren askatasuna, edo baita haren bizitza ere (edo, auresupostu erlijioso jakin batzuen pean, baita haren zorientasuna, haren arimaren salbamena, eta, azken finean, baita hilobiko bakea ere; hala gertatzen zen Egipton, non hilobian bertan ere zordunaren gorpuak ez zuen atsedetik aurkitzen hartzekodunaren aurrean, -nolana ere, egiptoarren artean atsedea horrek bazuen halako garrantzi bat ere). Baina oso bereziki hartzekodunak zordunaren gorputzari era guztietako laido eta torturak egin diezazkiokeen, adibidez, hartatik zorraren tamainaren arabera egokia zirudiena ebaki: – eta ikuspuntu horretan oinarriturik, berehalaxe eta nonahi tasazio zehatzak sortu ziren, xehetasun ñimiñoenetaraino, partez ikaragarriro hedatzen zirenak, atal eta gorputz-gune bakoitzaren zuzenbidez ezarritako tasazioak. Nik neuk aurrerapentzat daukat, kontzepzio juridiko libreagoaren, bere kalkuluetan zabalagoaren, erromatarragoaren frogatzat Hamabi Taulen

erromatar legeriak ezartzea axolarik ez ziola hartzekodunek gehixeago edo gutxiago ebakitzea kasu horietan, si plus minusve secuerunt, ne fraude esto ⁴⁹[gehiago edo gutxiago ebakitzea, ez iruzur izatea]. Argi dezagun honela konpentsatze guztiaren logika: estrainio samarra da. Baliokidetzat dator kaltearekin zuzenean orekaturiko abantaila baten ordeztu (hau da, diru, lur edo nolabaiteko jabetzazko konpentsazio baten lekuan), hartzekodunari, bihurtze eta konpentsazio gisa, ongizate-sentimendu moduko bat ematen zaiola, – bere ahala ahalgabe baten gainera deskargatzea zilegi zaion gizakiaren ongizate-sentimendua, inolako eskrupulurik gabe, faire le mal pour le plaisir de le faire⁵⁰ [gaitza hori egitearen atseginarengatik egitea] plazerra, bortxatzeak sortutako gozamina, hainbat gehiago estimatzen den gozamina, zenbat eta beherago eta sakonagokoa den hartzekoduna gizarteko ordenan aurkitzen den maila, eta zeinen aise agertzen zaion mokadu txit goxo bezala, areago oraindik, lerrune garaia baten aurregustu gisa. Zordunari emandako “zigorra”ren bitartez, hartzekodunak jaunaren eskubidean esku hartzen du: azkenean bera ere behin iristen da sumatzera izaki bat “beheragoko” gisa mespreziatu eta tratutxartzea zilegi izatearen sentimendu goreslerra -edo, gutxienez, benetako ahalmen zigortzailea, zigorraren ezarpena, “agintaritzatza”ra iragan bada, mespreziaturik eta tratutxarturik ikustera.... Konpentsazioa, bada, barkatze batean eta krudelkeriarako eskubide batean datza.

6

Esfera honetan, hau da, obligazioen eskubidean dauka bere sortetxea “errua”, “kontzientzia”, “betebeharra”, “betebeharraren santutasuna” kontzeptu moralen munduak, – horren hasiera, lurreko gauza handi guztien hasiera bezala, sakon eta luzaro odolez zirtaturik egon da. Eta ez al litzateke zilegi gehitzea, barrenean, mundu hark ez duela inoiz galdu erabat halako odol- eta tortura-usain bat? (ezta Kant zaharrarengan ere: inperatibo kategorikoari krudelkeria-usaina dario...). Hemen gauzatu da lehen aldiz “errua eta sufrimendua” ideien engranaje makur eta agian disoziaezina ere. Galde dezagun beste behin: zer neurritan izan liteke sufrimendua “zorren” konpentsazio? Sufrimendua eragiteak gradu gorenean ongizatea sortzen duen heinean, kaltetuak kaltea aldatzen zuen, baita horrek sortzen zion desplazerra aparteko kontragozamen bihurtzen zuen heinean ere: sufrimendua eragitea, -benetako festa bat, dagoeneko esan dugunez, hainbat estimatuagoa zen, zenbat eta hartzekodunaren lerrune eta gizarte-posizioari gehiago kontraesaten zion. Hori suposizio gisa esan dugu: zeren, higuigarria izatea alde batera utzirik, zaila baita lurpeko gauza horien barrena ikustera iristea; eta hemen “mendeku” kontzeptua zakarki sartzen duenak, ikuspena erraztu baino areago ezkutatu eta ilundu egin du (-mendekuak berak, izan ere, zinez arazo berera igortzen du: “nola izan liteke satisfakzioa, sufrimendua eragitea?”). Nardagarri gertatzen zaio etxabere otzanean (gizaki modernoon, esan nahi dut, gure, esan nahi dut) finezia eta tartufokeriari, indar guztiarekin irudikatzea krudelkeria maila handi batean gizateria antzinakoenaren festa-poz handia dela, eta osagai gisa ia bere poz guztietan gehiturik aurkitzen dela; bestalde zeinen xalo, zeinen errugabe agertzen den bere krudelkeria-beharrizana, zeinen oinarritzakoa hain zuzen ere “gaiztakeria interesgabea” (edo Spinozarekin esateko, *sympathia malevolens* [gaitzerizko sinpatia] gizakiaren propietate normal bat dela ezartzea: eta, beraz,

⁴⁹ III. taularen aginduetako bat da.

⁵⁰ Nietzschek lehenago ere aipaturik zeukan esaldia *Gizatiar, gizatiarregi* obran, 50. aforismoan, Prosper Mérimée egilea aipatuz.

kontzientziak bihotz-bihotzez baietz esaten dion zerbait! Begi sarkorrako batek agian gauza bat baino gehiago hauteman lezake, orain ere, gizakiaren festa-poz txit antzinako eta txit sakon horretatik; “Ongiaz eta gaizkiaz haraindi” obran, 83 hh. (eta lehenago ere bai “Goizalba”n, 24 hh., 64 hh., 90 hh. hatz arretatsuz seinalatu dut nola kultura garaian krudelkeria izpiritualizaziora eta “jainkotiartzte”ra beti hazi izan den historia osoan zehar (eta zentzu garrantzizko batean harturik, hori eratu ere egiten dute). Edozein kasutan, oraindik aspaldi ez dela ezin zen estilo handiko printze-ezteirik, ez herri-jairik imajinatu exekuzio, oinazetze, edo, gutxienez, autodafé bat gabekorik, ezta etxe noblerik ere zeinetan ez baitzegoen izakirik nork bere gaiztakeria eta txantxa krudelak eskrupulurik gabe deskargatu ahal izateko –gogora bedi, adibidez, Don Kixote dukesaren gortean: gaur egun Don Kixote osoa ahoan zapo mingots bat dugula irakurtzen dugu, ia tortura batekin, baina horren egileak eta garaikideek oso estrainio, oso ilun iritziko ligukete horrekin, – kontzientziarik hoberenarekin liburutik dibertigarriena bezala irakurtzen zuten eta ia hil arte barre egiten zuten harekin). Sufritzen ikusteak ongizatea sortzen du; sufrimendua eragiteak, ongizate handiagoa oraindik – hau tesi gogorra da, baina axioma antzinako, ahaltu, gizatiarra, gizatiarregia da, gainerakoan, tximinoek ere izenpetuko luketena; zeren diotenez, krudelkeria estrainioen asmaketan, gizakia iragartzen baitute neurri handi batean eta, nolabait esateko, “preludiatu” egiten dute. Krudelkeriarik gabe ez dago festarik: horrela irakasten du gizakiaren historia antzinakoenak, luzeenak – eta zigorrean ere bada festazkorik ugari! –

7

– Pentsamendu horiekin, esan dezagun bidenabar, ez dut gure pesimistei ur berria bere bizi-gogaitaren errota soinu txarreko eta kirinkarrietara ura eramaten laguntzeko asmorik; aitzitik, espreski konstarazi beharra dago, oraindik gizateria bere krudelkeriaz lotsatzen ez zen hartan, lurreko bizitza orain, pesimistak daudeneon baino alaiagoa zela. Gizakien gainean kokaturiko zeruaren goibeltzea areagotuz joan da beti gizakiak gizakiaren aurrean sentituriko lotsa gehitzearekin. Begirada pesimista nekatua, bizitzaren enigmarekiko mesfidantza, bizitzaren aurrean sentituriko goralariaren ezetz izoztua – horiek ez dira gizajendearen gaiztakeria handieneko aroen zeinu bereizgarriak: aitzitik, zingira-landare direnez gero, dagokien zingira dagoenean bakarrik agertzen dira, – moralizazioa eta biguntze gaixotiaz ari naiz, zeini esker “gizakia” animaliak azkenerako bere instintu guztiez lotsatzen ikasten baitu. “Aingeru”rako bidean (hemen hitz gogorrako bat ez erabiltzearen) gizakiak urdail hondatu hori eta mihi lohitu hori hazi ditu, zeinen bitartez animalien poza eta errugabetasuna bakarrik nazkagarri bihurtu ez ezik, bizitza osoa ere zozo bihurtu zaizkion – halako moldez, non batzuetan gizakiak, bere buruaren aurrean sudurra itxita jarri eta, Inozentzio III. aita santuarekin batera, gaitzespen-itxurarekin, bere nazken zerrenda bat egiten duen (“sortze lohia, elikatze nazkagarria amaren sabelean, gizakia garatzen den gaiaren txartasuna, kirats higuigarria, listu-jariaketa, gernua eta gorotza”).⁵¹ Eta orain, existentziaren aurkako argumentuen zerrendan sufrimendua beti lehena agertzen deneon, haren galde-zeinu txarrentzat, on da alderantzizko eran epaitzen zen garaiak gogora ekartzea, zeren ez baitzegoen sufriarazteari uzterik eta horretan lehen mailako erakargarri bat ikusten baitzen, bizitzera seduzitzen

⁵¹ Inozentzio III. aita santuak 1198tik 1216ra bitartean aita santu izan zenak *De contemptu mundi* (Munduarekiko mesprezioa) izeneko obra bat idatzi zuen, gizakiak fisikoki eta moralki dituen miseriez.

zuen benetako beita. Agian orduan – esan dezagun delikatuen kontsolamendurako – oinazeak ez zuen nonbait orain adina min ematen; gutxienez zilegi izango zaio beltzak (horiek gizaki primitiboaren ordezkari harturik) tratatu dituen mediku bati europarrik ongien eratuetsipenaren atariraino eramaten duten barne-hanpadura larrien kasuan -beltzak ez dituzte horretara eramaten. (Gizakiaren oinaze-jasamenaren kurba badirudi izatez harrigarriro jaisten dela eta ia bat-batean atzean uzten ditugunean kultura garaiagoko lehen hamar mila edo hamar milioi gizakiak; niri dagokidanez, ez dut inolako zalantzarik emakume historiko kulto baten gau oinazetsu bakar baten aldean gaur arte erantzun zientifikoak lortzeko labanaz itaunketa egin zaien animalia guztienak batera, ez direla inola ere kontuan hartzekoak). Agian zilegi izan liteke onartzea krudelkeriako plazer haren ahalbidea bera ere ez dagoela iraungia; bakarrik beharko luke, gaur oinazeak min handiagoa ematen duenez gero, halako sublimatze eta sotiltze bat, batez ere imajinaziozko eta arimazkora bihurturik agertu beharko luke eta kontzientzia fin azalutsenean ere, inolako susmorik sortuko ez luketen bezalako izen kaltegabeek apaindurik (“erruki tragikoa” da izen horietako bat; beste bat “les nostalgies de la croix” [gurutzaren nostalgiak]). Sufrimenduaren kontra benetan asaldarazten gaituena ez da sufrimendua bera, baizik eta haren zentzugabea; baina ez kristauarentzat, zeinek sufrimenduaren bere interpretazio hartan salbamen-makineria ezkutuko bat sarrarazi baitu, ezta antzinagoko garaietako gizaki xaloarentzat, zeinek sufrimendu oro ikusleekiko edo hura eragiten zutenekiko erlazioan interpretatzen baitzekien, ez zen inondik ere sufrimendu zentzugabe hura existitu. Sufrimendu ezkutuko, ez aurkitu, lekuko gabea mundutik kanporatu eta ukatu ahal izateko, gizakia orduan ia beharturik zegoen jainkoak eta tarteko izakiak, goialde eta sakonera guztietako biztanleak asmatzera, hitz batean, ezkutuan alderrai dabilen zerbait, ilunean ere ikuskizun oinazetsu interesgarri bat ikusten duena eta erraz ihes egiten uzten ez diona. Izan ere, asmakari horien laguntzarekin, bizitzak orduan arte-obra egikaritzea lortu zuen beti egikaritzen jakin duena, bere burua justifikatzen, bere “gaizkia” justifikatzen; agian gaur egun helburu horretarako beste asmakari lagungarri batzuk beharko lirateke (adibidez, bizitza enigma bezala, bizitza ezagutza-arazo gisa). “Justifikaturik dago gaitz oro, zein ikustea eraikigarri baita jainko batentzat”: horrela zioen sentimenduaren logika prehistorikoak – eta izatez, logika prehistorikoa bakarrik al zen? Jainkoak ikuskizun krudelen adiskide gisa kontzebituak – oi! zer puntutaraino ideia txit antzinako horrek barrendurik daukan gaur egun ere gure europar gizatiartzea! Horri buruz burubidea har dezakegu, adibidez, Kalvino eta Luterorengandik. Nolanahi ere, egia da grekoek berek oraindik ez zekitelaren jainkoei beren zorionaren ongarriztat krudelkeriaren pozak baino ezer atseginagorik eskaintzen. Zer begiez, uste duzue, bada, begirarazten diela Homerok bere jainkoei gizakien destinoetara?⁵² Zer azken zentzu izan zuten, barrenean, troiar gerrek eta antzeko beste izugarrikeria tragiko batzuek? Ez dago zalantza txikiena ere izaterik horretaz: jainkoentzako jaialdi gisa kontzebiturik zeuden; eta poeta horretan gainerako gizakiak baino “jainkotarkiago” eraturik zegoenez gero, baita poetentzako jaialdi gisa ere, zalantzarik gabe... Era berean pentsatu zuten geroago Greziako filosofo moralek jainkoei begiek begiesten jarraitzen zutela borroka morala, heroismoa, eta bertutetsuaren burumartiritzea: “betebeharraren Herkulesa” eszenatokian zegoen, eta bazekien gainera; lekukorik gabeko bertutea erabat pentsaezina zen aktore-herri harentzat. Filosofoen

⁵² Ikus *Gizatiar, gizatiarregi* obran (II, 189. aforismoa) Nietzschek Homeroren *Odisea*, 8, 579-580 pasartea nola aipatzen duen eta hartaz egiten duen iruzkina.

asmakari hain ausarta, hain makurra, orduan lehen aldiz Europarako egina, “nahimen aske”aren asmakaria, gizakiak ongian eta gaizkian erabateko espontaneotasuna izatearena, ez ote zen ezer baino lehen jainkoek gizakiarenganako zuten interesa, ezingo zela inoiz agortu pentsatzeko eskubidea lortzearen? Lurreko eszenatoki horretan ez zuten inoiz gauza egiazki berriek, tentsioek, peripeziek, katastrofe errealki entzungabeek faltatu behar: erabat modu deterministan pentsaturiko mundu bat aztiagarri gertatuko zatekeen jainkoentzat, baita gogaikarri ere handik gutxira, -arrazoi aski zen hori jainkoen adiskide horiek, filosofoek, haiei halako mundu deterministarik ez ezartzeko! Antzinako gizateria osoa kontsiderazio samurrez beterik dago “ikuslea”rekiko, hura funtsean mundu publiko bat zenez gero, funtsean begietarako egina, zorientasuna ikuskizun eta festarik gabe imajinatzeko gai ez zena. – Eta dagoeneko esan dugunez, zigor handian ere bada festazkorik ugari!...

8

Erruaren, obligazio pertsonalaren sentimenduak, gure ikerkuntzen hariari berriz heltzeko, ikusita daukagunez, existitzen den harreman pertsonal antzinakoen eta sorrerazkoenean izan du bere sorrera, erosle eta saltzaileen, hartzekodun eta zordunen arteko harremanean: hemen aurre egin zion lehen aldiz pertsonak pertsonari, hemen neurtu zuten pertsonak elkar lehen aldiz. Oraindik ez da aurkitu zibilizazio-maila hain baxurik, non ez den posible jadanik hartan harreman horretako zerbait ohartzea. Prezioak ezarri, balioak tasatu, baliokideak imajinatu, aldatu -horrek hainbestearino kezkatu zuen gizakiaren pentsamendurik zaharrena, non, zentzu batean, pentsatzea eratzen baitu: hor landu zen zolitasun-mota antzinakoena, hor susma zitekeen, era berean, egon zela halaber giza harrotasunaren lehen ernamuina, beste animaliekiko bere nagusitasun-sentimenduarena. Agian “gizakia” (Mensch, manas) esateko gure hitz alemaniarak oraindik bere buruarekiko sentimendu horretako zerbait adierazten du: gizakiak balioak neurtzen dituen izakia, balioetsi eta neurtzen dituen, “animalia tasatzailea bere baitan” deitzen zion bere buruari. Salerosketa, bere akzesorio psikologiko guztiekin, edozein gizarte-antolakuntza-eraren eta edozein elkarteren hasierak berak baino ere zaharragoak dira: truke-, kontratu-, zor-, eskubide-, obligazio-, konpentsazio-sentimendu ernalkorra traspasatua izan zen, areago, eskubide pertsonalaren erarik hasi-masizkoenetik komunitate-komplexu hasi-masizkoen eta hasierazkoenetara (horien antzeko konplexuekiko erlazioan) alderatu, neurtu eta ahalmena ahalmenaz tasatzeko azturarekin batera. Begia ikuspegi horretara jadanik ohiturik zegoen: eta gizateria zaharrenaren pentsamenduaren ezaugarria den ondorio logiko zakar harekin, pentsamendu hori zailtasunarekin jartzen da mugimenduan, baina gero gupidagabe norabide berean aurrera egiten du, laster iritsi zen, orokorkuntza handi baten bitartez, “gauza orok bere prezioa du; dena ordaindua izan daiteke”ra -justiziaren kanon moral zaharren eta xaloenera, “barne-ontasun” ororen, “ekitate” ororen, “nahimen on” ororen, “objektibitate” ororen hasierara lurrean. Zuzentasuna, lehen maila honetan ahalmen gutxi gora-behera bereko gizakien artean, beren artean ados jartzeko nahimen ona da -eta, hain ahaltsuak ez direnekiko, norberaren azpitik kokaturik dauden gizaki horiek konpromezu batera behartzekoa.

9

Gauzak beti historiaurrearen neurriaz neurtuz (historiaurrea, gainerakoan, berriz ere existitzen da edo edozein garaitan existi daiteke): komunitateak ere badu bere kideekin oinarrizko harreman garrantzitsu hori, hartzekodunak zordunarekiko duen harremana. Nor bere komunitatean bizi da, horren abantailak gozaten ditu (oi, zer abantailak!, gaur guk gutxietsi egiten ditugu batzuetan), babesturik bizi da, ongi trataturik, bakean eta konfiantzan, kalte eta kezka gabe etxean kanpoko gizakiari, “proskribatu”ari mehatxu egiten dioten zenbait etsaitasunekiko -alemanak ulertzen du zer esan nahi duen jatorriz “miseria” (Elend, êlend) hitzak –, baina norbera bahitu eta behartu ere egin da komunitatearekin aurreiritzi eta etsaitasun horiei dagokienez. Zer gertatuko da bestela? Komunitatea, hartzekodun engainatua, ahalik eta hobekien ordainarazten saiatuko da, horretaz ziur egon daiteke. Hemen gutxien axola diona kalte gileak eragin duen arartegabeko kaltea da: oraingoz kalte alde batera utzirik, gaizkilea ezer baino lehen “hausle” bat da, osotasunaren aurka, kontratua eta hitza hautsi dituen bat bizitza komuneko ondasun eta erosotasunekiko, zeinetan orain artekoan esku hartua zuen. Hobenlaria zorduna da eman zaizkion abantaila eta aurrerapenak bihurtu ez, baizik bere hartzekodunari erasotzen diona: horregatik hemendik aurrera bidezkoa denez ez ditu galtzen ondasun eta abantaila haiek guztiak bakarrik, -orain, aitzitik, ondasun horiek duten garrantzia gogorarazten zaio. Hartzekodun kaltetuaren, komunitatearen kolerak egoera basati eta legegabera bihurtzen du, zeinetik orain arte babesturik baitzegoen: bere baitatik kanporatu egiten du, – eta orain haren gainera etsaitasun-mota oro deskarga dezake. “Zigorra”, ohitura-maila honetan, kopia besterik ez da, portaera normalaren mimusa [birsorkuntza] etsai gorrotatu, desarmatu, menperatuaren aurrez aurre, zeinak eskubide eta babes oro ez ezik, grazia oro ere galdu duen: hau da, gerra-eskubidea eta vae victisaren [ai menperatuak] garaiti-festa bere errugabetasun guztian eta krudelkeria guztian – horrela esplikatzeko da gerrak berak (gerra-sakrifizioen kultura barne) zigorrak historian aurkezten dituen era guztiak sortu izana.

10

Komunitateak, ahalmena gehitzen zaionean, utzi egiten dio hainbesteko garrantzia emateari gizabanakoaren hobenei, zeren jadanik ez baitzaio zilegi hain arriskutsuztat eta iraulgarriztat hartzea osotasunaren iraupenerako: gaizkilea jadanik ez da “proskribatzen” eta kanporatzen; kolera orokorrari jadanik ez zaio zilegi lehen bezain neurgabe harengan deskargatzea, baizik eta hemendik aurrera gaizkilea arretaz defendatu eta babestu egiten da, osotasunaren aldetik, kolera horren aurka eta, batez ere, arartegabeko kaltetuaren aurka. Egintza gaiztoak nagusiki erasandakoen kolerarekiko konpromezua; kasua lekutu eta partehartze eta kezka zabalago eta orokor bera ere saihesteko ahalegina; baliokideak aurkitu eta auzi osoa ebazteko saioak (compositio) [konponketa]; nahimena batik bat, gero eta era deliberatuagoan ageri dena, delitu oro ordaingarria dela zentzuren batean kontsideratzekoa, hau da, gauza bat eta bestea, hobenlaria eta bere egintza neurri bateraino behintzat, bakantzeko nahimena -horiek dira gero eta argiago zuzenbide penalaren geroko garapenean markatu diren zertzeladak. Baldin eta komunitate baten ahalmen eta autokontzientzia hazten badira, orduan zuzenbide penala ere beti biguntzen da; ahultze orok eta haren arrisku larri samar orok berriro agertarazten dituzte haren forma gogoragoak. “Hartzekoduna” beti gizatiarrago bihurtu izan da aberatsagotu den heinean; azkenean, haren aberastasunaren neurria jasan ditzakeen kalteen zenbatekoak ematen du, horregatik pairatu gabe. Ez litzateke pentsaezina gizartearen ahalmen-kontzientzia bat zeinean horrek zilegi izango bailuke

berarentzat existitzen den luxurik nobleena, –zigorgabe uztea kalte egin diotenak. “Zer axola zaizkit niri propioki nire bizkarroiak?, esan ahal izango luke orduan, bizi eta jori daitezela: oraindik horretarako bezain indartsua naiz!...”. “Dena da ordaingarria; dena ordaindu behar da”-rekin hasi zen zuzentasunak, azkenerako ez ikusiarena egin eta ihes egiten uzten dio kaudimengabeari, –azkenean, munduko gauza on orok bezala, bere burua ezabatzen du. Zuzentasunaren buruezabate hori: jakina da zein izen ederraz izendatzen den -graziaz: horrek, berez ulertzen denez ahaltsuenaren pribilegioa izaten jarraitzen du, hobeki oraindik, zuzenbidearen haraindia izaten jarraitzen du.

11

Esan ditzagun hemen arbuiozko hitz batzuk moralaren sorrera zeharo beste alor batean, hau da, erresuminarenean bilatzeko berriki agerturiko entseiu batzuen aurka. Aurretik gauza bat esan dezagun psikologoaren belarrira, suposaturik horiek atsegina sentituko dutela berriro hurbiletik erresumina aztertzean: orain landare hori hobekien anarkista eta antisemiten artean loratzen da, beti, gainerakoan, loratu izan den bezala, hau da, ezkutuan, bioletaren antzera, nahiz eta bestelako lurrinarekin. Eta antzekotik beti derrigorrean antzekoak sortu behar duenez gero, ez du harrituko ikusteak zirkulu horietatik hain zuzen ere jadanik sarritan agertutako ahaleginak agertzen direla berriro -ikus goian (38/54) orrialdea – mendekua santutzeoak, zuzentasunaren izena emanaz – zuzentasuna, barrenean, iraindurik-egoteko sentimenduaren ondorengo garapena besterik ez bailitzan- eta mendekuaz batean afektu errektiboak oro eta oro har ohorean jartzeko. Azken horretaz ni neu azkena izango nintzateke eskandalua hartzen: arazo biologiko osoari dagokionez meritu ere iritziko nioke (zeini buruz orain arte gutxietsi egin baita afektu horien balioa). Nik inguruabar bakarraren gain deiarazten dut arreta: ekitate zientifikozko nuance [ñabardura] berri hori (gorroto, bekaitz, herra, susmo, gaitzerizko, mendekuaren alde) erresuminaren izpiritutik beretik sortzen delakoaren gain. “Ekitate zientifiko” hori, izan ere, berehala desagertzen da etsaitasun eta goganbehar hilgarritzko azentuei leku eginez afektu-talde desberdin bat jokoan sartzen den bezain laster, zeinek, nire iritzian, afektu errektiboek baino askozaz balio biologiko garaiagoa baitute eta, ondorioz, eskubide osoz mereziko luketen zientifikoki oso garai estimatu eta balioetsiak izatea: hau da, benetan afektu aktiboak, domeinu-irrika, jabetza-irrika eta antzekoak bezalakoak. (E. Dühring, “Bizitzaren balioa”; “Filosofiako kurtsoa”; eta nonahi funtsean) Esana gera bedi hori joera orokor horren aurka; baina Dühringen tesi partikularrari dagokionez, zuzentasunaren sorterrria sentimendu errektiboaren alorrean bilatu behar delakoaz, horri kontrajarri egin behar diogu, egiari zor zaion maitasunarengatik, eta alderantzikatze zaharrarekin, beste tesi hau: zuzentasunaren izpirituak konkistaturiko azken alorra sentimendu errektiboaren alorra da! Egiazki gertatzen denean gizon zuzena zuzena izatea kalte egin dionarekin berarekin ere (eta ez bakarrik hotz, neurtu, estrainio, axolagabe: zuzena-izatea portaera positiboa da beti), begi zuzenaren, begi epailearen objektibitate jaso, argi, baita sakon eta ezitia ere asaldatzen ez denean irain, iseka, egozpen pertsonalen erasoan beraien aurrean ere, hori perfekziozko eta maisutasun goreneko obra bat da lurrean, – azkarra izanez gero espero izan behar ez den zerbait ere bai eta zeinean, nolana ere, errazegi ez baita sinetsi behar. Eskuarki ziurra da, pertsona guztiz zuzenen kasuan ere, aski izaten da eraso-, gaiztakeria-, intsinuazio-dosi txiki bat odola begietara igo dadin eta ekitateak begietatik ihes egin dezan. Gizaki aktiboa, gizaki

erasokorra, oldarkorra ehun urrats zuzentasunetik beti hurbilago egoten da gizaki errektiboa baino; zinez berak ez du inondik ere bere objektua era faltsu eta zatikoan tasatu beharrik izaten, gizaki errektiboak egiten duenez, egin behar izaten duenez. Horregatik gertakari bat izan da garai guztietan gizaki erasokorrak, indartsuena, kementsuena, nobleena izateagatik beti begi askeago baten, kontzientzia hobe baten jabe izatea ere, eta, aitzitik, jadanik igartzen zaio nork daukan bere kontzientziaren gain “kontzientzia txarra”ren asmakizuna, –erresuminaren gizakiak! Bukatzeko begira dezagun geure inguruan historiari: zer esferatan izan du bere sorteria orain arte lurrean zuzenbidearen tratamendu guztiak, eta zuzenbidearen benetako beharrianak ere? Gizaki errektiboaren esferan agian? Inola ere ez: aitzitik, aktibo, indartsu, espontaneo, erasokorren esferan. Historikoki kontsideraturik, zuzenbideak – esan bedi hori aipaturiko argitatzailaren atsekaberako⁵³ (zeinek behin bere buruaz aitorten bat egiten baitu: “Mendekuaren doktrinak zeharkatu ditu nire lanak eta nire ahaleginak zuzentasunaren hari gorriak bezala”) – hain zuzen, sentimendu errektiboen aurkako borroka adierazten du munduan, haien aurka ahalmen aktibo eta erasokorrek egindako borroka, zeinek beren sendotasunaren parte bat pathos errektiboaren gainezkatzeari balazta eta neurria ezartzen erabiltzen zuten, eta bortxaz konpromezu batera behartzen. Zuzentasuna egikaritu, zuzentasuna mantendu den toki guztietan botere indartsuago batek bitartekoak bilatzen dituela ikusi dugu, bere azpitik kokaturik dauden jende ahulagoen artean (bai taldeak izan, bai gizabanakoak izan), bukaera jartzeko erresuminaren amorru zentzugabeari, partez mendekuaren eskuetatik erresuminaren objektua kenduz, partez bere aldetik, mendekuaren lekuan bakea eta ordenaren etsaien aurkako borroka, partez asmatuz, proposatuz eta, batzuetan, akordioak inposatuz, partez arau kategoriara jasoz kalteen baliokide jakin batzuk, zeinetara baitago igorriarik une honetatik, behin betiko. Erabakigarriena, ordea, ahalmen gorenak egiten eta ezartzen duena kontrako eta imitaziozko sentimenduen gainahaltenaren aurka – beti egiten du hori, nolabait, horretarako behar adina indar duen bezain laster –, legearen ezarpena da, aldarrikapen inperatiboa bere begietara baimendu gisa, zuzen gisa agertu behar duenari buruz eta debekatu gisa, bidegabe gisa orokorrean agertu behar duenari buruz: ahalmen goren horrek, legea ezarri ondoren, gizabanakoen edo talde osoen abusuak eta bidegabekeriak legearen aurkako delitutzat, ahalmen goren beraren aurkako erreboltatzen tratatzen dituen neurrian, neurri horretantxe bertan aldentzen du bere menpekoen sentimendua delitu haiek eragindako arartegabeko kaltetik, horrela luzera mendeku orok nahi duenaren alderantzizkoa lortuz, zeinek ikusten duen gauza bakarra, baliarazten duen gauza bakarra kaltetuaren ikuspuntua baita –: hemendik aurrera begiak, kaltetuaren beraren begiak (nahiz eta hori izan gertatzen den azkena, dagoeneko ohartu dugunez), ahalegina egiten du egintzaren preziazio gero eta ezpertsionalago batera iristen. – Horren arabera, legea ezartzen denetik bakarrik existitzen dira “bidezkoa” eta “bidegabea” (eta ez, Dühringek nahi duenez, irain-egintzatik). Bere baitan bidezkoaz eta bidegabeaz hitz egitea inolako zentzurik ez duen zerbait da; bere baitan iraintzea, bortxatzea, bipiltzea, deusezteza ezin liteke naturalki bidegabea izan bizitzak funtsean, hau da, oinarritzko bere funtzioetan irainduz, bortxatuz, bipilduz, deuseztuz jokatzeko duenez gero, eta izaera hori gabe inondik ere pentsatzerik ez dagoenean. Gainera oraindik gauza larriago bat ere onartu beharra dago: ikuspuntu biologiko goretetik, zuzenbide-egoerei ez zaiela zilegi inoiz

⁵³ Aipaturiko “argitatzaila” E. Dühring da eta ondoren datorren aipua haren *Sache, Leben und Feinde* (Gauza, bizitza eta etsaiak), 1882 liburukoa da.

salbuespen-egoera besterik izatea, benetako bizi-nahimenaren zatikako murrizpenak direnak, zeinak ahalmenera jotzen duen, eta nahimen haren helburu orokorraren menpean dauden bitarteko partikular gisa: hau da, ahalmen-unitate handiagoak sortzeko bitarteko gisa. Zuzenbide-ordena bat zerbait soberano eta orokor gisa, ahalmen-konplexuen borrokan ez bitarteko gisa pentsatua, baizik eta, oro har, borroka ororen aurkako bitarteko gisa, adibidez, Dühringen txantiloï komunistaren arabera, bizitzarekiko printzipio etsaikorra litzateke, gizakiaren ordena deuseztaile eta disgregatzaile bat, gizakiaren etorkizunarekiko atentatua, nekadura-zeinu bat, ezerezeranzko bide malkar bat. –

12

Oraindik beste hitz bat, puntu honetan, zigorraren helburuaz eta sorreraz -bi arazo desberdinak direnak edo izan beharko luketenak: zoritxarrez, eskuarki batu egiten dira. Nola jokutzen dute, hala ere, kasu horretan orain arte izandako moralaren genealogistek? Era xaloan, beti bezala: zigorrean edonolako “helburu” bat aurkitzen dute, adibidez, mendekua edo larderia, gero zabartasunez hasieran jartzen dute helburu hori, zigorraren causa fiendi [kausa egile] gisa eta – kito. “Zuzenbideko helburua”, hala eta guztiz ere, horren historia genetikorako erabili behar den azkena da: zeren ez baitago printzipio garrantzizkoagorik zientzia historiko-mota ororentzat hainbesteko ahaleginez konkistatu den hori baino, baina halaber errealki konkistaturik egon beharko luke, -hau da, gauza baten etorkiaren kausa eta horren azken baliagarritasuna, horren erabilpen eraginkorra eta helburu-sistema batean sartzea, beren artean toto coelo [erabat] bereizirik daude. Existitzen den zerbait, nolabait burutzera iritsi den zerbait, behin eta berriz interpretatzen du hartaz goragoko ahalmen batek, asmo berrietaranzko norabidean, era berri batean hartaz jabetu, eraldatu eta moldatu egiten zaio baliagarritasun berri bati; mundu organikoan jazoera oro menpekotze, nagusitze bat dela eta, bere aldetik, menpekotze eta nagusitze oro berrinterpretatze bat dela, birdoitze bat, zeinetan, ezinbestez, aurreko “zentzuak” eta aurreko “helburuak” ilundurik gelditu behar baitute edo erabat ezabaturik ere bai. Zeinahi organo fisiologikoren baliagarritasuna oso ongi ulertu delarik ere (baita instituzio juridiko batena, gizarte-ohitura batena, erabilpen politiko batena arteetan edo erlijio-kultuko forma jakin batena), ezer ez da horrekin ulertu bere etorkiari buruz, nahiz eta hori oso deseroso eta higuigarri izan belarri zaharagoentzat, -zeren antzinatik sinetsi izan baita helburu frogagarrian, gauza baten, forma baten, instituzio baten baliagarritasunean aurkitzen zela bere etorkiaren arrazoia ere, eta horrela begia ikusteko egina zegoela, eta eskua oratzeko egina zegoela. Halaber horrela imajinatu da zigorra ere, zigortzeko asmatua izan balitz bezala. Baina helburu guztiak, baliagarritasun guztiak hain ahaltsua ez den zerbaitez nagusitu den eta hartan, bere baitatik abiatu, funtzio baten zentzua inprimatu duen botere-nahi baten zantzuak baizik ez dira; eta “gauza” baten, organo baten, erabilpen baten historia osoa interpretazio eta birdoiketa beti berrien katea adierazgarri etengabe bat izan daiteke, zeinen kausek ez baitute beren artean erlazonaturik egon beharrik ere, aitzitik, batzuetan modu erabat halabeharrezkoan ondozkutzen eta agertzen dira. Gauza baten, erabilpen baten, organo baten “garapena”, horren arabera, edozer gauza da helmuga bateranzko progressus-a baino areago, eta askozaz gutxiago oraindik progresu logiko eta guztiz laburra, indar eta kostuen gasturik txikienarekin lortua, -baizik eta gauzan gertatzen diren basailutze-prozesu gutxi-asko sakonen, beren artean gutxi-asko independenteen suzesioa, zeini gehitu behar

baitzaizkie kasu bakoitzean kontra egiteko erabilitako erresistentziak, defentsak eta erreakzioko helburuarekin entseiatutako metamorfosiak, baita kontraegintza lortuen emaitzak ere. Forma jariakorra da, baina “zetzua” oraindik areago da... Organismo bakoitzaren barruan gauzak ez dira bestela gertatzen: osotasunaren hazkuntza funtsezko bakoitzarekin organo bakoitzaren “zetzua” ere aldatu egiten da, -eta batzuetan horien zatiko hondamendiak, horien murrizte numerikoak (adibidez, tarteko kideen deuseztapenaren bidez), gero eta indar eta perfekzio handiagoaren zeinu izan daitezke. Esan nahi izan dut zatiko ezbaliagarritzea, atrofia eta endekatzea, zetzua eta komenientzi galera, hitz batean, heriotza egiazko progressus-aren baldintzetakoak dira: zein beti agertzen baita nahimen baten erara eta ahalmen handiago bateranzko bide bezala, eta ezin zenbatu ahala ahalmen txikiago batzuen lepotik ezartzen du bere burua. “Progresu” baten handiera sakrifikatu behar izan zaion guztiaren masaz neurtzen da; gizateria gizaki-espezia bakar eta indartsuago bat loratzeko sakrifikatutako masa den heinean – hori litzateke progresu bat... Metodika historikoaren ikuspuntu nagusi hau hainbat gehiago azpimarratzen dut, zeren eta barrenean, gaur nagusi diren garaiko instintu eta gustuari kontrajartzen baitzaie, zeinek nahiago bailukete halabehar absolutuarekin berarekin itundu ere, areago, jazotze ororen zetzugabezia mekanizistarekin, jazotze ororen baitan destolesten den botere-nahiaren teoriarekin baino. Nagusi den eta nagusi izan nahi duen orori kontrajartutako idiosinkrasia demokratikoa, misarkismo⁵⁴ modernoa (gauza txar baterako hitz txar bat eratzearren), halako moldez, non izpiritualan, izpiritualenean pixkanaka eraldatuz eta maskaratu joan baita, non gaur barneratzen baitira, eta zilegi baitzaie barneratzea, urratsez urrats zientziarik zehatzenetan, itxuraz objektiboenetan; nik uste dut dagoeneko fisiologia guztiaren eta bizitzaren doktrina guztiaren nagusi egin direla, horien kalterako, ulertzen denez, oinarrizko kontzeptu bat inkaminkatu baitiete, benetako jarduerarena. Aldiz, idiosinkrasia haren presiopean “moldaera” ezartzen da lehen mailan, hau da, bigarren lerruneko jarduera bat, erreaktibitate soil bat, areago, bizitza bera definitu da kanpo-inguruabarrekiko barne-moldaera gero eta egokiago bezala (Herbert Spencer). Baina horrekin ez da ezagutzen bizitzaren funtsa, bere botere-nahia; horrekin ez ikusi egiten zaio indar espontaneo, erasokor, inbaditzaile, interpretazio berrien, norabide eta forma berrien sortzaileek daukaten printzipiozko lehentasunari, zeinen eraginez baitator gero “moldaera”; horrekin organismoan bertan ukatu egiten da funtzionario gorenaren zeregin dominatzailea, zeinetan bizi-nahimena aktibo eta formaemaile agertzen baita. Gogora bedi Huxleyk Spencerri aurpegiatu ziona – bere “nihilismo administratiboa”; baina “administratzea” baino zerbait gehiago da kontua.

13

-Horrela, bada, gaira itzultzeko, hau da, zigorrera, bi gauza bereizi behar zaizkio: alde batetik, erlatiboki iraunkorra dena zigorrean, erabilpena, egintza, “drama”, prozeduren halako sekuentzia zorrotz bat; beste alde batetik, jariakorra dena horretan, zetzua, helburua, prozedura horiek egikaritzeari loturiko igurikapena. Guk hemen per analogiam [analogiaz] besterik gabe, aurkeztu dugun metodika historikoaren ikuspuntu nagusiaren arabera, auresuposatzen dugu prozedura

⁵⁴ Grekozko (----) eta (---) berbez eraturiko hitz honek agintaritzak edo gobernu-eraren ororenganako gorrotoa adierazten du.

bera bere erabilpena baino zaharxeagoa, lehenxeagokoa izango dela zigorrerako, azken hori gerora sartua izan dela haren interpretazioan (zein existitzen baitzen askozaz lehenagotik, baina bestelako zentzu batean erabilia zen), hitz batean, gauzak ez direla morala eta zuzenbidearen gure genealogista xalok orain arte onartu izan dituzten bezalakoak, zeinek guztiek imajinatzen baitzuten prozedura zigortze-helbururako asmatua izan zela, eskua oratze-helbururako asmatua izan zela lehen imajinatzen zen era berean. Orain zigorraren beste elementuari, jariakorrari, bere “zentzua”ri dagokionez, gertatzen da, kulturaren egoera oso berantiar batean (adibidez, gaur eguneko Europan), “zigor” kontzeptuak ez duela aurkezten izatez zentzu bakarra, “zentzuen” sintesi oso bat baizik: zigorraren aurreko historia oro har, helburu desberdinenetarako haren erabilpenaren historia azkenerako unitate gisako batean kristaltzen da, zein zaila baita disolbatzen, zaila analizatzen, eta, azpimarra dezagun, erabat definiezin gertatzen baita. (Gaur ezinezkoa da zehatz esatea zergatik ezartzen diren benetan zigorrak: prozesu oso batean semiotikoki kondentsatzen diren kontzeptu guztiek ihes egiten diote definizioari; historiarik ez duena bakarrik da definigarri.) Aurreko estadio batean, aldiz, “zentzu”en sintesi hura disolbagarriago ageri da, baita trukagarriago ere; oraindik hauteman daiteke sintesiko elementuek nola aldatzen duten beren baliotasuna eta, ondorioz, beren ordena kasu berezi bakoitzean, halako moldez, non kasu batzuetan elementu bat baita, beste batzuetan beste desberdin bat nabarmentzen eta besteen lepotik nagusitzen dena, areago, batzuetan elementu bakar batek (adibidez, beldurtzearen helburuak) badirudi besteak ezabatzen dituela. Gutxienez ideia bat emateko zeinen ziurreza, zeinen gainezarria, zeinen akzidentala den zigorraren “zentzua”, eta nola prozedura bat bera erabil, interpreta, birdoi daitekeen asmo zeharo desberdinetarako zoriz hartutako material oso urri batean oinarriturik lortu dudana eskema ematera noa. Arriskutsutasunaren neutralizazio gisako zigorra, geroko kalte baten eragozte bezala. Kaltetuari egindako kaltea nolabait ordaintzeko zigorra (baita konpentsazio afektiboarenean ere). Orekaren nahastearen isolatze gisako zigorra, nahaste horren hedapena eragozteko. Zigorra erabaki eta exekutatzeko dutenenganako beldurra eragite bezala. Ordura arte hobenlariak gozaturiko abantailengatik konpentsazio gisako zigorra (adibidez, meatzetarako esklabo gisara erabiliz). Endekatzeko zorian aurkitzen den elementu baten segregazio gisako zigorra (batzuetan, abar oso batena, zuzenbide txinatarrean gertatzen denez: eta, beraz, arraza oso bat garbi iraunarazteko bitarteko gisa edo gizarte-tipo jakin bat egonkor iraunarazteko). Festa gisako zigorra, hau da, azkenean eraitsi den etsaiaren bortxaketa iseka gisa. Oroimena egiteko bitarteko gisako zigorra, bai zigorra pairatzen duenari – “zentzate” deitua, edo bai exekuzioaren lekuko izan direnei. Ordainsari baten pagu gisako zigorra, hobenlaria mendekuaren gehiegikerietatik babesten duen ahalmenak estipulatua. Mendekuaren egoera naturalarekiko konpromezu gisako zigorra, oraindik arraza ahaltsuek egoera hori iraunarazten duten eta pribilegio gisa errebindikatzen duten heinean. Gerra-aldarrikapen gisako zigorra eta gerra-neurri gisa ere bai bakea, legea, ordena, agintaritzaren aurka, zeini komunitatearentzat arriskutsutzat, haren auresupostuak erasaten dituen itunen hausletzat, erreboltari, traidore eta bake-asaldatzailatzat jotzen delako gudu egiten baitzaio gerrak eskuratzen dituen bitartekoez hain zuzen ere.-

14

Zerrenda hori ez da osoa, noski; argi dago zigorra era guztietako baliagarritasunez gainkargaturik dagoela. Hainbat zilegiago da hartatik ustezko baliagarritasun bat kentzea, edozein modutara,

herri-kontzientziak funtsezkoentzat daukana, -gaur arrazoi askorengatik koloka dagoen zigorrarekiko sinesmenak, bere bermerik sendoena oraindik ere baliagarritasun horretan aurkitzen du. Zigorrak, esaten da, errudunarengan erruaren sentimendua iratzartzeko balioa izango luke, zigorrean “kontzientzia txar”, “kontzientiaren ausikia” deituriko erreakzio arimazko horren benetako instrumentum-a bilatzen da. Baina horrekin oraindik gaur ere errealtatearen eta psikologiaren aurka atentatzen jarraitzen da: eta askozaz gehiago oraindik gizakiaren historiarik luzeenaren aurka, historiaurrearen aurka! Benetako kontzientiaren ausikia oso bakana da zinez hobenlari eta gaizkileen artean; presondegiak, kartzelak ez dira har hozkari mota hori hobespenez ugaltzen den inkubatokia: -horretan bat datoz behatzaile kontzientiatsu guztiak, zeinek, kasu askotan, nahikoa atsekabez adierazten duten epai hori eta beren nahi propioenen aurka. Gauzak beren osotasunean ikusirik, zigorrak gogortu eta hotz bihurtzen du, kontzentratu, gaizkoatu egiten du arrotasun sentimendua, sendotu egiten du erresistentziaren indarra. Batzuetan energia hautsi eta postrazio eta burubeheratze errukarri bat eragiten duenean, emaitza horrek seguraski gutxiago azkartzen du zigorraren ohiko ondorioak baino: zeinen ezaugarria seriotasun lehor eta ilun bat baita. Baina gizakiaren historiaren aurreko milurteetan pentsatzen badugu, zilegi zaigu, inolako eskrupulurik gabe, zigorrak zinez erarik indartsuenean erruaren sentimenduaren garapena blokeatu duen epaia ematea, -gutxienez biktimei dagokienez, zeinen gain ahalmen zigortzailea deskargatzen zen. Ez dugu gutxietsi behar, izan ere, epaiketa- eta exekuzio-prozeduren ikuskizunak berak eragozten diola hobenlariari bere egintza, bere egintza mota, bere baitan esegarritzat sentitzea; zeren berak ikusten baitu egintza-mota horiek berak zuzenbidearen zerbitzuan kontzientzia onarekin burutzen direla eta oniritziak direla; hala gertatzen da espioitza, engainua, ustelkeria, tranpa, polizia eta akusatzaileen arte amarruzko eta maltzur guztiarekin, eta gainera lapurreta, bortxa, laidoa, presondegia, tortura, asasinatzearekin, zein era sistematikoan exekutatzen baitira eta grinaren desenkusarik ere gabe, zigor-mota desberdinetan agertzen direnez, -gauza horiek guztiak, beraz, epaileek inola ere beren baitan gaitzetsi eta kondenatzen ez dituzten egintzak dira, baizik eta aspektu eta aplikazio praktikoko jakin batean baizik. “Kontzientzia txarra”, landare hori, lurreko gure begetazioan makurrena eta interesgarriena den hori, -izatez denbora txit luzean ez zen agertu epaileen, zigortzaileen kontzientzian ezer hemen “errudun” bat zegoelakoaz. Baizik eta kalteen egile bat, fatalitatearen zati arduragabe bat. Eta hark berak, gero zigorra fatalitatearen zati bat bezala ere gaineratzen zitzaionak, ez zuen sentitzen horretan inolako “barne-atsekabe”rik, ezustean kalkulatu gabeko zerbait, jazoera natural ikaragarri bat, erortzen eta zanpatzen gaituen harri-mokor bat, gertatzen denean sentitzen denaz bestelakorik, zeinen kontra ezin baita borroka egin.

15

Behin eta era amarruzkoan iritsi zen ideia hori Spinozaren kontzientziaraino (haren interpretatzaileen atsekaberako, zein ahalegintzen baitira hura metodikoki gaizki ulertzen pasarte horretan, Kuno Fischer, adibidez)⁵⁵, arratsalde batean, auskalo hazkura egiten zion zer gauzaz oroituz, ikertu egin zuen zerk iraun zuen beretzat errealtatean morsus conscientiae

⁵⁵ K. Fischer (1824-1907) Hegelen eskolan Alemanian sorturiko filosofiaren historialari handietako bat da. Bere obra nagusia *Geschichte der neueren Philosophie* (Filosofia modernoaren historia) da, hamar liburukitan idatzia 1854 eta 1877 bitartean. Badirudi Nietzscheke autore horren bitartez ezagutu zuela batez ere Spinoza.

[kontzientziaren ausikia] sonatutik -berak ongia eta gaizkia giza fantasien artean jarriak zituen eta suminez defendatua zuen bere Jainko “aske”aren ohorea, Jainkoak dena sub ratione boni [ongiaren arrazoiz] egiten duela baieztatzen zuten biraolarien aurka (“baina hori Jainkoa destinoaren menpean jartzea litzateke eta aldrebeskeria guztietan handiena” –) Spinozarentzat mundua kontzientzia txarra asmatu baino aurretik zegoen errugabetasun hartara itzuli zen berriro: zer bihurtu zen orain morsus conscientiae? “gaudium”-aren aurkako, esan zuen azkenean, – iraganeko gauza baten, uste zenaz bestetara gertaturiko baten ideiak lagunduriko tristura.” Eth. III propos. XVIII schol. I, II ⁵⁶. Milurteetan, zigorrak ustekabeen harrapaturiko gaizkileek ez dute izan, beren “akatsaz”, Spinozarenez bestelako sentimendurik: “Zerbait atera da gaizki hemen ustekabeen”, eta ez : “Nik ez nukeen hori egin beharko” –, zigorrari gaixotasun bati, edo ezbehar bati, edo heriotzari bezala menpekotzen zitzaizkion errebeliorik gabe fatalismo kementsu harekin, zeinaz, adibidez, oraindik ere errusiarrek aldea kentzen diguten guri mendebaldarroi bizitzaren tratamenduan⁵⁷. Garai hartan egintzaren kritika bat agertzen zenean kritika hori zuhurtziak burutzen zuen: ezbairik gabe zigorraren benetako efektua zuhurtziaren areagotze batean bilatu behar dugu, oroimenaren luzatze batean, aurrerantzean era arretatsu, mesfidati, sekretuago batean jokatzeko nahimenean, jakinaren gainean gauza askotarako norbera, behin betiko, ahulegia dela, nork bere burua epaitzeko duen moduaren zuzentze gisako batean bezala. Zigorrenekin lor daitekeena, oro har, bai gizakian eta bai animalian, beldurra gehitzea da, zuhurtzia areagotzea, irriak menperatzea, eta horrela zigorrak hezi egiten du gizakia, baina ez du “hobe” egiten, – eskubide gehiagoz izango litzateke zilegi alderantzizkoa baieztatzea. (“Min hartua, zuhurtua”, dio herriak, baina zuhurtzen duen neurrian txartu ere egiten du. Zorionez, sarritan, ergel samar bihurtu ere egiten du.)

16

Puntu honetan jadanik ez dago saihesterik “kontzientzia txarra”ren sorreraz neure hipotesi propioari lehen adierazpen behin-behineko bat ematea; ez da erraz hipotesi hori entzunaraztea, eta luzaroan hausnartua, zaindua eta kontsultatua izatea eskatzen du. Kontzientzia txarra gaitz sakontzat hartzen dut, zeinaren menpean gizakiak erori behar zuen, berak esperimenterik aldakuntza errotikoenaren presiopean, – gizakiak behin betiko gizartearen eta bakearen sortilegioan bere burua esparrurik aurkitzean gertatu zen aldakuntzarenean. Itsas animaliei ere gertatu zitzaizkion beharturik aurkitu zirenean, edo animalia lehortar bihurtzera, edo iraungitzera, hori berori gertatu zitzaizen oihanera, gerrara, alderrai ibiltzera, abenturara zorionez moldaturiko erdi-animalia horiei, – kolpe batean instintu guztiak desbalioturik eta “esekita” gelditu zitzaizkien. Hemendik aurrera oinen gainean ibili eta “bere burua eraman” beharra zuten, ordurarte urak eramanez izan zirelarik: astuntasun ikaragarri bat zeukaten aldean. Gauzarik sinpleenetarako gaiezak sentitzen ziren, jadanik ez zeukaten, mundu berri ezezagun horretarako, gidari zaharrak, instintu arautzaile eta inkontzienteki hutsezinak, -dohakabeok murrizturik zeuden pentsatzera, arrazoitzera, kalkulatzera, kausak eta ondorioak konbinatzera, beren “kontzientzia”ra, beren organo errukarri eta hutseginkorrenera! Nik uste dut sekula ez zela izan lurrean halako miseria

⁵⁶ Spinozaren testua: “Conscientiae denique morsus est tristitia, opposita gaudio.” “Conscientiae morsus est tristitia concomitante idea rei praeteritae, quae praeter spem evenit.”

⁵⁷ Errusiar fatalismo horretaz Nietzschek bere *Ecce homo* obran hitz egiten du.

sentimendurik, halako ondoez berunezkorik, – eta, gainera, instintu zahar haiek ez zioten utzi, kolpean, beren eskakizunak erreklamatzeari! Ezik zail gertatzen zela, eta oso gutxitan posible, haien nahia egitea: nagusienean ibitze berriak bilatu behar izan ziren eta, nolabait esateko, lurpekoak. Kanporantz asaskatzen ez diren instintu guztiak barnerantz bihurtzen dira -hori da nik gizakiaren barneratzea deitzen dudana: horrekin bakarrik garatzen zaio gerora “arima” deitzen zaiona. Barne-mundu guztia, sorreran mehea, bi larrumintzen artean esparrutua, bereiziz eta haziz joan zen, eta sakonera, zabalera, garaiera lortuz joan zen, gizakiaren kanporantz asaskatzea inhibiturik geldituz joan zen neurrian. Estatu-antolakuntzak askatasunaren instintu zaharren aurka bere burua babesteko zerabiltzan gotorleku haiek – zigorrak batez ere gotorleku horiei dagozkie–, gizaki basa, aske, alderraiaren instintu haiek guztiak atzera itzultzea, gizakiaren beraren aurka bihurtzea eragin zuten. Etsaigoa, krudelkeria, jazarpen, eraso, aldaketa, deusezpeneko plazerra -hori guztia instintu horien jabearen aurka bihurtuak: hori da “kontzientzia txarra”ren sorrera. Gizakia, [barne-etsairik eta -erresistentziarik gabe] ohituren mehertasun eta erregularitasun zapaltzailera beharturik, bere burua urratzen, jartzaten, hortzkatzen, karraskatzen, asaldatzen, bere burua ezinegonez tratutxartzen aritzen zen, “hezi” nahi den animalia hori eta bere kaiolako burdinbarren kontra topeka ari den, zerbait falta zaion izaki hori, basamortuaren nostalgiak suntsitua, bere buruaz abentura bat, tortura-ganbara bat, oihan ziurrez eta arriskutsu bat egin behar izan zuena -zoro hori, lehenminak eta etsipenak jotako preso hori izan zen “kontzientzia txarra”ren asmatzailea. Baina horrekin gaitzik handiena sartu zen, makurrena, gizateriak gaurdaino sendatu ez duena, gizakiarengatiko, bere buruarengatiko gizakiaren sufrimendua: bere animalia iraganetik bereizte zakarraren ondorioa, jauzi eta erorkera baten ondorioa, nolabait esateko, izate-egoera eta -baldintza berrietan, instintu zaharren aurkako gerra-aldarrikapen baten ondorioa, zeinetan une horretara arte baitzeutzan bere indarra, bere plazerra eta bere emankortasuna. Gehi dezagun berehalaxe, bestalde, bere buruaren aurka bihurtzen zen, bere buruaren aurka jartzen zen animalia arima batekin lurrean hain gauza berri, sakon, entzungabe, enigmatsu, kontraesankor eta etorkizuntsua jartzen zela, non horrekin lurraren itxura funtsez aldatu zen. Izatez, ikusle jainkotiarrek behar izan ziren orduan hasi zen eta amaiera oraindik guztiz aurreikustezina duen ikuskizuna behar bezala preziatzeko, – ikuskizun finegia, miresgarriegia, paradoxazkoegia edozein astro irrigarritan antzeztu ahal izateko inor – gauza zentzugabea- ikusle izan gabe! Harrez gero zoriaren jokaldi esperogabeen eta ernagarrienen artean Heraklitoren “Haur handia”, Zeus edo Azare deitua dauka gizakiak, – interes bat, tentsio bat, itxaropen bat, ia ziurtasun bat bizten du, horrekin zerbait iragarriko balitz, zerbait prestatuko balitz bezala, gizakia helmuga bat ez balitz bezala, baizik bide bat bakarrik, tarteko gertakari bat, zubi bat, promesa handi bat...

17

Kontzientzia txarraren sorrerari buruzko hipotesi horren auresupostuen artean lehenik, aldakuntza hori pixkanakakoa eta berarizkoa ez izana eta baldintza berrien barruan hazkuntza organiko gisa aurkeztu ez izana dago, baizik eta haustura bat, jauzi bat, hertsapen bat, derrigorrezko patu bat bezala, zeinen kontra ez baitzen borrokarik ezta erresumindurik ere izan. Baina bigarrenez,

ordurarte ez forma eta ez inhibizioen menpe jarritako biztanleria bat bortxazko egintza batez hasiriko forma zorrotz batean sartzea bortxazko egintza garbiz eramana izan zen azkeneraino, – "Estatu" antzinakoena, ondorioz, tirania ikaragarri bat bezala agertu zen, makineria birrintzaile eta kontsideraziogabe bat bezala, eta horrela jarraitu zuen lanean lehengai gordin hura herriz eta erdi-animaliaz egina ongi oretua eta malgu gelditu arte ez ezik, forma bat izan zuen arte. "Estatu" hitza erabili dut: ulertzen da nori buruz ari naizen – animalia harraparizko horda bat, konkistatzaile- eta jaun-arraza bat, gerrarako antolatua, eta antolatzeke indarrez hornitua, bere atzapar ikaragarriak inolako eskrupulurik gabe, agian kopuruz askozaz handiagoa, baina artean formagabe eta alderraia zen biztanleria baten ganean. Horrela hasten da, izan ere, lurrean "Estatua": nik uste dut ezeztaturik gelditzen dela horrela "hitzarmen" batekin hasarazten zuen fantasia hura. Agintzeko gai denak, naturaz "jaun" denak, obra eta keinutan nagusikoi agertzen denak -zer du horrek ikustekorik hitzarmenekin! Horrelako izakiekin ez da kontatzen, destinoa bezala iristen dira, ziorik, arrazoirik, kontsideraziorik, aitzakiarik gabe, tximista existitzen den bezala existitzen dira, ikaragarriak, supitukoegiak, konbentzitzaileegiak, "bestelako"egiak gorrotatuak ere izateko. Horien obra formak sortzea, formak inprimatzea da, existitzen diren artistarik gogoz kontrakoena, inkontzienteenak dira: – denbora laburrean sortzen da, horiek agertzen diren tokian, zerbait berria, bizi den domeinu-taxukera bat, zeinean atalak eta funtzioak zedarritu eta loturan jarri baitira, zeinean ez baitauka lekurik, aurrez "zentzu" osotasunari begira eman ez zaion ezertxok ere. Antolatzaile jaio horiek ez dakite erruaren berri, zer den erantzunkizuna, zer den kontsiderazioa; brontzeko begiez gauzei begiratzen dien eta alde zurretik, betiere osoan, "obra"n, ama bere semearengan bezala justifikaturik sentitzen den artistaren egoismo ikaragarri hura dute nagusi. Ez da horiengan "kontzientzia txarra" sortu, hori alde zurretik ere ulertzen da – baina landare itsusi hori ez zatekeen horiek gabe sortuko, absente egongo litzateke, horien mailukaden presiopean, horien artista-bortxapean mundutik askatasun quantum handi bat jaurtikia izatea gertatu izan ez balitz, edo gutxienez bistatik kanpo gelditu zen, eta, nolabait esateko, latente bihurtu zen. Askatasunaren instintu erreprimitu hori, baztertua, barruan kartzelaratua eta bere buruaren aurka azkenerako deskargatu eta asaskatzen dena: hori, hori bakarrik da, bere hasieran, kontzientzia txarra.

18

Gorde dezagun geure burua fenomeno hori guztia gutxitzat hartetik, alde zurretik itsusia eta mingarria delako. Barrenean bortxaren artista haiengan eta antolatzaile haiengan era handiosean diharduen eta estatuak eraikitzen dituen indar hori, hori da, izatez, hemen barnekoago, txikiago, txikituago, atzerantz berrorientatua, "bularreko labirinto"an⁵⁸, Goetheren hitzekin esateko, kontzientzia txarra sortzen eta ideal negatiboak eraikitzen dituen, hori da zinez askatasunaren instintu hura (nire hitzetan esateko: botere-nahia): bakarrik indar horren natura formaeratzzaile eta bortxatzaileak bere burua asaskatzen duen gaia gizakia bera da, bere ni zahar erabat animaliazkoa – eta ez, fenomeno handiago eta deigarriago hartan, beste gizakiarengan, beste gizakiengan. Burubortxatze sekretu honek, artista-krudelkeria honek, gai gogor, jarkikor eta

⁵⁸ Goetheren "An den Mond" [Ilargiari] poema ezagunaren azken ahapaldian agertzen da esamolde hori: "Was, von Menschen nicht gewusst/ Oder nicht bedacht./Durch das Labyrinth der Brust/wandelt in der Nacht." [Gizakiek jakin edo pentsatu ez duten hura, bularreko labirintotik, ibiltzen da gauzez.]

pairakor bati bezala nork bere buruari forma ematearen, hartan suz nahimen bat, kritika bat, kontraesan bat, mesprezio bat, ezetz bat markatzearen atsegin honek, bere buruarekin nahita erdibituriko arima baten, zeinek atseginarengatik bere buruari sufriarazten dion, lan makur eta ikaragarriro gozamentsu honek, “kontzientzia txar” aktibo horrek guztiak azkenerako eragin egin du – dagoeneko igartzen zaio –, jazoera ideal eta imajinarioen benetako umontzi baten gisa, edertasun eta baieztapen berri eta harrigarrien ugaritasun bat eta agian bera da lehen aldiz edertasuna sortu duena... Zeren zer litzateke “eder” kontraesanak bere buruaren kontzientzia aurrez hartu ezean, itsusiak aurrez bere buruari esan ez balio: “Ni itsusia naiz”?... Gutxienez, adierazpen horren ondoren ez da hain enigmatsu gertatuko interesgabezia, buruukapena, burusakrifizioa bezalako kontzeptu kontraesankorretan ideal bat, edertasun bat zer puntutaraino iradokia egon litekeen enigma; eta gauza bat jakingo da hemendik aurrera, ez dut horretaz zalantzarik –, hau da, zer motatakoa den, hasieratik, desinteresgabetuak, bere burua ukatzen duenak, bere burua sakrifikatzen duenak sentitzen duen atsegina: atsegin hori krudelkeriari dagokio.– Horrekin aski da, behin-behinekoz, “ez egoista”ren jatorriari dagokionez, balio moralari eta balio hori erne den alorraren zedarriketari dagokienez: kontzientzia txarrak bakarrik, nork bere buruari tratu txarra ematearen nahimenak bakarrik ematen du ez-egoistaren baliorako auresupostua.-

19

Gaixotasun bat da kontzientzia txarra, ez dago zalantzarik, baina haurdunaldia bezalako gaixotasun bat. Bila ditzagun gaixotasun hori bere gailur ikaragarri eta sublimeenera iritsi den baldintzak: horrekin mundura benetan zer sartu den ikusiko dugu. Baina horretarako hats luzea eduki behar da – eta, ondoren, aurreko ikuspuntu batera itzuli behar dugu berriro. Zordunaren eta hartzekodunaren arteko zuzentza pribatuzko harremana, zeinaz dagoeneko luzaro hitz egin dugun, beste behin sartu da, eta hori historikoki oso estrainio eta arazotsua gertatzen den era batean, erlazio baten interpretazioan, zeinean agian ulergaitzen gertatzen zaigun guri gizaki modernooi; hau da, gaurko gizakien beren arbasoekiko erlazioan. Jatorrizko etorki-komunitatearen barruan -aldi primitiboez ari naiz- bizi den belaunaldiak beti berrezagutzen du, antzinagoko, leinuaren sortzailearekiko, betebeharrak juridiko bat (eta ez, inondik ere, lotura afektibo soil bat: izan ere, azken hori inola existitzen dela ere ukatzeko arrazoirik bada giza espeziearen denboraldi luzeenean). Hemen konbentzimendu bat da nagusi, leinuak arbasoen sakrifizio eta obrei esker soilik dirauela, -eta hori sakrifizio eta obrekin ordaindu behar zaiela: horrela zor (Schuld) bat aitortzen da eta hori etengabe hazten da, zeren arbasoek, izpiritu ahaltsu gisa bizirauten dutenek, ez baitiote uzten leinuari beren indarretik irtendako abantaila berriak eta mailegu berriak emateari. Doan agian? Ez dago inolako “doakotasun”ik aro zakar eta “arimaz pobreak” ziren haien zat. Zer eman lekieke ordainetan? Sakrifizioak (hasiera batean elikadurarako, zentzurik zakarrean ulerturik), jaiak, kaperak, omenaldiak eta, batez ere, obediencia -zeren usuario guztiak dira, arbasoen obra diren heinean, haien agindu eta ordenak –: ematen al zaie inoiz aski? Susmo horrek irau egiten du eta hazi egiten da: aldian-aldian erreskate orokor handi bat ezartzen du, “hartzekodun”arentzako kalteordain eskerga bat (lehensemearen sakrifizio tristeki sonatua, adibidez, odola, giza odola edozein kasutan ere). Arbasoari eta haren ahalari zaion beldurra, harekin zorrak izatearen kontzientzia hazi egiten da beharrezanez, logika gisako horren arabera, leinuaren ahala hazten den neurri berean, hori gero eta garaikorragoa, independenteagoa,

gurtuagoa, beldurgarriagoa den neurri zehatzean. Eta ez alderantziz! Leinuaren atrofiarantz emandako urrats orok, hondamenezko jazoera orok, endekatze-zantzu orok, hondiko hurbilak gutxitu egiten dute beti, aitzitik, bere sortzailearen izpirituarenganako beldurra eta bere adimenaren, bere aurreikuspenaren eta bere ahalaren presentziaren ideia gero eta txikiago bat ematen dute. Demagun logika zakar gisako hori bere amaieraraino iritsi dela: orduan leinu ahaltsuenen arbasoek azkenerako derrigor hartu behar dituzte, hazten ari den beldurak berezkoa duen fantasiaren bidez, izari erraldoiak eta jainkozko beldurgarritasun eta irudikaezintasunaren ilunpetaraino atzeratu: arbasoa derrigorrean antzaldaten da jainko izateraino. Agian hortxe dago jainkoen sorrera, hau da, beldurretiko sorrera!... Eta norbaiti irudituko balitzaio beharrezko “baina baita pietatetik ere!” gehitzea, nekez izango luke arrazoirik giza espeziearen aldi luzeenari, bere aro primigenioari dagokionez. Aldiz, hainbat gehiago izango luke, zalantzarik gabe, aro ertainari dagokionez, zeinean leinu nobleak eratzen ziren: – horiek, izatez, berrintegratu egin dituzte beren fundatzaileak, beren arbasoak (heroiak, jainkoak), zegozkien interesekin, haietan beretan bitartean agertu ziren tasun guztiekin, tasun nobleekin. Geroago oraindik beste begiratu bat emango diogu jainkoen nobletze eta aristokratikotze horri (horrek ez du esan nahi inondik ere horien “santutzea”): oraingoz aski bekigu behin-behinekoz amaierara eramatea erru-kontzientziaren bilakaera honen guztiaren joaira.

20

Historiak irakasten digu jainkotasunarekin zorrak edukitzearen kontzientzia ez zela iraungi “odolezko ahaidetasunean oinarrituriko “komunitatea”ren antolatze-eraren inularraren ostean ere; gizateriak “on eta txar” kontzeptuak leinu-aristokraziatik heredatu dituen bezala (horrek hierarkiak ezartzeko duen oinarritzko joera psikologikoarekin batera), horrela jaso du, leinu eta tribuko jainkotasunen herentziarekin, oraindik ordaindu gabeko zorren pisuaren eta horiek berrintegratu nahiaren herentzia ere. (Iragaitza beren jaunen jainkoen kultura, bai hertsapenez, bai morrontzakeriaz eta mimicryz [mimetismo] moldatu ziren esklabo eta serbuen biztanleria zabal haiek eratzen dute). Jainkotasunarekin zorretan egotearen sentimenduak ez dio utzi hazteari milaka urtetan zehar, lurtean Jainkoaren kontzeptua eta Jainkoaren sentimendua hazten eta gaindegietara igotzen ziren hein berean. (Borroka, garaiti, adiskidetze, fusio etnikoen historia, arraza-sintesi handi orotan herri-elementu guztien behin betiko hierarkizazioari aurrea hartzen dion guztia, jainkoen genealogien kaosean islatzen da, horien borroka, garaiti eta adiskidetzeen elezaharretan; inperio unibertsaletarantzko abioa jainkotasun unibertsalenganako abioa ere beti izan da, despotismoak, aristokrazia independentearen bere basailutzeaz, bidea urratzen du beti monoteismo motaren baterako ere.) Jainko kristauaren etorrerak, orain arte iritsi izan den Jainko gorena denarenak, horregatik agerrarazi egin du lurtean erru-sentimenduaren maximuma. Suposatuz bitartean alderantzizko mugimendua hasi dugula, zilegi litzateke deduzitzea, eta ez gertakortasun gutxirekin, Jainko kristauarekiko sinesmenaren beherakada eutsiezinetik, orain erruaren (Schuld) giza kontzientziaren beherakada nabarmena gertatu dela: areago oraindik, ez da baztertu behar ateismoaren erabateko eta behin betiko garaitiaren ikuspegiak gizateria jaregin ahal izan duela bere hasierarekin, bere causa primarekin zorretan aurkitzearen sentimendu horretatik

guztirik. Ateismoa eta bigarren errugabetasun (Unschuld) gisako bat elkarren artean loturik daude⁵⁹. –

21

Hori da behin-behineko esan behar dena, laburtasunez eta larriki “erru”, “betebehar” kontzeptuek auresupostu erlijiosoekiko duten loturaz: berariaz utzi dut orain arte alde batera kontzeptu horien benetako moralizazioa (horiek kontzientziara atzeraraztea, edo, zehatzago, kontzientzia txarra Jainkoaren kontzeptuarekin elkarbegiztatzea), eta hitz egin ere egin dut, aurreko zenbakiaren amaieran, horrelako moralizaziorik inondik egon ere egongo ez balitz bezala, eta, beraz, kontzeptu horiek derrigor ezabaturik gelditu beharko balute bezala horien auresupostua, gure “hartzekoduna”rekiko, Jainkoarekiko sinesmena desagertu delarik. Errealitatea ikaragarri bestelakoa da horretatik. Errua eta betebeharra kontzeptuen moralizazioarekin, horiek kontzientzia txarrera atzeraraztearekin, oraintxe deskribatu dugun garapenaren norabidea alderantzikatzearen saioa egin da egiaz edo, gutxienez, horren mugimendua geldiaraztekoa: orain era pesimistan itxi behar da, kolpe batean, behin betiko erreskate baten ikuspegia, orain begiradak tupust egin behar du, burdinazko ezintasun baten aurka errebote egin behar du, orain “erru” eta “betebehar” kontzeptu horiek atzerantz bihurtu behar dute, – noren aurka, bada? Ez dago zalantzan jartzetik: gutxienez, “zordun”aren aurka, zeinengan hemendik aurrera kontzientzia txarra hainbestearaino kokatu, marraskatu, hedatu eta hazten baita, polipo bat bezala, zabalera guztian eta sakonera guztian, zein erruaren iraungiezintasunarekin batera espazioaren iraungiezintasuna ere azkenerako kontzebitzen baita, horren ordainezintasuna (“betiko zigorra”)-; baina, azkenean, “hartzekodun”aren aurka ere bihurtzen da, nahiz pentsatu gizakiaren causa priman, gizajendearen hasieran, horren progenitorearengan, zein orain madarikatzen den (“Adam”, “jatorrizko bekatua”, “nahimenaren askatasun falta”), edo naturan, zeinen altzotik sortzen baita gizakia, eta zeinean orain printzipio txarra kokatzen baita (“naturaren deabrukuntza”), edo existentzian oro har, zein bere baitan ez-baliozko gisa gelditzen baita (existentziaren urruntze nihilista, ezerezaren desira edo bere “aurkakoa”ren desira, besteizatearena, budismoarena eta antzekoena) –, harik eta gizateria martiriotuak une bateko arindua aurkitu zuen baliabide paradoxazko eta ikaragarriarekin bat-batean topo egiten dugun arte, kristautasunaren jeinu-kolpe haren aurrean: Jainkoa bera bere burua sakrifikatzen gizakiaren erruarengatik, Jainkoa bere buruari ordaintzen, Jainkoa gizakia berreros dezakeen bakar bezala, berorrenzat berreros ezin bihurtu den hartatik – hartzekoduna bere zordunarengatik sakrifikatzen, maitasunez (sinestekoa al da gero?), bere zordunarenganako maitasunez!...

22

Honez gero igarri bide zaio benetan zer gertatu zen honekin guztiarekin eta honen guztiaren azpitik: buruoinazetze-nahi hura, animalia/gizakiaren krudelkeria atzera barneratua, beldurrez nork bere baitan gordea, “Estatu”an kartzelaratua hezia izateko helburuarekin, bere buruari min egiteko kontzientzia txarra asmatu duena, min-egite horretatik irteteko biderik naturalena itxita gelditu zela,

⁵⁹ *Unschuld* = Zorrik ez edukitzea.

– kontzientzia txarreko gizaki hori auresupostu erlijiosoaz jabetu da bere buruoinazetza bere gogortasun eta garraztasun ikaragarrienera eramateraino. Jainkoarekiko zor bat: pentsamendu hori tortura-tresna bihurtzen zaio. “Jainkoa”rengan atzematen du bere animalia instintu benetakoa eta ezabaezinentzat aurkitzeko gai den azken antitesia, animalia instintu horiek berak Jainkoarekiko zor bezala berrinterpretatzen ditu (etsaitasun, errebolta, “Jauna”aren “Aita”ren, progenitorearen eta munduaren hasieraren aurkako asaldatze bezala), “jainkoa eta deabrua” kontraesanean teinkatzen da, eta, nork bere buruari, naturari, naturaltasunari, bere izatearen errealitateari esaten dion ezetz oro bere baitatik kanpora proiektatzen du baietz bat bezala, existitzen den, gorputza duen, erreala den zerbait bezala, Jainko, Jainkoaren santutasun, jainko epaile bezala, Jainko borrero bezala, haraindi bezala, betiera bezala, amaigabeko martirio bezala, infernu bezala, zigorra eta erruaren neurtezintasun bezala. Hori nahimenaren eromen gisako zerbait da krudelkeria arimazkoan, sinpleki esateko parekorik ez duena: gizakiak bere burua errudun eta gaitzesgarri aurkitzeko duen nahimena espiazioa ezinezko bihurtzeraino, bere burua zigortua imajinatzeko bere nahimena zigorra inoiz ere erruaren baliokide izan ez daitekeelarik, gauzen barrenik sakonena zigorra eta erruaren arazoaz kutsatu eta pozoitzekoa, “ideia finko” horien labirintotik irtenbidea behin betiko eteteko, ideal bat – ”Jainko santu”arena – ezartzeko bere nahimena, bere erabateko ezduintasunaren ziurtasun ukigarria, haren aurrean, eskuratzeko. Oi gizakia piztia ero eta tristea! A zer nolako burutapenak dituen, a zer gauza antinaturalak, paroxismoaren zer zentzugabekeria, ideiarener zer piztiakeria agertzen diren, apur bat besterik ez bada ere, egintzaren piztia izatea eragozten bazaio!... Hori guztia ezin gehiagoraino interesgarri da, baina baita tristura goibel, ilun eta akigarrikoa ere, hainbesteraino, non geure buruari bortizki debekatu behar diogun amildegi horiei luzaroegi begiratzea. Hemen gaixotasuna dago, ez dago zalantzarik, gizakia deboilatu duen gaixotasunik beldurgarriena: -eta oraindik entzuteko gai dena (baina gaur jadanik ez dago belarririk horretarako!-) nola tormentu eta eromeneko gau horretan durundi egin duen maitasun-oihuak, liluramendu jorantsueneko oihuak, maitasuneko berrerospenarenak, hori bestaldera bihurtzen da, izularri menperaezinak hartua... Bada hamaika gauza lazkarri gizakiarengan!... Lurra luzaroegi izan da jadanik eroetxe!...

23

Aski bedi hori, behin betiko, “Jainko santu”aren etorkiari dagokionez. – Bere baitan jainkoen kontzepzioak ez duela derrigor eraman behar fantasiaren txartzetara, zeinen errepresentazioaz une batean ez baitzaigu zilegi izan gabe egotea, gizakiak bere burua gurutziltzatu eta bilautzea baino jainkoen fikzio poetikoaz baliatzeko era nobleagoak badaudela, zeinetan maisu izan baitira Europako azken milurteak, – hori, zorionez, jainko grekoei, beren buruaren jabeago eta nobleago ziren gizakien errainu horiei zuzenduriko begirada orotatik atera daiteke, zeinetan animalia gizakiarengan jainkoturik sentitzen baitzen eta ez baitzuen bere burua irensten, ez baitzen bere buruaren aurka sumintzen! Denbora oso luze batean greko horiek beren jainkoez baliatu ziren zinez beren baitatik “kontzientzia txarra” urrundurik edukitzeko, beren arima-askatasunarekin pozik egoten jarraitzeko: hau da, kristautasunak bere Jainkoaz egin duen erabilpenaz alderantzizko zentzuan. Horretan oso urrunera heldu ziren haur-buru lehoiak bezain kementsu haiek; eta Zeus homerotarrarena bezainbateko autoritate batek ulertarazten die han-

hemenka gauzak arinegi hartzen dituztela: “Ai!”, dio egokiera batean – Egistoren kasua da, oso kasu larria –

Ai zer gauzez salatzen dituzten hilkorrek jainkoak!
Gugandik bakarrik datorrela gaizkia diote;
baina berek beren zentzugabekeriekin eragiten dizkiete zorigaitzak beren buruei,
baita zoriaren beraren kontra ere⁶⁰.

Hala eta guztiz ere, hemen entzun eta ikusi egiten dugu aldi berean ikusle eta epaile olinpiko hori urrun dagoela haserretzetik horregatik gizakien aurka eta haietaz gaizki pentsatzetik: “Bai eroak direla!”, pentsatzen du hilkorren makurkeriak ikustean, – eta “erokeria”, “ergelkeria”, “buruko nahaste” apur bat, hori guztia onartu zuten beren buruez garai bortitzeneko, kementsueneko grekoek berek ere, gauza txar eta hondikozko askoren oinarritzat:-erokeria, ez bekatua! Ulertzen duzue?... baina buruaren nahaste hori bera ere arazo bat zen – ”bai, baina nola liteke hori bera ere? Nondik etorri ahal izan da, zinez, gu, jatorri aristokratikoko, fortunako, erakuntza oneko, gizarte hobereneko, nobleziako, bertuteko gizakionak bezalako buruetara?” – horrela galdetu zion bere buruari mendetan greko nobleak bere kideetako batek bere burua lohitu zuen lazgarrikeria eta krimenaren aurrean. “Jainko batek, zalantzarik gabe, nahastu behar izan du”, esaten zuen azkenean, buruari eraginez... Irteera hori grekoen tipikoa da... Eta horrela jainkoek neurri bateraino gizakia txarrean justifikatzeko balio zuten, gaizkiaren kausatzat balio zuten -orduan jainkoek ez zuten beren gain zigorra hartzen, baizik, nobleago denez gero, errua...⁶¹.

24

Hiru galdera-ikurrekin amaitzen dut, agerian dagoenez. ”Jaso egiten da hemen ideal bat, ala eraitsi egiten da?”, galdetuko zait agian... Baina, inoiz galdetu al diozue zeuon buruari behar adina zeinen garesti ordainarazi den lurrian ideal oro ezartzea? Zenbat errealitate kalumniatu behar izan zen beti eta gaizki ulertu horretarako, zenbat gezur santutu behar izan zen, zenbat kontzientzia nahastu, zenbat “jainko” sakrifikatu behar izan zen aldioro? Santutegi bat eraikitzeke, santutegi bat porrokatu behar da: hori da legea -erakuts bekit hori bete ez den kasu bakar bat!... Gu, gizaki modernook, milaka urtetan gara kontzientziaren bibisekzioaren, eta garen animalia horren buruoinazetzearen oinordekoak, halaber milaka urtetan: horretan askozaz ariketa luzatuagoa daukagu, agian geure artistatasuna, eta edozein kasutan geure errefinamendua, geure gustu-galtzea. Luzaroegi begiztatu ditu gizakiak “begi gaiztoez” bere jaidura naturalak, halako moldez, non azkenerako bere baitan “kontzientzia txarra”rekin senidetu diren. Bere baitan posible litzateke alderantzizko ahalegina – baina nor da horretarako behar bezain indartsua?-, hau da, jaidura eznaturalak kontzientzia txarrarekin senidetzeko ahalegina, haraindiranzko joran horiek guztiak, zentzumenez kontrakora, animaliaz kontrakora, hitz batean, orain arte izan diren idealez kontrakora, zein guztiak bizitzaren etsai, munduaren ideal gaizkiesaleak baitira. Norengana jo gaur egun horrelako itxaropen eta gurariekin?... Geurekin hain zuzen ere gizaki onak izango genituzke:

⁶⁰ *Odisea*, I, 32-34.

⁶¹ Ikus *Ecce Homo* obran Nietzschek honi buruz dioena.

eta gainera, bistakoa denez, gizaki erosoak, adiskidetuak, banitatetsuak, ameslariak, nekatuak... Zerk iraintzen du sakonago, zerk banatzen du barrenagotik nor bere burua tratatzen duen zorroztasun eta garaieratik apur bat ohartarazteak baino? Eta, bestalde, – bai atsegin, bai txerakor agertzen den mundu guztia gurekin mundu guztiak egiten duena egiten dugun bezain laster eta mundu guztia bezala “eramanak izaten” uzten dugunean!... Helburu hori lortzeko zinez aro honetan gertakorrak direnez beste izpiritu-mota bat beharko litzateke: gerra eta garaitiek zaildutako izpirituak, zeinentzat konkista, abentura, arriskua eta oinazea bera ere premia bihurtu baitira; horretarako aire garai zorrotzera ohiturik egotea eskatuko litzateke, neguko ibilaldietara, izotzera eta mendietara zentzu guztietan, eta gainera gaiztakeria sublime moduko bat beharko litzateke zinez, bere buruarekin ziur dagoen ezagutzaren azken burgoikeria bat, osasun handiaren parte dena, zinez beharko litzateke, bizkor eta gaizki esateko, osasun handi hori!...⁶². Baina gaur, litekeena ote da gero hori?... Noizbait, hala ere, bere buruaz zalantzak dituen orainaldi usteldu hau baino aro bortitzagoren batean, gizaki berrerosleak etorri beharko du gureganaino, maitasun handiaren eta mesprezio handiaren gizakia, izpiritu sortzailea, zeina bere indar bulkadazkoak urruntzen duen behin eta berriz baztertze orotatik eta haraindi orotatik, zeinen bakardadea herriak gaizki ulertzen baitu errealitatetik ihes bat bezala-: hondoratze bat, lurperatze bat, sakontze bat delarik errealitatean, handik noizbait ateratzeko, argira itzultzean, haren berrerospena, orain arte izandako idealak gainera jaurti dion madarikaziotiko berrerospena. Etorkizuneko gizaki horrek, orain arte izandako idealetik jaregingo gaituen gizaki horrek, baita hartatik jaio behar izan zuenetik ere, goralari handitik, ezerezaren nahimenetik, nihilismotik, eguerdiko kanpaiaren dandara horretatik eta nahimena berriro jaregiten duen erabaki handitik, lurrari bere xedea eta gizakiari bere itxaropena itzultzen dizkiona, antikristo eta antinihilista hori, Jainkoaren eta ezerezaren garaitzaile hori –halako batean heldu beharra da...

25

– Baina, zer ari naiz esaten? Aski da! Aski da! Puntu honetan gauza bakarra komeni zait, isiltzea: bestela nahastu egingo naiz ni baino gazteago bati, “etorkizun”ago bati, indartsuago bati bakarrik zilegi zaion zerbaitetan – Zaratustra, Zaratustra jainkogabeari bakarrik zilegi zaion zerbaitetan... Hirugarren tratatua

Zer esan nahi dute ideal aszetikoeak?

Kezkagabe, isekati, zakar – horrela nahi gaitu jakituriak: emakumea da, gerraria besterik ez du maite beti.

Honela mintzatu zen Zaratustra

⁶² Nietzschek *Jakintza pozkariotsua* bere obrako 382. aforismoan dioenez, “osasun handi” hori gaingizakiaren auresupostu fisiologikoa da.

1

Zer esan nahi dute ideal aszetikoek? Artisten artean ezer ez edo gauza gehiegi; filosofo eta ikasien artean, izpiritualitate jaso baten baldintza faboragarrienak hautemateko usna edo instintua; emakumeen artean, kasurik hoberenean, sedukzioaren maitakortasun bat gehiago, morbidez [morbidositasun] apur bat gehiago haragi eder baten gainean, animalia eder gizen baten aingeruzkotasuna; fisiologikoki jende elbarritu eta destrenpatua denaren artean (hilkorrik gehienak), mundu honetarako “onegi” aurkitze-saio bat, neurgabekeriaren era sakratu bat, oinaze geldo eta asperduraren aurkako borrokan bere baliabide nagusia; apaizen artean, benetako apaiz-sinesmena, beren ahalmen-tresnarik hoberena, baita horretarako baimen “gorena” ere; azkenik, santuen artean aitzakia bat negu-lorako, beren novissima gloriae cupido [azkeneko aintza-gutizia], beren ezerezeko (“Jainkoa”) atsedena, beren eromen-era berezia. Alabaina, ideal aszetikoak gizakiarentzat hainbeste gauza esan nahi izatean giza nahimenaren oinarriko errealitatea adirerazten da, bere horror vacui-a [hutsartearen laborria]: nahimen horrek helmuga bat behar du -eta nahiago du ezereza ez nahi izatea baino. – Ulertzen al zait? ... Ulertu al zait?... “Inola ere ez, jauna!” -Has gaitezen, beraz, hasieratik.

2

Zer esan nahi dute ideal aszetikoek? -Edo sarritan kontsultatu didaten kasu bakar bat hartzeko, zer esan nahi du, adibidez, Richard Wagner bezalako artista batek bere zahartzaroan kastitateari omen egiteak? Egia da, zentzu batean, hori beti egin duela; baina azken unean bakarrik egin du zentzu aszetikoan. Zer esan nahi du “zentzua”ren aldatze horrek, zentzuaren errotiko aldatze horrek? – zeren aldaketa bat izan baita, eta horrekin Wagnerrek zuzenean jauzi egin du bere antitesira. Zer esan nahi du artista batek bere antitesira jauzi egiteak?... Demagun keratxo bat egin nahi dugula auzi honetan, berehalaxe datorkigu hemen agian Wagnerren bizitzan izandako arorik hoberen, indartsuen, pozkariotsuen, adoretuenaren oroitzapena: Luteroren ezteien pentsamenduak era intimo eta sakonean harturik zeukanean izan zen. Nork daki zer zoriren menpean dagoen guk gaur, eztei-musika haren lekuan Maisu kantariak edukitzea? Eta hango zenbatak jarraitzen du oraindik hauetan durundi egiten? Baina ez dago inolako zalantzarik “Luteroren Eztei” horietan berorietan ere, kastitatearen laudoriorik izan bide zela. Baita, edozein modutara, sentsualitatearen laudoriorik ere: – eta horrela hain zuzen iritziko nioke ongi, horrela hain zuzen izango zatekeen hori “wagneriar”. Zeren kastitatea eta sentsualitatearen artean ez baitago derrigorrezko antitesirik; ezkontza on oro, bihotzezko maitasun-erlazio benetako oro antitesi horren gainera baitago. Nire iritzian, Wagnerrek ongi egingo zukeen errealitate atsegin hori bere alemaniarren aldartera eramatean, Luterori buruzko komedia piperdun eta ausart baten laguntzarekin, zeren alemaniarren artean sentsualitatearen kalumniazaila asko baitago eta egon baita beti; eta agian Luteroren meritua ezertan ez da handiagoa izan bere sentsualitatearen balioa eduki izatean baino (–orduan, finezia handi samar batekin, “askatasun ebanjeliko...” deitzen

zitzaion). Baina kastitatea eta sentsualitatearen arteko antitesi hori errealki egonik ere, ez da beharrezko, zorionez, jadanik antitesi tragiko izatea. Horrek gutxienez gorpuzkera hobez, aldarte hobez hornituriko hilkor guztiez balio beharko luke, zeinak besterik gabe urrun dauden, existentziaren aurkako arrazoiaren artean, “piztia eta aingerua”ren arteko oreka galkorra, –sotil eta zolienek, Goethe bezalakoek, Hafis bezalakoek⁶³, horretan bizitzaren beste erakarmen bat gehiago ikusi izan dute. Hain zuzen ere “kontraesan” horiek izatera seduzitzen dute... Bestalde, nabaria da urde elbarrituak kastitatea gurtzera eramanak direnean – eta bada horrelako urderik! – hartan beren antitesia bakarrik ikusi eta gurtzen dute, urde elbarrituaren antitesia -Oi, erraz pentsatzen da zeinen kurrinka tragiko eta suharrez egiten duten hori! –, Richard Wagnerrek, bere bizitzaren amaieran, oraindik musikan, inolako zalantzarik gabe, jarri eta eszenaratu nahi izan zuen antitesi higuinagari eta alferrikako hura. Zertarako, ordea? zilegi eta bidezko da galdetzea⁶⁴. Zeren, zer axola zaizkio hari urdeak, zer axola zaizkigu guri? –

3

Egia da hemen ezin dugula saihestu beste galdera hau: zer axola zitzaion berari benetan “xalotasun baserritar” gizonezkoen (ai, hain ez-gizonezkoen) hura, deabru gizajo hura, Parsifal izeneko mutiko basa hura, hain bitarteko makurrez azkenerako katoliko bihurtu zuena? – nola?, inondik ere seriotan hartu al zuten halako Parsifal hura? Izan ere, alderantzizkoa uste izatera tentaturik egon liteke, baita desiratzen ere, – Wagnerren Parsifala txantxetan hartua egon zitekeela, epilogo eta drama satiriko gisa, nolabait esateko, horrenbestez Wagner tragikoak gugandik, baita beregandik ere kanporatu nahi izango zukeelarik, eta batez ere tragediatik, benetan harentzako era duin eta komenigarrian, hau da, tragikoaren parodia goren eta guztiz bihurriaren, behialako seriotasun lurtar beldurgarri eta deitore lurtar guztiaren parodiaren, ideal aszetikoaren antinaturan dagoen erarik zakarrenaren, azkenean gairituriko parodiaren gehiegiarekin. Esan dudanez, hori zinez tragiko handi baten duin izango zatekeen; zeinek, artista orok bezala, bere handitasunaren azken gailurra bere burua ikusten dakienean bakarrik lortzen baitu eta bere artea bere buruaren azpitik, bere buruari barre egiten dakienean. Wagnerren “Parsifal”a, gailentasunez bere buruaz barre egitea al da, bere azken artista-askatasun konkistatu gorenaren, bere artista-harainditasunaren triunfoa? Nahiko genuke, esan dudanez, desiratu: zeren, zer izango litzateke “Parsifal”a seriotan hartuz gero? Beharrezkoa al da benetan harengan (nire kontra esan denez) “ezagutza, izpiritua eta sentsualitatearen aurkako gorroto erotuaren bidutzia ikustea? Zentzumenera eta izpirituaren aurka botatako madarikazio bat gorroto bakar batean eta hats bakar batean? Apostasia bat eta ideal kristauki gaixoti eta obskurantistetara bihurtze bat? Eta, azken finean, buru-ukatze bat, buruezabatze bat ere bai, une horretara arte, bere nahimenaren indar guztiarekin, alderantzizkoa nahi izan zuen artista baten aldetik, hau da, bere artearen izpiritualtze eta sentsualtze gorena? Eta ez bere artearena bakarrik: baita bere bizitzarena ere. Gogora bedi nolako suharrez

⁶³ Hafis (1319-1390), poeta persiarra, *Dibana* obraren egilea Goetheren *Mendebaleko eta Ekialdeko Dibana* obraren hatsemailea. Betiko itzulerari zegokionez Nietzscheren hatsemaile ere izan zela esan izan da.

⁶⁴ *Nietzsche Wagnerren aurka* obran “Wagner kastitatearen apostolu gisa” kapituluaren antzeko ideiak ageri dira.

jarraitu zituen Wagnerrek Feuerbach⁶⁵ filosofoaren oinatzak: hogeita hamargarren eta berrogeigarren urteetan “sentsualitate osasungarria”ri buruzko Feuerbachen esaldiak salbamenero hitz batek bezala. Durundi egin zuen Wagnerrentzat, alemaniar askorentzat bezala (“gazte alemaniar” deitzen zioten beren buruari). Azkenerako aldatu egin al zuen Wagnerrek horri buruzko doktrina? Bada, gutxienez badirudi alderantzizkoa irakatsi nahi izan zuela...⁶⁶ Eta ez Parsifalen tronpetekin bakarrik, eszenatokiaren gainetik: azken urteetako jarduera literario arrear, zentzordaturia bezain askatasun gutxikoa zen hartan, ehun pasarte daude desira ezkutu eta nahimen ezkutu bat saltzen dutenak, atzera itzultzea benetan predikatzeko nahi koldartu, ziurrez eta aitortugabe bat, konbertsioa, ukapena, kristautasuna, Erdi Aroa, eta bere ikasleei esatekoa: “Hau guztia ez da ezer! Bilatu salbamena beste nonbait!” Egokiera batean “Berreroslearen odola” aipatu ere egiten da...⁶⁷.

4

Zilegi bekit gauza higuinagari ugari dituen hau bezalako kasu batean neure iritzia azaltzea –eta kasu tipiko bat da-: zalantzarik gabe egin litekeen gauzarik hoberena da halako punturaino bereizi artista bere obratik, non hura ez den hau bezain benetan hartu behar. Azken finean, hura bere obraren aurretiazko baldintza besterik ez da, umontzia, lurra, batzuetan ongarria eta simaurra, zeinen gainean, eta, zeinetatik hura hazten baita –eta horregatik da, kasurik gehienetan, obraz beraz gozatu nahi bada, ahaztu beharreko zerbait. Obra baten jatorria arakatzea izpirituaren fisiologo eta bibisektoreei interesatzen zaie: sekula eta ezekin kasutan ez estetei, artistei! Parsifal sortu eta mamitu zuenari ez zitzaion aurreztu berbizitze sakon, erotiko eta ikaragarria ere bazenaren eta arimazko kontraste ertarotarretara jaistearen lana, jasotze, errigore eta izpiritudiziplina orotatik aldentze etsaizkoa, perbertsitate intelektual gisako bat (esamoldea zilegi bazait), hezurberri dagoen emakumeari haurdunaldiko nazka eta apetak aurrezten ez zaizkion bezala: gauza horiek, dagoeneko esan denez, ahaztu egin behar dira haurraz gozatzeko. Geure burua gorde beharra daukagu nahastetik, zeinean, contiguity [kontiguitate] psikologikoz oso erraz artista erortzen baita, ingelesek bezala esateko: berak irudika, kontzebi, adieraz dezakeena hura bera dela uste izatearenean. Izatez gertatzen da hori balitz ezingo lukeela inondik ere irudikatu, kontzebitu, adierazi; Homerok ez zukeen Akiles sortuko ezta Goethek Fausto ere, lehena Akiles izan balitz, eta bigarrena, Fausto.⁶⁸ Artista perfektu eta oso bat aldendurik dago, betiera guztian, “erreal”etik, eraginkorretik; ulertzekoa da, bestalde, batzuetan bere izate barnekoenaren betiereko “irrealitate” eta faltsutasunaz etsipeneraino nekaturik sentitzea, – eta orduan bat-batean berari debekatuen dagokionean, errealean, sartzeko ahalegina egitea, erreala izateko ahalegina egitea. Zer emaitzarekin? Igartzen zaio, antza... Horixe da artistaren nahikunde tipikoa: Wagner zahartua erori zen eta hain prezio garestiz eta hain era hondikozkoan ordaindu behar izan zuen nahikunde bera (-harengatik galdu zuen bere adiskideen parterik baliotsuena). Baina azken finean, nahikunde

⁶⁵ Ludwig Feuerbach (1804-1872) joera materialista alemaniarra nabarmentzen duen lehen filosofoetakoa. Eragin nabaria izan zuen Wagnerrengan eta horrek *Etorkizuneko arte-obra* eskaini zion.

⁶⁶ Ikus *Nietzsche Wagnerren aurka*.

⁶⁷ Parsifal obran sarritan agertzen dira “Salbatzailearen odola”ri buruzko aipamenak eta Nietzschekin, antza denez, behin baino gehiagotan mintzatu zen gai beraz.

⁶⁸ Ikus *Gizatiar, gizatiarregi*, 211. aforismoa (“Akiles eta Homero”).

hori ere erabat alde batera utziz gero, nork ez luke inondik ere nahi izango, Wagner berarenganako maitasunez, gugandik eta bere artetik beste era batera despeditu izana, ez Parsifal batekin, baizik eta era garaikorrago, bere buruarekiko ziurrago, wagneriarrago batean – hain zentzordagarria, bere nahi izate guztiarekiko hain anbigua, hain schopenhauertiarra, hain nihilista ez zen era batean?...

5

-Zer esan nahi dute, bada, ideal aszetikoek? Artista baten kasuan, dagoeneko ulertu dugu: ezertxo ere ez!... Edo hainbeste gauza desberdin, ezertxo ere ezaren pareko dena!... Kanpora ditzagun lehenik artistak: ez dute, hurrik eman ere, behar adina independentzia munduan eta munduaren aurka beren balio-preziazioek eta horren aldaketek beren baitan interesa merezi izateko! Artistak aro guztietan moral baten, edo filosofia baten, edo erlijio baten ganbara-laguntzaileak izan dira⁶⁹; erabat alde batera utzirik, bestalde, zoritxarrez, sarritan izan direla beren jarraitzaile eta mezenasen gortesau malgugueiak, baita antzinako botereen edo botere berri eta goranzkoen lausengari zoliak. Gutxienez, beti dute defentsa babesle baten premia, euskarri batena, jadanik oinarrituriko autoritate batena: artistek ez diote inoiz beren buruari berenez eusten, bakarrik egotea beren instintu sakonenen aurka doa. Horrela, esate baterako, Wagnerrek “garaia heldu zenean”, Schopenhauer filosofoa hartu zuen lerroburu eta defentsa babesletzat: – nork uste izan zezakeen inondik ere imajinagarri Wagnerrek ideal aszetikoa defendatzeko adorea izango zuela Schopenhauerren filosofiak eskaintzen zion sustengurik gabe, hirurogeita hamargarren urteetan European nagusitu zen Schopenhauerren autoritaterik gabe? (eta hemen ez dugu oraindik kontsideratzen Alemania berrian inondik ere posible izango ote zen artista bat pentsamolde debotoaren, Reicharekiko debotoaren esnerik gabe)⁷⁰. – Eta horrekin auzirik serioenera heldu gara: zer esan nahi du egiazko filosofo batek ideal aszetikoari men egiteak, Schopenhauer bezala bere baitan errealki kokaturiko izpirituko batek, brontze-begiradazko gizon eta zaldun batek, bera izateko adorea duen, bakarrik egoten dakien eta lerroburuei eta goitik etorritako adierazpenei itxaroten ez dien batek? -Azter dezagun hemen berehala Schopenhauerren artearekiko jarrera ohargarria eta, gizaki-mota batentzat, liluragarria ere bazen jarrera; zeren, begibistan dagoenez, horregatik batez ere iragan baitzen Richard Wagner Schopenhauerrengana (poeta batek, jakina denez, Herwegh-ek konbentziturik)⁷¹, eta hori halako punturaino, non erabateko kontraesan teorikoa sortu zen haren aurreko eta ondorengo sinesmen estetikoaren artean, -lehena, adibidez, “Opera eta drama”n adierazia, eta azkena, 1870az geroztik argitaratutako idatzietan. Bereziki, eta hori da agian gehien harritzen duena, Wagnerrek, hemendik aurrera, begirunerik txikienik ere gabe aldatzen du musikaren beraren balioa eta lekuari buruzko bere epaia: zer axola zion ordurarte hartaz bitarteko bat, medium bat, “emakume” bat egin izana, erabat loratzeko helburu bat, gizon bat -hau da, drama behar zuena! Behingoz ulertu zuen gehiago egin zitekeela in maiorem musicae

⁶⁹ Ikus *Zientzia pozkariotsua*, 1. aforismoa (“Izatearen helburuaren maisuak”); hala dio bertan: “Poetak, adibidez, beti izan dira moralen baten ganbara-laguntzaileak”.

⁷⁰ “Die Milch der frommen Denkart” (pentsamolde debotoaren esnea) Schillerren *Gilen Telleko* lerro ezagun bat da. Nietzschek hemen aldaketa bat egiten dio *reichsfromm* (Reicharen deboto) ezarriz

⁷¹ George Herwegh (1817-1875) Alemania gazteko poeta politikoa alemaniar ospetsuenetakoa bat. *Mann der Arbeit, aufgewacht!* [Laneko gizona, itzartu!] mugimendu sozialistaren borroka-kantuaren egilea. 1854an Schopenhauerren *Mundua nahimen eta errepresentazio gisa* obra irakurtzera bultzatu zuen.

gloriam⁷² [musikaren aintza handiagorako] Schopenhauerren teoria eta berrikuntzarekin, -hau da, musikaren soberanotasunarekin, horrek ulertzen zuenez: musika bereiz kokatua gainerako arte guztien aurrean, musika bere baitan independente zen arte gisa, haiek bezala fenomenalitatearen birsorkuntzak eskaini gabe, aitzitik nahimenaren beraren mintzairaz hitz eginez, “amildegi”tik zuzenean irtenez, agerkunde benetakoena, sorburuzkoena, eratorrigabeena bezala. Musikaren balioaren gehitze aparteko horrekin, zeina Schopenhauerren filosofiatik sortzen zela zirudien, musikariak berak ere modu entzungabean gehitu zuen prezioa supituki: harrez gero orakulu, apaiz bihurtu zen, eta apaiz baino gehiago ere bai, gauzen “beren baitako”aren bozeramaile gisako bat, haraindiaren telefono bat – aurrerantzean ez zuen musika soilik errezitatzen Jainkoaren sabeliztun horrek, – metafisika errezitatzen zuen: harriztekoa al da azkenerako egun batean ideal aszetikoak errezitatzea?...

6

Schopenhauer arazo estetikoaren kantiar kontzepzioaz baliatu zen, – nahiz eta guztiz ziurra den ez zuela kantiar begiez begiztatu. Kantek uste zuen ohore egiten ziola arteari hobetsi eta lehen mailan ezarritik, ederraren predikatuen artean, ezagutzaren ohorea eratzten duten predikatuen, inpersonalitatea eta baliotasun orokorraren artean. Ez da hau lekuri egokiena eztabaidatzeko, nagusienean, ez ote zen hori errakuntza bat; azpimarratu nahi dudana gauza bakarra da Kantek, filosofo guztiek bezala, arazo estetikoaren artistaren (sortzailearen) esperientzietatik fokatu ordez, “ikuslea”rengandik soilik egin zuela artea eta ederraren gogoeta eta, hori egitean, “ikuslea” bera sartu zuen “eder” kontzeptuan. Baina “ikusle” hori gutxienez ongi ezagutua izan balute ederraren filosofoek! -esan nahi dut, gertakari eta esperientzia pertsonal handi bezala ezagutua, ederraren alorreko bizipen, gurari, ezusteko, horditasun guztiz bakan eta ahaltsuen betetasuna bezala! Baina beldur naiz ez ote zen beti alderantzizkoa gertatu; eta horrela, hasieratik beretik ez dute definiziorik ematen, zeinetan, Kantek ederraz ematen duen sonatu hartan gertatzen denez, norberaren esperientzia finago baten absentsia oinarrizko errakuntzako har lodi baten irudiarekin aurkezten baita. “Ederra da, dio Kantek, interesik gabeko atsegina duena”⁷³.

Interesik gabekoa! Konpara bedi definizio horrekin egiazko “ikusle” eta artista batek -Stendhalek, ederrari abagune batean une promesse de bonheur [zorionaren promesa] adierazitako beste harekin. Hemen nolana ere zapuzturik eta ezabaturik gelditzen da Kantek egoera estetikoan eskusibitatez nabarmentzen duena: le désintéressement [desinteresa]. Nork du arrazoa, Kantek ala Stendhalek? -Nahiz eta egia den gure etikariak ez direla nekatzen beren balantza Kanten alde jartzen, edertasunaren xarmaren azpian emakume-estatua biluziak berak ere “interesik gabe” begiztatzea posible delakoa, zilegi bekigu horien lepotik barre pixka bat egitea: -artisten esperientziak, gai labain horri buruz, “interesgarriagoak” dira, eta Pygmalion, edozein kasutan, ez zen derrigor izan “gizaki antiestetikoa”. Pentsa dezagun hainbat hobeki argudio horietan islaturiko gure etikariaren errugabetasunez, kontsidera dezagun, adibidez, Kant ohoratzen duen zerbait bezala herri txikiko apaiz baten xalotasunarekin irakasten dakiena, ukitze-zentzumenaren

⁷² Jesuiten *Ad maiorem Dei gloriam* [Jainkoaren aintza handiagorako] goiburuaren parodia bat egiten du hemen Nietzschek.

⁷³ “Schön ist das, was... ohne alles Interesse gefallen müsse” (*Judizio estetikoaren dedukzioa* I. atala, bigarren liburua, lehen edizioko 114. orrialdea)

berezitasuna! -Eta hemen Schopenhauerrengana itzultzen gara, arteekin Kantenaz zeharo beste neurri bateko lotura izan zuenarengana eta, hala ere, ez zen libratu kantiar definizioaren begizkotik: nola gertatu zen hori? Kontua harrigarri samarra da: “interesik gabe” esamoldea Schopenhauerrek oso era pertsonalean interpretatu zuen, berarengan, normalenetakoa izan beharko zuen esperientzia batetik abiatuz. Gauza gutxiri buruz hitz egiten du Schopenhauerrek begiztatze estetikoaren efektuaz adinako ziurtasunez: “interes” sexualaren efektu kontraeragilea egozten dio hain zuzen ere, hau da, lupulina eta alkanforaren antzekoa, eta ez zen sekula nekatu, egoera estetikoaren abantaila eta baliagarritasun handitzat goستن, “nahimen”etik libratze hori. Areago oraindik, tentaturik egon liteke galdetzeko bere “Nahimena eta errepresentazioa”ren oinarritzko kontzepzioa, “errepresentazioa”ren bidez soilik “nahimen”aren askapena gerta litekeelako pentsamenduak ez ote zuen bere jatorria esperientzia sexual haren orokorkuntza batean izan. (Esan dezagun bidenabar, Schopenhauerren filosofiari buruz, ez dela ahaztu behar hogeita sei urteko gazte baten kontzepzioa dela; halako moldez, non filosofia horrek ez baitu Schopenhauerren berezizkoan esku hartzen soilik, baita bizitzako adin horren berezizkoan ere.) Entzun dezagun, adibidez, pasarterik adierazkorrenetako bat berak idatzirik ugarrien artean egoera estetikoaren ohoretan (Mundua nahimen eta errepresentazio gisa I 231)⁷⁴, entzun dezagun honako hitz hauek nolako tonuz, sufrimenduz, zorionez, eskerronez esanak izan diren. “Hauxe da Epikurok ongi gorentzat eta jainkoen egoeratzat goستن zuen egoera oinazegabea; une horretan nahimenaren hertsapen ziztrinetik libratu gaude, nahi izatearen lan bortxatuaren zapatua ospatzen dugu, Ixionen gorpila gelditu egiten da...”. Nolako hitzen suharra! Nolako imajinak tormentua eta gogait luzearenak! Zer aldi-kontrajartze ia patologikoa alde batetik “une” horren, eta bestetik, “Ixionen gorpila”, “nahi izatearen lan bortxatu”, “nahimenaren hertsapen ziztrin” horien artean! – Baina demagun Schopenhauerrek ehun aldiz arrazoia duela bere pertsonari dagokionez, zer lortuko zatekeen horrekin ederraren esentzia ulertzeko? Schopenhauerrek ederraren efektu bakarra deskribatu du, nahimenaren efektu baretzailea, – baina hori efektu normala ere ba al da gero? Stendhalek, esan dugunez, Schopenhauer baino izaera sentsual gutxiagokoa ez zen baina hark baino erakuntza zoriontsuagoa zuenak, ederraren beste efektu bat nabarmentzen du: “ederrak zoriona agintzen du”, berak baderitzo egiatzki gertatzen dena ederrarengatik nahimenaren (“interesa”ren) kitzikatzea dela hain zuzen ere. Eta ez ote legoke, azken finean, aurpegiratzerik Schopenhauerri berak ez daukala inolako eskubiderik horretan kantiar sentitzeko, ez zuela inondik ere kantiarki ulertu ederraren kantiar definizioa, -berari ere ederra “interes” batengatik atsegin zaiola, bere torturari ihes egiten dion torturatuaren interesarengatik hain zuzen?... Eta geure lehen galderara itzuliz, “zer esan nahi du filosofo batek ideal aszetikoari omen egiteak?”, hemen gutxienez lehen adierazpen bat eskuratzen dugu: tortura bati ihes egin nahi dio. –

7

Gorde dezagun geure burua berehala aurpegi goibelak jartzetik “tortura” hitza entzutean: hain zuzen ere kasu honetan asko samar da deskontatu beharrekoa, asko samar kentzekoa -barre egiteko ere zerbait gelditzen da. Ez dezagun inondik ere gutxiets Schopenhauerrek, egitez

⁷⁴ Nietzschek aipaturiko orrialdea Frauenstädten ediziokoa da. III. liburuari dagokio (*Mundua errepresentazio gisa*, § 38).

sexualitatea etsai pertsonal gisa tratatzen duenak, (beronen instrumentua, emakumea, barne, instrumentum diaboli [deabruaren instrumentu] hori), etsaiak behar izatea bere umore onari eusteko; hitz sumindu, behazuntsu, berde-belatzak behar izatea; sumintzearen atsegin soilez, grinaz sumintzea; gaixotu egin zatekeen, ezkor bihurtuko zatekeen (– zeren ez baitzen, nahiz eta hori asko desiratzen zuen), beren etsairik gabe, Hegel gabe, emakumea, sentsualitatea, eta existitzeko, gelditzeko nahimen guztia gabe. Bestela, Schopenhauer ez zatekeen geldituko, horretaz apustu egin daiteke, ihes egingo zukeen: baina etsaiek tinkaturik zeukaten, behin eta berriz existitzera seduzitzen zuten, sumina beretzat, Antzinaroko zinikoentzat bezala, bere baltsamo, bere aringarri, bere sari, goralariaren aurkako remedium, bere zoriona zuen. Hori Schopenhauerren kasurik pertsonalenari dagokionez; bestalde, bada harengan zerbait tipikoa, – eta hemen itzultzen gara berriro gure arazora. Eztabaidaezina da, filosofoak lurtean direnetik, eta izan diren toki guztietan (Indiatik Ingalaterraraino, filosofiarako gaitasunaren bi poloak hartzeko), haien benetako iritazio eta benetako herra bat dago sentsualitatearen aurka – Schopenhauer etorri handienekoa besterik ez da eta, entzuteko belarririk izanez gero, baita asaskatze horietatik arrotzaile eta liluragarriena ere –; era berean existitzen dira benetako alderditarkeria eta filosofoen benetako hobespena ideal aszetikoarekiko bere osotasunean; gauza horri buruz eta horren aurrean ez dugu ilusiorik egin behar. Bi gauzak, dagoeneko esan dugunez, tipoaren parte dira; eta biak falta badira filosofo batengan, orduan horrelakoa ez da pasatzen -ziur egon bedi horretaz – “nolabaiteko” filosofo izatetik. Zer esan nahi du horrek? Bada, gertakari hori interpretatetik hasi behar da: bere baitan hor dago ergelki betiera osoan, “bere baitako” gauza oro bezala. Animalia oro eta beraz baita la bête philosophe [animalia filosofikoa] hori ere, instintuz jotzen du baldintza faboragarrienen optimum bat lortzera, horretan erabat bere indarra asaskatu ahal izateko eta bere maximuma ahalmen-sentimenduan lortzen du; animalia orok, halaber era instintuzkoan, eta “arrazoi oren gainetik dagoen” usaimen-fintasunez, izulaborria sentitzen du optimumerako bidean tartejarriko zaizkion edo jar lekizkiokeen nahaste eta eragozpen guztien aurrean (– mintzo naizena ez da “zorion”erako bere bidez, baizik botererako, ekintzarako, egite ahaltsuenerako bidez, eta, egitez, kasurik gehienetan, zorigaitzerako bere bidez). Eta horrela filosofoak izulaborria sentitzen du ezkontzarekiko eta horretara pertsuadi lezakeen ororekiko, – ezkontza traba eta fatalitate optimumerako bere bidean. Zein filosofo handi egon da ezkondu orain arte? Heraklito, Platon, Descartes, Spinoza, Leibniz, Kant, Schopenhauer – ez dira egon; areago, pentsatu ere ezin ditugu egin ezkondu. Filosofo ezkondu bat komediako pertsonaia da, hori da nire tesia: eta Sokrates, salbuespen horri dagokionez, badirudi Sokrates maliziatsua ironice [ironiaz] ezkondu zela, hain zuzen ere tesi hori frogatzeko. Filosofo orok, Budak seme baten jaiotza behin iragarri ziotenean esandakoa esango luke⁷⁵: “Râhula jaio zait, katea bat landu didate” (Râhulak “deabrutxo” esan nahi du hemen); “izpiritu aske” orori gogoeta-ordu bat etorri beharko litzaioke, aurretik pentsamenduz husturiko ordu bat izan duela suposatuz, behiala Budari berari etorri zitzaionez – ”mehar eta zanpatua duk, pentsatzen zuen bere baitan, etxeko bizitza, lohikeriazko leku horretakoa; askatasuna etxea abandonatzean datza”: ”hori pentsatu zuen bezain laster abandonatu egin zuen etxea”. Ideal aszetikoan hainbeste zubi daude iradokirik independentziarantz, non filosofo batek ezin baitu utzi pozkarioa sentitu eta bere barrenean txalo jotzeari, egun batean

⁷⁵ Nietzscheren iturria, kasu honetan, honako hau izan bide zen: H. Oldenberg, *Buddha. Sein Leben, seine Lehre, seine Gemeinde*, Berlin, 1881.

menpekotasun orori ezetz esan, eta edozein basamortutara joan ziren gizaki erabakidun haien guztien historia entzutean: nahiz eta suposatu asto indartsuak besterik ez zirela eta izpiritu indartsu baten zeharo kontrakoak. Zer esan nahi du, beraz, ideal aszetikoak filosofo batengan? Nire erantzuna – aspaldi igarri bide zaio- da: hori begiestean filosofoak irribarre egiten dio izpiritualitate goren eta ausarteneko baldintza-optimum bati, – horrekin ez du “existentzia” ukatzen, aitzitik, horretan bere existentzia eta bere existentzia soilik baieztatzen du, eta hori agian honako gurari makur hau urrun ez ibiltzeko zoriraino: pereat mundus, fiat philosophia, fiat philosophus, fiam!...[gal bedi mundua, egin bedi filosofia, egin bedi filosofoa, egin nadin neu.]

8

Ikusten da filosofo horiek ez direla ideal aszetikoaren balioaren lekuko eta epaile erostezinak! Beren buruarengan pentsatzen dute, -bost axola horiei “santua”! Berentzat ezinbestekoena dutenean pentsatzen dute: hertsapen, asaldura, zarata, negozio, eginbehar, kezketatik aske egotean; argitasuna buruan; dantza, jautzia eta pentsamenduen hegalketa; airea garbi, garden, aske, lehorra, goialdeetako airea bezalakoa, zeinean izaki animalia oro izpiritualago bihurtzen baita eta hegalkak sortzen baitzaizkio; lasaitasuna lurpe guztietan; txakur guztiak kateari ongi loturik; etsaitasun eta herra laztuzko zaunkarik ez; handinahi irainduzko har karraskaririk ez; errai apal eta esanekoak, errotarriak bezain saiatu baina urruneko; bihotza arrotz, haraindian, etorkizuneko, postumo, – hitz batean, ideal aszetikoan pentsatzean filosofoek hegalkak sortu zaizkion animalia jainkotu baten aszetismo arraian pentsatzen dute, eta bizitzaren gainean atsedena hartu baino gehiago hegaz egiten duela haren gainean. Jakina da zeintzuk diren ideal aszetikoaren hiru hitz arranditsuak: pobretasuna, apaltasuna, kastitatea; eta orain begira bekio hurbiletik izpiritu handi, emankor, asmatzaileen bizitzari, – beti aurkituko dira berriz horietan, halako gradu bateraino, hiru gauza horiek. Inola ere ez, ulertzen da, agian bere “bertuteak” balira bezala - zer du ikustekorik bertuteekin gizaki-mota horrek! –, baizik eta existentzia hoberenaren, bere emankortasun ederrenaren baldintzarik propio eta naturalenak bezala. Hemendik guztiz ahalgarri da, noski, bere izpiritualitate nagusikoak lehenik harrokeria menperaezin eta kitzikagarri bati edo sentsualitate bihurri bati balazta ezartzea, edo hari nahikoa kostatu izana zutik eustea bere “basamortu”-nahimena, agian luxurako eta birbilatuenerako jaidura baten aurrean, eta era berean baita bihotza eta eskuaren eskuzabaltasun zarrastel baten aurrean ere, instintu nagusikoia, gainerako beste instintu guztiei bere eskakizunak ezartzen zizkiena zen heinean hain zuzen ere – eta oraindik ere hori egiten jarraitzen du; egingo ez balu, ez litzateke nagusi izango, izan ere. Ezer ez dago, beraz, hemen “bertute”tik. Gainerakoan, aipatu dudan basamortua, izpiritu indartsuak, natura independentekoak baztertu eta isolatzen direna – oi, zeinen itxura desberdina ageri duen ikasiek amets egindako basamortuak! – batzuetan, izan ere, horiek berak, ikasi horiek berak dira basamortua. Eta ziurra da izpirituaren komerialarietatik batek ere ez duela hartan iraun, – horientzat ez da aski erromantiko, aski siriar, ez da aski antzerki-basamortu! Nolanahi den, horretan ere ez dira ganbeluak falta: baina horretara mugatzen da antzekotasun guztia. Hautazko iluntasun bat, agian; norik bere buruari itzurtze bat, mukertasun bat zaratarekiko, benerazio, egunkari, influentziarekiko: lanbidetxo bat, bizitza arrunt bat, argitara atera baino areago ezkutatuko duen zerbait, animalia eta txori alai eta kaltegabe batzuekin noizean behin tratatze bat, zeinen ikuspenak zuzperten baitu: lagun gisa mendi bat baina ez hila, baizik begiduna (hau da

lakuduna): eta are batzuetan gela bat mundu guztiarentzako ostatu bete batean, zeinean norbera ziur dagoen beste edozeinekin nahastuko dutela eta, zeinean zigorrik gabe hitz egin baitaiteke edonorekin, – hori da hemen “basamortua”: Oi, aski bakartia da, sinetsidazue! Heraklito Artemisaren ⁷⁶ lur libre eta kolomerietara baztertu zenean, “basamortu” hori duinagoa zen, onartzen dut; zergatik falta zaizkigu gaur tenplu horiek? (– behar bada ez zaizkigu falta: oraintxe puntuan oroitu naiz neure estudio-gela ederrenaz, Piazza di Marcoz, udaberria dela suposatuz, eta eguerdiarte gainera, hamarretatik hamabietara bitartea.) Baina Heraklitok ihes egiten zion hura, gu orain aldentzen gatzazkiona bera da: efesotarren zarata eta demokrata-berritsukeria, haien politika, Reicharen haien berriak (Persiakoak, ulertzen da noski), “gaur”rari buruzko haien kontakatilukeria, – zeren guk filosofook gauza batetiko baretasuna behar dugu, “gaur” guztitikoa. Gurtu egiten dugu isila, hotza, noblea, urrunekoa, iragana dena, zeinaren itxurak arima defendatu eta ixtera behartzen ez gaituen, -zeinarekin hitz egin baitaiteke ahotsa altxa gabe. Entzun bedi izpiritu batek duen soinua hitz egiten duenean: izpiritu orok badu bere soinua, maite du bere soinua. Horrako horrek, adibidez, agitatzaile bat derrigor izan beharra dauka, buru-arin bat, buru-huts⁷⁷ esan nahi dut: hartan sartzen den guztia, zernahi dela ere, soinu sor eta lodi batekin ateratzen da, hutsarte handiaren oihartzunarekin zamaturik. Harako hark nekez ez du ahots erlastuarekin hitz egiten: agian pentsatuz erlastu ote da? Gerta liteke -galde bekie fisiologoei –, baina hitzetan pentsatzen duenak, oratore batek bezala pentsatzen du eta ez pentsalari batek bezala (agerian uzten du, barrenean, ez dituela gauzak, gertakariak pentsatzen, baizik eta gauzei buruz soilik pentsatzen duela, bere burua eta bere entzuleak pentsatzen dituela propioki). Harako hirugarren hark era intsinuatzailan hitz egiten du, gehiegi hurbiltzen zaigu, amasa guganaino iristen da, nahi gabe ixten dugu ahoa, nahiz eta hitz egiteko darabilen bitartekoa liburu bat izan: bere estiloaren soinuak horren arrazoa ematen digu, -ez du astirik, gaizki sinesten du bere buruarengan, edo gaur hitz egingo du edo ez du jadanik hitz egingo. Baina bere buruaz ziur dagoen izpiritu batek emeki hitz egiten du; ezkututasuna bilatzen du, itxaroten edukitzen ditu besteak. Eta filosofoa ezagutzen da hiru gauza distiratsu eta zaratatsutatik aldentzean: fama, printze eta emakumeengandik: horrenbestez ez da esan gauza horiek berarengana etortzen ez direnik. Argi biziegitik aldendu egiten da; horregatik aldentzen da bere arotik eta bere “egun”etik. Horretan itzal bat bezalakoa da: zenbat eta gehiago hondoratu eguzkia, hainbat gehiago handitzen da hura. Bere “umiltasuna”ri dagokionez, filosofoak, iluna jasaten duen bezala, horrelaxe jasaten du halako menpekotasun eta eklipsatze bat: areago, beldur dio tximistak eragindako perturbazioari, izularriz aldentzen da zuhaitz bakartiegi eta abandonatuak duen babesgabeziatik, zeinen gainera eguraldi txar orok bere umore txarra deskargatzen baitu, eta umore txar orok bere eguraldi txarra deskargatzen baitu. Bere “ama”-instintuak, bere baitan ernetzen denarenganako maitasun sekretuak bere baitan pentsatzetik libratuko duten egoerataraz bultzatzen du; emakumearengan dagoen ama-instintuak horren menpetasunezko egoerari orokorrean eutsi dion zentzu berean bezala. Azken finean, filosofo horiek oso gutxi eskatzen dute, hau dute beren goiburu: “poseditzailea da poseditua” –: eta hori, behin eta berriz errepikatu beharra daukat, ez bertutez, ez gartxutasun- eta soiltasun-gogo merituzko batez, baizik eta beren nagusi gorenak hala eskatzen dielako, zuhur eta

⁷⁶ Diogenes Laertioaren arabera, Heraklito Artemisaren tenplura baztertu eta bertan mutikoekin dadotan jokatzeko ari izan omen zen.

⁷⁷ Nietzschek hemen alemanezko bi hitz oso antzekorekin jokatzeko du: *Hohlkopf* (buru-huts) eta *Hohltopf* (lapiko huts) hitzekin.

gupidagabeki eskatzen dielako: berak gauza bakar bat soilik dauka kontuan, eta berarentzat bakarrik biltzen du, berarentzat bakarrik aurrezten du gainerako guztia, denbora, indarra, maitasuna, interesa. Gizaki-mota horri ez zaio gustatzen etsaitasun asalatuak izaterik, ezta adiskidetasunak ere: erraz ahazten edo barkatzen du. Uste du gustu txarrekoa dela martiriarena egitea; “egiaren alde sufritu ” –hori goranahientzat uzten du eta izpirituaren eszenategi-heroientzat eta denbora sobera daukan guztiarentzat (– berek, filosofoek badute egiaren alde zer egina). Urri erabiltzen dituzte hitz handiak; “egia” hitzak berak ere higuina ematen diela esan ohi da: soinu hanpatuegia du... Azkenik, filosofoen kastitateari dagokionez, izpiritu-mota horrek bistan dago bere emankortasuna seme-alabez bestelako zerbaitetan daukala; agian beste leku batean dago beren izenaren iraupena, beren hilezkortasun txikia ere (antzinako Indian filosofoak oraindik modestia gutxiagoko eran espresatzen ziren: “zertarako izan behar ditu ondorengoak mundua bere arima duenak?”). Ez dago honetan ezer eskrupulu aszetikoren batetik edo zentzumenen gorrototik jaiotako kastitatearik, atleta bat edo jockey bat emakumeengandik abstenitzea kastitate ez den bezalaxe: aitzitik, horrela nahi du, haurdunaldi handiko garaietarako gutxienez, beren instintu dominatzaileak. Artista orok badaki, tentsio handi eta prestakuntza izpiritualeko egoeretan, emakumeekin lo egiteak oso ondorio kaltegarria eragiten duela; horien arteko ahaltsuenek, instintu seguruenekoez, ez dute behar, hori jakiteko, esperientzia, esperientzia txarra egitea, – baizik eta beren “ama-” instintua da hemen inolako begirunerik gabe, erabidean dagoen obraren mesedetan, gainerako erreserba eta indar-irainez, animalia bizitzaren vigor-az baliatzen dena: indar handiagoak kontsumitu egiten du orduan indar txikiagoa. – Gainerakoan, argi bedi lehen aipaturiko Schopenhauerren kasua interpretazio honen arabera: bistakoa denez ederraren ikuspenak estimulu askatzaile gisa ziharduen berarengan bere naturaren indar nagusiaren gain (gogoetaren indarra eta begirada sarkorraren gain); halako moldez, non horrek leher egiten baitzuen eta kolpe batez kontzientziaz nagusitzen baitzen. Horrenbestez, ez da inondik ere baztertu nahi egoera estetikoak bereak dituen ezintasun eta betetasun berezi horiek, hain zuzen ere bere jatorria “sentsualitate” osagaian edukitzeko ahalbidea, era berean iturri horretatik ere sortzen denez ezkontzeke dauden neskatilek berezkoa duten “idealismo” hura -eta, horregatik, sentsualitatea ez da ezabaturik gelditzen egoera estetikoak agertzean, Schopenhauerrek uste zuenez, baizik eta itxuraldatu egiten da soilik eta ez da kontzientzian jadanik sexu-estimulu gisa sartzen. (Ikuspuntu honi buruz berriz itzuliko naiz, estetikaren fisiologiaren, gaur arte zientzia hain ukigabea, hain gutxi arakatua den horren arazo delikatuagoekiko erlazioan.)

9

Halako aszetismo bat, ikusi dugunez, erarik gogokoenean egindako ukapen gogor eta bare bat, izpiritalitate gorenaren baldintza faboragarrienen artean aurkitzen dira, baita horren ondorio naturalenen artean ere; horregatik, aldezturik ez da harrigarri gertatuko ideal aszetikoa beraren aldeko halako alderditasun batez beti tratatu izana filosofoek. Azterketa historiko serio batean agerian jarri ere jartzen da ideal aszetikoaren eta filosofiaren arteko lokarria oraindik askozaz estu eta zorrotzagoa dela. Esan liteke ideal horren ibiltresnetan iroztuz bakarrik ikasi duela inondik ere filosofiak bere lehen pauso eta pausotxoak lurrian ematen -ai, hain baldar artean, ai, aurpegi hain atsekabetuarekin, ai, erortzeko eta sabel gainean etzanda gelditzeko hain prest, ai, pertsonatxo hanka oker herabe eta mimoti txiki hori! Filosofiari hasiera batean gauza on guztien gauza bera

gertatu zitzaion, – denbora luzean horiek ez zuten bere burua baieztatzeko adorerik izan, beren ingurura begiratzen zuten ea norbaitek laguntzera etorri nahi ote zuen, areago, begiratzen zieten guztien beldur ziren. Zenbat bitez banan-banan filosofoaren pultsio eta bertute guztiak – bere pultsio zalantzakoa, bere pultsio ukatzailea, bere pultsio igurikatzailea (“efektikoa”)⁷⁸, bere pultsio analitikoa, bere pultsio ikertzailea, bilatzaile, ausarta, bere pultsio erkatzailea, konpentsatzailea, neutraltasun- eta objektibitate-nahimena, beti “sine ira et studio”⁷⁹ [hirarik eta alderditasunik gabe] jokatzeko bere nahimena-: ongi ulertu al da dagoeneko pultsio horiek guztiak, denbora oso luzean, moralaren eta kontzientziaren lehen eskakizunen bila irten zirela? (arrazoiak orokorrean ezer ez esateko, zeini Luterok atsegin baitzuen artean “andre marimaistra, prostituta zuhurra” deitzea.) Ongi ulertu al da dagoeneko filosofo batek, bere buruaren kontzientzia hartu izan balu, “nitimur in vetitum”-en⁸⁰ haragitze bezala sentitu beharko zuela hain zuzen ere – eta ondorioz, “bere burua sentitzetik” gordetzen zela, bere buruaren kontzientzia hartzetik?... Dagoeneko esan dugunez, horixe gertatzen da gaur harro gauden gauza on guztiekin; antzinako grekoen metroaz neurturik ere bai, gure izate moderno guztia, ahulezia ez den heinean, baizik ahala eta ahalaren kontzientzia, hybris [harrokeria sakrilegoa] huts eta inpietate bezala aurkezten da: zeren guk gaur gurtzen ditugun alderantziko gauzak dira, denbora guztiz luze batean, kontzientzia beren alde eta Jainkoa beren jagoletzat eduki dutenak. Hybris da gaur egun gure jarrera naturarekiko, makina, eta teknikari eta ingeniariaren asmamen gogoetagearen bitartez bera bortxatzea; hybris da gaur gure jarrera Jainkoarekiko, esan nahi dut, kausalitatearen ehundura-sare handiaren atzean kokaturiko helburutasun eta etizitatearen ustezko edozein armiarma-sarerekiko – guk esan genezake Charles Ausartak Louis XI. aurkako bere borrokan esaten zuenez, “je combats l’universelle araignée” [armiarma unibertsalaren aurka ari naiz borrokan]–; hybris da geure buruarekiko jarrera, – zeren geure buruarekin ezein animaliarekin baimenduko ez genituzkeen esperimentuak egiten baititugu, eta, aseturik eta jakinminez, arima haragi bizitan ebakitzen dugu: bost axola guri jadanik arimako “osasuna”! Eta ondoren geure burua osatzen dugu: gaixo egotea irakasgarri da, ez dugu horren zalantzarik, osasuntsu egotea baino irakasgarriago, – gaixotzaileak gaur beharrezkoago iruditzen zaizkigu edozein sendatzaile eta “salbatzaile” baino. Guk orain geure burua bortxatzen dugu, ez dago zalantzarik, gu arimaren intxaurrauskailu, gu arazotzaile eta arazotu, bizitza intxaurrak haustea besterik izango ez balitz bezala; hain zuzen horregatik, derrigorrean, egunean egunean arazotuago bihurtu beharra daukagu oraindik, arazotzeko duinago, eta hain zuzen ere horregatik, agian baita duinago ere – bizi izateko?... Gauza on guztiak behiala gauza txarrak izan ziren; jatorrizko bekatu oro jatorrizko bertute bihurtu da. Ezkontzak, esate baterako, komunitate-eskubidearen aurkako prebarikazioaren itxura izan zuen luzaroan; behiala santzio bat ordaintzen zen hain modestiagabea izateagatik eta emakume bat nork beretzat esleitzeagatik (horrekin dago erlazonaturik, adibidez, jus primae noctis-a [lehen gaueko eskubidea], oraindik gaur Kambodian apaizen pribilegio dena “garai bateko ohitura onen” zaintzaile horiena). Sentimendu ezti, onbera, barkabera, errukiorrek -zeinek geroago lortu zuten hain balio garaia, non ia “bere baitako balioak” diren –, oso denbora luzean, beren kontra

⁷⁸ Hitz honek Nietzschek darabilenez “inhibitzaile”, “eradukitzaile” esan nahi du.

⁷⁹ Tazitok *Analak* idazteko orduan hartu zuen goiburua da (I,1).

⁸⁰ Ovidioren esamoldea (3 *Amodioak*, 4, 17): Nitimur in vetitum semper cupimusque negata; sic interdictis imminet aeger aquis [Beti debekatura jotzen dugu eta ukatzen zaiguna desiratzen dugu; horrela gaixoak ur galaraziak zelatatzen ditu.]

buruarbuioa izan zuten: gizakia lotsatu egiten zen otzantasunaz gaur gogortasunaz lotsatzen den modura (ikus bedi “Ongia eta gaizkiaz haraindi”: (153 hh.). Zuzentzarekiko sumisioa: Oi, nolako kontzientzi erresistentziarekin kontra egin zioten lurberako toki guztietan, beren aldetik vendettari [mendekua] uko egin eta beren gainetik kokaturiko eskubide bati ahalmena lagatzeari! “Zuzentza” luzaroan vetitum [debeku] izan zen, delitu bat, berrikuntza bat, bortxarekin agertu zen, bortxa gisa, zeinari gizakiak bere buruaren lotsarekin soilik men egin zion. Lurreko pausorik txikiena ere, behiala izpiritu eta gorputzezko tormentuekin lortu zen: ikuspuntu oso hori “aurrera egiteak ez ezik, ez!, ibiltze soilak berak ere, mugitzeak, aldaketak beren ezin zenbatu ahala martiri behar izan dituztelakoa”, gaur hain zuzen ere, oso estrainio gertatzen zaigu – nik hori Goizalban, (24 hh. nabarmenarazi dut⁸¹. “Ezer ez da hain prezio garestian eresia izan”, esaten da han bertan (25. or.), “non orain gure harrotasuna eratzen duen giza arrazoiaren eta askatasun-sentimenduaren apurra izan baita”. Baina ‘historia unibertsal’aren aurreko ‘ohituraren etizitate’zko denboraldi eskerga haiek, izan zituzten sentimenduak, eta zeinak diren historia nagusi erreal eta erabakigarria, gizateriaren izaera finkatu duena, harrotasun hori da orain ia ezinezko bihurtzen diguna sumatzea: alderdi guztietan sufrimendua bertute, krudelkeria bertute, disimulua bertute, mendekua bertute, arrazoiaren ukapena bertute jotzen zen garaian, eta, aldiz, ongizatea arrisku, jakin-nahia arrisku, bakea arrisku, errukitzea arrisku, errukitua izatea laido, lana laido, erotasuna jainkozkotasun, aldakuntza ez-etiko eta ustelduraz kargatu!”-

10

Liburu berean (41eta hh.) argitzen da zer estimutan, estimuaren zer presiopetan bizi behar izan zuen gizaki kontenplatiboen arraza zaharrenak, -mespreziatua beldurrik ez zitzaion neurri berean! Kontenplazioa lehen aldiz lurrean irudi desgisatu baten azpian agertu zen, itxura anbiguo baten azpian, bihotz gaizto batekin eta, sarritan, buru larritu batekin: horretaz ez dago zalantzarik. Gizaki kontenplatiboen instintuen izate inaktibo, hausnartzaile, ez-gerrariak luzaroan bere inguruan mesfidantza sakona sortarazi zuen: horren aurka ez zegoen norbere buruarenganako beldur erabakia sortaraztea beste baliabiderik. Eta hori jakin zuten egiten, adibidez, antzinako brahmanek! Antzinako filosofoek jakin zuten beren izateari eta beren agertzeari zentzu bat, euskarri bat eta gibelalde bat ematen, zeinetatik haiei beldurra izaten ikasi baitzen; eta gauzak zehaztasun handiagoz haztatuz, oraindik oinarrizkoagoa zen beharizan batengatik egin zuten hura, hau da, haiek beren buruari beldurra eta errespetua hartzeko. Zeren aurkitzen baitzuten beren baitako balio-judizio guztiak beren kontra jarriak zeuzkatela, era guztietako susmo eta erresistentziak gainditu beharra zeukaten “bere baitako filosofo”aren aurka. Aro beldurgarrietako gizaki ziren heinean, hori bitarteko beldurgarriekin egin zuten: beren buruarenganako krudelkeria, asmakuntzatan aberatsa zen buruhilduraztea – hori izan zen eremita horien eta ahalaren irrikitan zeuden pentsatzearen berritzaile horien baliabide nagusia, zeinek lehenik beren barruan jainkoak eta tradizioak bortxatzeko beharizana baitzuten, berek beren berrikuntzan sinetsi ahal izateko. Gogoan dut Viçvamitra⁸² erregearen historia sonatua, zeinek milaka urtetan bere burua torturatu ondoren, hainbesteko ahalmen-sentimendua eta bere buruarekiko konfiantza lortu zituen, non zeru berri bat eraikitzeko prest jarri baitzen: filosofoen historia antzinako eta modernoaren sinbolo

⁸¹ 18. aforismoa da (“borondatezko sufrimenduaren morala”).

⁸² *Ramayana*-ren 5. liburuan ageri da eta tradizioak *Rigvedaren* III. liburua egozten dio.

kezkarriena lurrean, – noizbait zeru berri bat eraiki duen orok aurrena horretarako bere ahalmena bere infernu propioan aurkitu zuen... Bil ditzagun gertakari horiek guztiak formula laburretan: hasieran izpiritu filosofikoak lehen finkaturiko gizaki kontenplatioaren motetan desgisatu eta maskaratu behar izan zuen, apaiz, mago, azti, edozein kasutan ere gizaki erlijioso legez desgisatu behar izan zuen, neurri batean posible izateko bederen: ideal aszetikoak luzaroan balio izan dio filosofoari aurkezpen-era gisa, bere izatearen auresupostu gisa, – ideal hori antzestu behar izan zuen filosofo izan ahal izateko, sinetsi egin behar izan zuen horretan antzestu ahal izateko. Filosofoen jarrera aldendua, mundua bereziki ukatzen duen jarrera, bizitzarekiko etsaikorra, zentzumenekiko sinesgogorra, desentsualdua, azken garaiotara arte mantendu dena eta horregatik bere baitako filosofo-jarrera gisa ia balio izan duena, – jarrera hori batez ere filosofia oro har jaio eta bizi izan zen baldintzen eskastasunaren ondorio bat da: zeren, izan ere, denboraldi oso luze batean filosofia ez baitzen inondik ere posible izango lurrean estaldura eta mozorro aszetiko bat gabe, gaizkiulertze aszetiko bat gabe. Era nabarmen eta begibistakoan esateko: apaiz aszetikoa izan da, azken garaiotara arte, larba-era ilun eta nazkagarria, zeinen azpian filosofiari bizi izateko eta alde batetik bestera alderrai ibiltzeko baimena eman zitzaion bakarra... Benetan aldatu al da hori? Intsektu koloreanitz eta arriskutsu hori, larba hark bere baitan zeukan “izpiritu” hori, azkenerako aske gelditu al da bere bilgarritik eta argitara irten ahal izan al da, mundu eguzkitu, bero, argitsuago bati esker? Ba al dago gaur egun aski harrotasun, ausardia, kemen, norbere buruarekiko segurtasun, izpiritu-nahimen, erantzukizun-nahimen, nahimenaren askatasun, aurrerantzean “filosofoa” errealki – posible izan dadin lurrean?...

11

Eta orain, apaiz aszetikoa bistaratu zaigularik, goazen berriro gure arazoaren gorputzera: zer esan nahi du ideal aszetikoak?, – oraintxe bakarrik jartzen dira “serio” gauzak: aurrerantzean geure aurrean izango dugu seriotasunaren benetako ordezkaria den heinean. “Zer esan nahi du seriotasun guztiak?” – galdera hori, oraindik funtsezkoagoa dena, agian jadanik hemen ahoratzen zaigu: fisiologoentzako galdera, begibistakoa denez, baina oraingoz alde batera utziko dugu. Apaiz aszetikoak ideal hartan ez dauka sinesmena soilik, baita bere nahimena ere, bere ahalmena, bere interesa. Izateko bere eskubidea erabat ideal horrekin dator bat: nola harritu hemen tupust egiteaz arerio beldurgarri batekin, gu ideal haren arerioak garela suposatuz? Arerio beldurgarri bat, bere izatearen alde borrokan ari dena ideal horren ukatzaileen aurka?... Bestalde, alde aurretik bihurtzen da gertagaitza gure arazoarekiko jarrera hain interesatua horrentzat bereziki etekintsua izatea: zaila da apaiz aszetikoa bera, bere idealaren defendatzaile zorionekoena izatea, emakumeak ere “emakumea bere baitan” defendatu nahi izaten duenean porrot egiten duen arrazoi beragatik, -eta askozaz gutxiago izan ahal izango da hemen sorturiko eztabaidaren zentsore eta epaile objektiboena. Horrela, bada, geu izango gara areago berari lagundu beharko diogunak – hori jadanik argi dago- gure kontra bere burua defendatzen, berak gu ongiegi ezeztatuko gaituen beldurra izan ordez... Hemengo borrokaren erdigunea den pentsamendua apaiz aszetikoek gure bizitzaz egiten duten balioespina da: haiek bizitza hau (berari dagokion guztiarekin batera, “natura”, “mundua”, bilakaeraren eta galkortasunaren esfera osoarekin batera) harremanetan jartzen dute existentzia zeharo bestelako batekin, zeinarekiko antitetikoa eta eskluditzaila den, bere buruaren kontra jarri ezean, bere burua ukatu ezean behintzat: kasu

horretan, bizitza aszetikoaren kasuan, bizitza beste existentzia hartarako zubitzat hartzen da. Aszetak bide erratutzat tratatzen du bizitza, hasten den punturaino azkenean berriro desibili behar izaten den hori; edo egintzaren bitartez ezeztatzen den – ezeztatu behar den- errakuntza bat bezala: zeren erakuntza horrek segitzea eskatzen du, eta ahal duenean ezarri egiten du existentziaren bere balioespena. Zer esan nahi du horrek? Balioesteko era hain ikaragarri hori ez dago gizakiaren historian inskribaturik salbuespen eta arrarotasun kasu bat bezala: gertakaririk hedatu eta iraunkorrenetako bat da. Konstelazio urruneko batetik irakurrita, lurreko gure existentziaren maiuskulazko idazkerak agian eramango luke ondoriotzat ateratzera lurra astro egiazki aszetikoa dela, izaki konformagaitz, handinahi eta nazkagarritz, bere buruarenganako gogait sakon batetik erabat gaiezak eta beren buruari, min egitearen atseginarengatik – agian atsegin bakarra dute –, ahal duten min guztia egiten diotenez beteriko bazter bat. Kontsidera dezagun apaiz aszetikoak ia garai guztietan bere agerpena egiten duen era hain erregular, hain unibertuala; ez da arraza jakin batekoa; alderdi guztietan loratzen da; estamentu guztietatik ernetzen da. Ez da agian herentziaz landu eta hedatu duelako bere balioesteko era: alderantziz gertatzen da, aitzitik, – instintu sakon batek debekatzen dio, orokorrean hitz eginez, sorkuntzaz hedatzea. Lehen mailako premia izan behar du behin eta berriz hazi eta lorazten duena bizitzarekiko etsaia den espezie hori, – zalantzarik gabe, bizitzaren beraren interes bat izan behar du horrelako burukontraesate-mota bat ez iraungitzea: bertan parerik gabeko erresumin bat nagusitzen da, instintu asegabe eta ez bizitzan dagoen zerbaitez baizik bizitzaz beraz, bere baldintza sakon, indartsu eta errotikoenez nagusitu nahi duen ahalmen-nahiaren erresumina; horretan indarra erabiltze-ahalegin bat egiten da indarraren iturriak tapatzeko; horretan begirada herratsu eta makur bihurtzen da, loratze fisiologikoaren beraren aurka, eta bereziki horren adierazpenaren, edertasunaren, pozaren aurka; aldiz, porrota, atrofia, sufrimendua, zorigaitza, itsusia, hautazko murriztea, buruukapenean, buruzigorketan, burusakrifizioan ongizate bat sentitzen eta bilatzen da. Hori guztia paradoxazkoa da goren graduan: hemen urraturik egon nahi duen urradura baten aurrean aurkitzen gara, bere burua sufrimendu horretan gozaten duena, eta etengabe bere buruaz gero eta seguru eta garaikorrago bihurtzen duen, gutxitzen duen heinean bere auresupostua, bitalitate fisiologikoa. “Triunfoa azken agonian zinez”: zeinu superlatibo horren azpian borroka egin du betidanik ideal aszetikoak; sedukzio-enigma horretan, estasi- eta tormentu-irudi horretan berrezagutu du bere argi klaruena, bere salbamena, behin betiko bere garaitia. Crux, nux, lux [gurutzea, intxaurra, argia] – horretan gauza bakarra dira.–

12

Demagun kontraesan eta antinaturazko nahimenaren haragitze hori filosofatzera eramana izan dela: zeren gain asaskatuko du bere hautazkotasun barrenekoena? Era guztiz seguruan, egiazkotzat, errealtzat sentitua denaren gainean: errakuntza hain zuzen biziaren benetako instintuak egia erarik baldintzagabeenean ezartzen duen tokian bilatuko du. Adibidez, beheratu egingo du gorputzekotasuna, Vedantaren filosofiako aszetek egin zutenez, lilura kategoriatara, eta gauza bera egingo du minarekin, aniztasunarekin, “subjektu” “objektu” antitesi kontzeptual guztiarekin-errakuntzak, errakuntzak soilik! Bere niari sinesmena ukatu, norbere buruari bere “errealitatea” ukatu – zer triunfoa! –, ez zentzumenen gaineko triunfo soila, arrazoiaren aurkako bortxatze eta krudeltasuna: horrelako atseginkortasunak gailurra harrapatzen du buruarbuio aszetikoak,

arrazoiaren burutrufatze aszetikoak honako hau dekretatzen duenean: “Bada egia eta izatearen erresuma bat, bai, hain zuzen arrazoa hartatik bazterturik dago!...” (Bidenabar esateko: “gauzen izaera adigarria” kantiar kontzeptuan bertan ere bizirik iraun du aszetan urradura likits horretatik zerbaitek, zeini arrazoa arrazoiaren aurka bihurtzea atsegin baitzaio: “izaera adigarria”k esan nahi du Kantengan, izan ere, gauzen eratzeko modu bat zeinetatik endelguak ulertzen duena hain zuzen ere den beretzat – erabat eta zeharo ulertezin gertatzen dela) . – Baina, azken finean, ez gaitezen esker txarreko, izaki ezagutzaile garen heinean, ohiko ikuspegi eta balioespenen alderantzizkatze zakar horiekiko, zeinekin luzaroei izpiritualitate asaskatu duen bere buruaren aurkako sumina itxuraz era sakrilego eta alferrikakoan: gauzak noizbait beste era batera ikustea, beste era batera ikusi nahi izatea, ez da endelguaren diziplina eta prestakuntza txikia bere etorkizuneko “objektibitate”rako, –azken hori ez “kontenplazio desinteresatu” gisa ulerturik (zein, halako den heinean, ez-kontzeptua eta kontrazentzua baita), baizik eta gure alde eta gure kontrak geure menpean ezarrita edukitzeko eta hola edo hala baliatu ahal izateko ahalmen bezala: halako moldez, non jakin dezagun ezagutzaren probetxuan zinez erabiltzen afektuetatik jaiotako ikuspegi eta interpretazioen desberdintasuna.. Hemendik aurrera, filosofo jaunok, hobeki gorde dezagun geure burua, beraz, “ezagutzaren subjektu puru bat, nahimen, min, denbora gabeko bat” sortu duen kontzeptuzko amarru arriskutsu eta zaharretik, gorde dezagun geure burua “arrazoi huts”, “izpiritualitate absolutu”, “norbere buruaren ezagutza” bezalako kontzeptu kontraesankorren erroetatik: – hemen beti eskatzen zaigu inondik ere pentsatua izan ezin daitekeen begi bat pentsatzea, orientaziorik batere ez duen begi bat, zeinean trabaturik egon beharko luketen, absente egon beharko luketen indar aktibo eta interpretatzaileek, zeinek egiten baitute, hala ere, ikustea zerbait-ikustea izatea, hemen beti eskatzen zaigu, beraz, begiaren kontrazentzu bat eta ez-kontzeptu bat. Ikuste perspektibista bat soilik dago, “ezagutze” perspektibista bat soilik; eta zenbat eta handiagoa den gauza bati buruz bere hitza esaten utziko diegun afektuen kopurua, zenbat eta handiago den begien kopurua, gauza bera ikusteko erabiltzen jakingo dugun begi desberdinena, hainbat osoagoa izango da hartaz dugun “kontzeptua”, hainbat osoagoa izango da gure “objektibitatea”. Baina nahimena erabat ezabatzea, afektuen osotasuna esekita uztea, hori egin genezakeela suposatuz: nola? ez ote luke esan nahiko horrek endelgua zikiratzea?...

13

Baina itzul gaitezen atzera. Baina itxuraz aszetarengan agertzen dena bezalako burukontraesate bat, “bizitzaren kontrako bizitza”, zentzugabekeria hutsa da – hori argi eta garbi dago oraingoz – fisiologikoki kontsideraturik eta ez psikologikoki. Burukontraesate hori ezin liteke itxurazkoa baizik izan; behin-behineko adierazpen gisako bat izan behar du, interpretazio bat, formula bat, konponketa bat, zerbaiten gaizkiulertze psikologikoa, zeinaren benetako natura ezin izan zen ulertu, ezin izan izendatua izan luzaroen bere baitan, – hitz soil bat, giza ezagutzaren pitzadura zahar batean txertatua. Eta berari gertakarien errealitatea laburki kontrajartzeko, esan dezagun: ideal aszetikoa endekatzen ari den bizitza baten babes- eta osasun-instintutik jaiotzen da, zeina ahalegintzen den bitarteko guztiekin bere burua iraunarazten, eta borroka egiten du iraunarazteko; paralizatze eta unatze fisiologiko zatikor baten zantzua da, zeinen aurka etengabe borrokatzen baita metodo eta asmakari berriekin, ukigabe dauden bizitzaren instintu sakonenekin. Ideal aszetikoa bitarteko hori da: beraz, bere adozatzaileek pentsatzen dutenaren alderantzizkoa

gertatzen da, – hartan eta haren bitartez bizitzak heriotzarekin eta heriotzaren aurka borroka egiten du, ideal aszetikoa estratagema bat da bizitzaren iraunarazpenean. Ideal hori gizakiaren gain nagusi izan eta hartaz jabetu ahal izatean, historiak irakasten digun neurrian, batez ere zibilizazioa eta gizakiaren hezketa garaile izan ziren leku haietan guztietan, errealtate handi bat adierazten da, orain arte izandako gizaki-motaren izaera gaixotitasuna, gutxienez gizaki heziarena, gizakiak heriotzarekin izan duen borroka fisiologikoa adierazten da (zehatzago esateko: bizitzaren gogaitura, nekadura, “amaia”ren desirarekiko). Apaiz aszetikoa beste-era-batera-izateko, beste-leku-batean-egoteko desiraren haragitzea, desira horren goren gradua da, bere benetako suhar eta grina; baina hain zuzen bere desiratzearen ahala da hemen lotzen duen bilurra, hain zuzen ere apaiz aszetikoa tresna bihurtzen da, lanean aritu behar izango duena, baldintza faboragarriagoak sortzen hemen-izateko eta gizaki-izateko, – ahal horrekin hain zuzen apaiz aszetikoak loturik dauka bizitzan gaizki eratu, gozakaiztu, frustratu, elbarritu, beren baitan pairatzen duten era guztietako artalde osoa, haien aurrean instintuz artzain gisa ibiliz. Ulertzen zait noski: apaiz aszetiko hori, bizitzaren ustezko etsai hori, ukatzaile hori, -hain zuzen ere bizitzako baietzen potentzia iraunarazle eta sortzaileetako da... Zeren menpean dago gaixotitasun hura? Zeren gizakia gaixoago baitago, ziurrezago da, aldaberago, beste edozein animalia baino zehazkabeago, ez dago horretan zalantzarik, – bera da animalia gaixoa: nondik dator hori? Egia da bera ere ausartu egin dela, berritu, desafiatu, afrontatu egin duela destinoa beste animalia guztiek batera baino gehiago: bera, esperimentatzaile handia bere buruarekin, askieza, asegabea, animalia, natura eta jainkoen azken nagusitasuna eztabaidatzen duena, -berak, beti menperagabe oraindik, betiere etorkizuna, jadanik atsedetik aurkitzen ez duena bere indar hertsatzailearen aurrean, horrela bada bere etorkizunak gupidagabe karraskatzen dio orainaldi ororen haragian eztenak bezala: – nola animalia kementsu eta aberats horrek ez zuen izan behar arriskura esposatuena, animalia gaixo guztien artean iraunkorki eta sakonkien gaixotua?... Oso sarritan gizakia okitu egiten da, epidemia osoak daude okiturik egote horretazkoak (– horrela, 1348 aldera, herio-dantzaren garaian): baina goralari hori, nekadura hori, norbere buruarekiko gogait hori bera ere- dena agertzen da hain ahaltsu beragan, non berehalaxe bihurtzen den bilur berri. Gizakiak bizitzari esaten dio ezetzak argitara baietz delikatuagoen multzo bat ateratzen du magiaz bezala; areago oraindik, deuseztapenaren, burudeuseztapenaren maisu horrek bere buruari zauri bat egiten dionean, - ondoren zauria bera da bizitzera hertsatzen duena...

14

Zenbat eta normalagoa den gaixotitasuna gizakiarengan – eta ezin dezakegu normaltasun hori auzitan jar- hainbat gorakiago ohoratu beharko lirateke arima-gorputzezko ahaltsunaren kasu gutxiak, gizakiaren zorian-kasuak, hainbat zorrozkiago babestu beharko lirateke gizaki ongi eratuak den airerik txarretetik, gaixoen airetik. Egiten al da horrelakorik? Gaixoez dute osasuntsuentzat arriskurik handiena; ez datorkie indartsuenengandik ezbeharra indartsuei, ahulenengandik baizik. Jakina al da hori?... Larriki hitz eginez, ez da inondik ere gizakiarenganako beldurra, zeinen murrizpena desiratzea zilegi baitzaigu: zeren beldur horrek indartsuak indartsu izatera hertsatzen baititu, eta kasu batzuetan beldurgarri izatera, -tente eusten dio gizaki-mota ongi eratuari. Beldurra izan beharrekoa, beste edozein zorigaitzek baino ondorio zorigaitzekoagoak sortzen dituena, ez litzateke beldur handia, baizik gizakiaren aurreko nazka handia: baita

gizakiarenganako erruki handia ere. Demagun egun batean biak ezkondu egiten direla, berehalaxe sartuko litzateke munduan, era saihestezinean, erabat parte txarrekoa den zerbait, gizakiaren “azken nahia”, bere ezerez-nahia, nihilismoa. Eta, izatez, horretarako asko dago prestaturik. Usnatzeko bere sudurra bakarrik ez, bere begi eta belarriak ere badauzkanak, gaur egun hurbiltzen den ia toki guztietan eroetxe-aire, eritetxe-aire gisako batek ufa egiten du, – begibistakoa denez, gizakiaren kultur eremuez ari naiz, “Europa” espezie oroz, zeina ia lur guztira hedatu den. Gaixotiak dira gizakiaren arriskua: ez gaiztoak, ez “animalia harrapariak”. Aldez aurretik elbarrituak, menperatuak, triskatuak –horiek dira, ahulenak dira gizakien artean bizitza gehien hondatzen dutenak, arriskutsuen pozoitzen dutenak eta bizitzarekiko, gizakiarekiko, geure buruarekiko gure konfiantza auzitan jartzen dutenak. Zer tokitan ihes egin lekiok horri, begirada belatu horri, tristura sakon bat sortarazten digun horri, hasieratik gaizki jaiorearen atzerantz bihurturiko begirada horri, delako gizaki horrek bere buruari hitz egiteko modua salatzen duen begirada, –hasperen bat den begirada horri? “Ai banintz ni beste edozein!, horrela egiten du hasperen begirada horrek: baina ez dago inolako itxaropenik. Naizena naiz: nola ihes egin niezaiok neure buruari? Eta, hala ere, –okiturik nago neure buruaz!...”. Buruarbuioaren alor honetan, benetako lur zingiratsua den horretan, belar txar oro hazten da, landare pozoitsu oro, eta hori guztia oso txiki, oso ezkutu, oso jator, oso eztikor. Hemen barra-barra ibiltzen dira mendeku eta herraren sentimenduen harrak; hemen airea kirasturik dago gauza sekretu eta aitorrezinez; hemen konjura makurrenaren sarea etengabe ehotzen da, –ongi eratu eta garaikorren aurka sufritzen dutenen konjura, hemen garaikorraren itxura gorrotatu egiten da. Eta zenbat gezurtitasun gorroto hori gorroto dela ez aitortzeko! Zer zarrastelkeria hitz handi eta jarrera afektatuzkoa, zer artea difamazio “justifikatuzkoa”? Jende gaizki eratu horiek: bai bokantza noblea dariela ezpainetatik! Zenbat entrega azukretu, lika, umil dabilkien igeri begietan! Zer nahi dute benetan? Gutxienez justizia, maitasuna, jakinduria, nagusitasuna antzeztu -hori da “behereneko”, gaixo horien gutizia! Eta bai trebe bihurtzen dituela gutizia horrek! Mirets dezagun ezer baino lehen hemen bertutearen moldea imitatzen duen txanpon-faltsutzaileen trebezia, txintxina bera, bertutearen urrezko soinua bera ere bai. Orain bertutea akuratu dute esklusiban berentzat, ahul eta gaixo sendaezin horiek, ez dago zalantzarik: “gu bakarrik gara onak, justuak, diote, gu bakarrik gara homines bonae voluntatis”⁸³[borondate oneko gizonak]”. Gure artean biraka dabilta ahakar bizidun gisa, guri zuzenduriko larderia legez, – erakuntza ona, sendotasuna, harrotasuna, botere-sentimendua bere baitan gauza biziotsuak bailiran: noizbait pekatu beharreko gauzak bailiran, garrazki pekatu beharrekoak: oi, zeinen prest dauden barrenean pekarazteko, nolako irrika duten borrero izateko! Horien artean piloka daude mendekatiak epailez mozturoriturik, beren ahoan etengabe “justizia” hitza daramatenak listu pozoitsu gisa, beti ezpainak estururik dauzkatena eta begirada deskontentua ez daukan eta beren bidetik aurrera egiteko aldartea ez duen guztiari ttu egiteko. Halaber ez da falta beraien artean banitatetsuen ilor iruzurtien espezie nazkagarri hori, “arima ederren” papera egin nahi dutenena ere eta, adibidez, merkatuan erakusten dute, “bihotz-garbitasun” gisa, beren sentsualitate narriatua, bertso eta beste haurroihaletan batzuetan bildua: onanista moralen eta “beren burua asetzen dutenen” espeziea. Edozein nagusitasun-era ordezkatzeko gaixoen nahia, osasuntsuen gaineko tirania batera gidatuko duten bide malkarrak

⁸³ *Lukas* 2, 14. “Aintza zero gorenean Jainkoari eta bakea lurrean berak hain maite dituen gizon-emakumei!”. EAB-an itzulpena horrela ageri bada ere, latinezko “homines bonae voluntatis” (borondate oneko gizon) bezala itzuli izan da.

bilatzeko beren instintua, – zein lekutan ez da aurkitzen, hain zuzen ere ahulen ahalmen-nahi hori! Batez ere emakume gaixoa: inork ez du menperatzeko, zapaltzeko, tiranizatzeke errefinamenduan gainditzen. Emakume gaixoak ez du errespetatzen, helburu hori lortzeko, ezer bizirik, ezer hilik, berriro lurpetik ateratzen ditu gauzarik lurperatuenak (bogoek diote: “Emakumea hiena bat da”). Eman bekio begiratu bat familia bakoitzaren, korporazio bakoitzaren, komunitate bakoitzaren gibelaldee: alderdi guztietan gaixoen osasuntsuen aurka daramaten borroka – borroka isila, ia beti hauts txiki pozoitsuekin, orratz-ziztadekin, etsituen pantomima azpikariekin egina, baina batzuetan keinu ozenetara jotzen duen gaixoaren fariseukeria harekin egina ere bai, ezer baino lehen “sumindura noblea” antzeztea atsegin duen fariseukeria. Zientziaren sail sakratuetan beraietan ere txakur gaixotien zaunka erlastua entzunarazi nahiko litzateke, fariseu “noble” horien gezurtitasuna eta amorru hozkaria (belarriak dituzten irakurleei berriro gogorarazten diet mendekuaren apostolu berlindar hura, Eugen Dühning, zeinek gaur eguneko Alemanian bum-bum moralaren erabilpen gisagabe eta nazkagarriena egiten baitu: Dühning, gaur dagoen moralaren lehen ahohandia, bere parekoen, antisemiten artean ere bai)⁸⁴. Erresuminaren gizakiak dira horiek guztiak fisiologikoki elbarritu eta pipituriko izakiak, lurpeko mendekuaren inperio lurtar dardarati oso bat, agortezina, aseezina zorionekoen aurkako leherduratan eta, halaber, mendekuaren maskaradatan, mendekurako aitzakiatan: noiz lortuko lukete egiazki mendekuaren triunfo guren, sotil eta atzena? Zalantzarik gabe, beren miseria, oro har miseria guztia zorionekoei kontzientzian sarraraztea lor lezatenen: halako moldez, non horiek egun batean beren zorionaz lotsatzen has litezen eta agian elkarri esan liezaioten: “desohore bat da zorientsu izatea!, miseria gehiegi dago!...” . Baina ezin liteke egon gaizkiulertze handi eta kaltegarriagorik zorionekoak, ongi eratuak, gorputz eta arimaz ahaltsuak horrela zorientasunerako beren eskubidea zalantzan jartzen hastean datzana baino. Utikan “alderantzitara jarritako mundu hori”! Utikan sentimenduaren biguntze desohoragarri hori! Gaixoak ez dezala gaixo jar osasuntsua -eta horixe esan nahiko luke biguntze horrek – horrek izan beharko luke ikuspuntu gorena lurrean: – baina horretarako beharrezko da, ezer baino lehen, osasuntsua gaixoarengandik bereizi egotea, gaixoa ikustetik ere gordeta, horrekin nahas ez dadin. Edo agian beren eginkizuna erizain edo mediku izatean datza?... Baina hori litzateke beren eginkizuna ezezagutu eta ukatzeko erarik txarrena, -garaiagoa ez da endekatu behar baxuagoaren tresna izatera, distantziaren pathosak bereizirik eduki behar ditu era berean, betiera osoan, bi eginkizunak. Osasuntsuek izateko duten eskubidea, ozentasun guztia duen kanpaiak kanpai hautsiaren, soinu kraskatukoaren aldean duen lehentasuna, izan ere, eskubide bat eta lehentasun mila bider handiago bat: horiek bakarrik dira etorkizunaren erresak, horiek bakarrik daude hitzarturik gizakiaren etorkizunerako. Horiek egin dezaketena, horiek egin behar dutena sekula ez lukete egin ahal eta behar izango gaixoen: baina osasuntsuek berek bakarrik egin behar dutena berek egin ahal izan dezaten, nola legokieke baimendurik gaixoen mediku, kontsolatzaile, “salbatzaile” gisa jardutea?... Eta horregatik, aire garbia! aire garbia! Eta, edozein kasutan, kulturaren eroetxe eta ospitale guztien hurbiltasunetik urrun! Eta, horregatik, konpainia ona, gure konpainia! Edo bakardadea, behar izanez gero! Baina edozein kasutan, barne-ustelduraren miasma kaltegarrietatik eta gaixoen pipitze ezkutukotik urrun!... Horrela geure burua defendatzeko, ene adiskideok, gutxienez denboraldi batean oraindik, guretzat zinez

⁸⁴ Ikusi aurreko oharra.

erreserbatu egon litezkeen bi kutsatze txarrenetatik, -gizakiarekiko nazka handitik!, gizakiarenganako erruki handitik!...

15

Baldin ulertu bada bere sakonera guztian -eta nik eskatzen dut hain zuzen ere hemen sakon aitzurtzea, sakon ulertzea- zer puntutaraino osasuntsuen eginkizuna ezin litekeen izan, inondik ere, gaixoak zaintzea, gaixoak sendatzea, horrekin beste premia bat gehiago ulertu izango da, – beren buruak gaixo dituzten mediku eta erizainak egoteko premia: eta orain badugu eta bi eskuez oratzen dugu apaiz aszetikoaren zentzua. Salbatzaile aurredestinatutzat, artalde gaixoaren artzain eta babesletzat hartu behar dugu hori: horrela bakarrik ulertzen dugu bere eginkizun historiko eskerga. Sufritzen dutenekiko nagusitasuna du bere erresuma, nagusitasun horretara gidatzen du bere instintuak, horretan du bere arte propioena, bere maisutasuna, bere zorientasun-espeziea. Berak gaixo egon behar du, gaixo eta ajeatuekin erotik ahaideturik egon behar du haiek ulertzeko, – beraiekin ulertzeko; baina indartsu ere izan behar du, bere buruaren jaunago izan behar du besteena baino areago, hau da, ukitugabe eutsi behar dio bere ahalmen-nahiari, gaixoen konfiantza eta beldurra edukitzeko, horientzat sustengua, erresistentzia, eskakizuna, zigorra, tiranoa, jainkoa izan ahal izateko. Berak babestu egin behar du bere artalde hori -noren aurka? Osasuntsuen aurka, ez dago zalantzarik, baita osasuntsuenganako bekaitzetik ere; osasun eta ahaltsun zakar, ekaiztsu, balaztagabe, gogor, bortxazko, animalia harrapariei dagokien ooren kontragile natural eta mespreziatzaile izan behar du. Apaiza da animalia delikatuenaren lehen forma, gorrotatzea baino mespreziatzea errazago gertatzen zaiona. Ez da dispentsaturik egongo animalia harrapariei gerra egitetik, bortxarena baino maltzurtasunarena (“izpiritu”arena) areago den gerra bat, begibistakoa denez, – horretarako batzuetan animalia harrapariaren ia mota berri bat bere baitan gatzatzeko premia izango du edo, gutxienez halakotzat adieraztearena, – animalia beldurgarritasun berri bat, zeinean izotzetako hartza, leopardo elastiko, hotz, ataizekoa eta, neurri ez txikiagoan, azeria kideturik agertzen baitira batasun beldurgarri bezain erakargarrian. Demagun premiak behartu egiten duela, apaiza, gainerako animalia espezieen artean agertuko da, hartzakiro serio, errespetagarri, adimentsu, hotz, bere engainuengatik nagusi, aginpide misteriotsuagoen heraldo eta bozeramaile gisa, lursail horretan ereiteko erabakiarekin, ahal duen tokian, sufrimendua, liskarra, burukontraesanak, eta, erabat ziur bere arteaz, sufritzen ari direnen jabe bihurtzeko edozein unetan. Ukendu eta baltsamoak dakartza berekin, ez dago zalantzarik; baina mediku izateko aurrena zauritu beharra dauka; zauriak sortutako mina ibitzen duen bitartean, pozoitu egiten du hori aldi berean -zeren horretaz, batez ere, ulertzen baitu animalia harraparien liluratzailerik eta hezle horrek, zeinen inguruan osasuntsu den oro derrigorrean gaixo bihurtzen baita, eta gaixo den oro derrigorrean otzan bihurtzen. Izatez, ongi samar babesten du bere artalde gaixoa, artzain estrainio honek, -bere buruaren kontra ere babesten du, artaldean bertan errauspean sutan dauden makurkeria, gaiztakeria, gaizkinahiaren kontra, eta paziente eta gaixo guztiekin amakomunean dituen gainerako gauzen kontra, era adimentsu, gogor eta sekretuan borroka egiten du aldioro artaldean ernatzen diren anarkiaren eta burudisolibapenaren kontra, zeinean etengabe pilatuz baitoa gai detonatzaile eta leherkor guztiz arriskutsu hori, erresumina. Gai leherkor horri bere karga kentzea, artaldea eta artzaina airean barrena ez saltarazteko moduan, hori du bere benetako trebezia, baita bere baliagarritasun gorena ere; formula guztiz labur batean

bildu nahiko balitz apaiz-izatearen balioa, besterik gabe hau esan beharko litzateke: apaiza erresuminaren norabide-aldatzailea da. Sufritzen duen orok, izan ere, instintuz bilatzen du bere pairatzearen kausa bat; edo, zehatzago esateko, kausatzaile bat, edo, doitasun gehiagoz adierazirik, kausatzaile zordun bat, sufritzeko gai dena -hitz batean, bere afektuak asaskatu ahal izateko zerbait bizia, edozein aitzakiarekin, errealitatean edo in effigie [irudian]: zeren afektuen asaskatzea sorgortze ahalegin handiena baita, hau da, sufritzen duenaren durditzearena, era guztietako tormentuen aurka nahigabe desiratzen duen narcoticum-a. Erresumina, mendekua eta horren kideen egiazko kausalitate fisiologikoa, nik susmatzen dudanez, horretan bakarrik bilatu behar da, hau da, afektu bidez mina sorgortze-gogoan: -eskuarki kausalitate hori bilatzen da, oso erratuki nire iritziz, defentsazko kontraukaldi batean, erreakzioaren neurri babesle soil batean, lesio bat eta supituko mehatxu bat agertzean burutzen den “mugimendu erreflexu” batean, igel lepamoztu batek azido kaustikoari ihes egiteko oraindik egiten duenaren antzekoa. Baina aldea funtsezkoa da: kasu batean mina hartzen jarraitzea eragotzi nahi da, bestean min torturatzailerik, sekretu, pixkanaka toleraezin bat sorgortu nahi da, emozio zakarrago baten bitartez, zeinahi gisakoa delarik ere, eta kanporatu, une hartan behintzat, kontzientziatik, – horretarako afektu bat behar da, ahalik eta afektu basaena, eta, kitzikatzeko, aitzakiarik lehena eta hoberena. “Norbaitek izan behar du errudun ni gaizki egotearena” -arrazoiketa gisako hori gaixoti guztiek dutena da, eta hori hainbat gehiago, zenbat eta gehiago ezkututzen zaien beren gaizki-sentitzearen egiazko kausa, kausa fisiologikoa (-hori egon liteke, adibidez, nervus sympathicus-aren lesio batean, edo behazunaren jariatze eznormal batean, edo odoleko sulfato eta fosfatoen pobrezia batean, edo odolaren zirkulazioa kongestionatzen duten behe-sabelaren opresio-egoeratan, edo obarioen endekapen batean, eta antzeko gauzetan). Sufritzen dutenek, guztiek, badute ikaragarritzko aurre-disposizio bat eta aitzakiak asmatzeko gaitasun bat efektu mingarrietarako; beren begitazioekin gozatzen dute, eskakeria eta itxurazko kalteen gainean hausnarrean ibiltzearekin gozatzen dute, beren iraganeko eta beren oraindaldiko erraiak nahas-mahasten dituzte, historia ilun eta anbiguenen bila susmo torturatzailerik baten gozamenen murgildu eta gaiztakeriaren pozoiarekin berarekin horditzeko -zauri zaharrenak irekitzen dituzte, aspaldi orbainduriko ebatondoetatik odola darie, adiskidea, emaztea, semea eta berengandik hurbil aurkitzen duten guztia gaiztagin bihurtzen dute. “Ni sufritzen ari naiz: norbaitek izan behar du horren errudun” – horrela pentsatzen du ardi gaixoti orok. Baina bere artzainak, apaiz aszetikoak, esaten dio: “Ongi dago, ene ardia!, norbaitek izan behar du horren errudun: baina zeu zara horren errudun bakarra – zeu zara zeure buruaren errudun bakarra!...” Hori ausart samarra da, faltsu samarra: baina horrenbestez gutxienez gauza bat lortu da, horrekin erresuminaren norabidea, esan denez, aldatu egin da.

16

Orain igartzen zaio, nire ideiarekin arabera, bizitzaren instintu sendatzailea zer ahalegindu den lortzen apaiz aszetikoaren bitartez, eta zertarako balio izan dion, hala nola “errua”, “bekatua”, “bekatuzkotasuna”, “ustelkeria”, “kondenazioa” bezalako kontzeptu paradoxazko eta paralogikoen tirania pasakorrek: neurri bateraino gaixoak kaltegabe bihurtzeko, sendaezinak beraietaz baliatuz suntsitzeko, gaixo arinak zorrotasunez berengana orientatzeko, haien

erresumina atzeraorientatzeko (“Gauza bakarra da beharrezko” –)⁸⁵ eta horretara burudiziplina, buruzainketa, burugaindipena lortzeko helburuarekin sufritzen duten guztien instintu txarrenak ustiatzeko. Begibistakoa denez, gisa horretako “medikazio”a, afektu hutsezko medikazioa, ezin liteke inondik ere izan gaixo-sendatze erreala zentzu fisiologikoan; ez litzateke zilegi ere izango bizi-instintuak hemen nolabait sendatze bat nahi izan edo lortzeko ahaleginik egin duenik baieztatzea. Gaixoen samaldatze eta antolatze gisako bat, alde batetik (– ”Eliza” hitza da hitzik herritarrena hori izendatzeko), erakuntza osasuntsueneko, hobekien gatzaturiko gizakien behin behineko preserbatze gisako bat, bestetik, amildegi baten sorrera, beraz, osasuntsua eta gaixoaren artean -horixe izan zen dena luzaroan!, eta asko zen!, izugarri !... (Ikusten denez, tratatu honetan auresupostu batetik abiatzen naiz, zein nik behar ditudan irakurleekin ez baitut alde zurretik zuri bidetu beharrik: gizakiarengan “bekatuzkotasuna” izatezko errealitate bat ez delakoa, baizik eta izatezko errealitate baten interpretazioa, hau da, ondoez fisiologiko batena, – azken hori ikuspegi erlijioso-moral batetik ikusita, zeinek guretzat ez baitauka inolako indar loteslerik. – Norbait “errudun”, “bekatari” sentitzeagatik, ez dago besterik gabe frogaturik inondik ere arrazoia duenik horrela sentitzeko. Gogora bitez sorginen aurkako prozesu sonatuak: epaile argikusle eta humanitarioenek ez zuten zalantzarik orduan han errua bat zegoelakoaz; sorginek berek ez zuten hartaz zalantzarik, – eta, hala eta guztiz ere, errua falta zen⁸⁶. – Adieraz dezagun auresupostu hori era orokorragoan: “arimako mina” bera nik ez dut inondik ere izatezko errealitatez hartzen, orain arte formulazio zehatzik ez duten izatezko errealitateen interpretazio bat bezala soilik [interpretazio kausala]: eta hortaz oraindik erabat airean dagoen eta zientifikoki loteslea ez den zerbait bezala, – izatez, hitz lodi bat haril-ardatz bat bezain argala den galde-zeinu baten lekua hartzen duena soilik. Norbait “arimako min” batetik libratzen ez denean, hori ez dago, zakar esateko, bere “arima”ren menpean; gertakorrakoa da bere sabelaren menpean egotea (zakar hitz eginez, esan dudanez: horrenbestez ez dut adierazten inondik ere zakarki entzun, zakarki uler dakidanik desira dudala...) Gizaki senda eta ongi eratuak digeritu egiten ditu bere bizipenak (egintzak, okerkeriak barne) bere otorduak digeritzen dituen bezala, nahiz eta mokadu gogorak irentsi behar izan. Bizipen bat “bukatzeko” ez duenean, indigestio gisako hori bestea bezain fisiologikoa da – eta sarritan, izatez, bestearen ondorio fisiologikoa soilik. – Horrela pentsatuz ere, hala ere, jarrai liteke izaten, hemen geure artean esateko, materialismo ororen arerio zorrotzena...).

17

Baina apaiz aszetiko hori benetan medikua al da? – Dagoeneko ulertu dugu zer neurritaraino ozta den zilegi horrela izendatzea, nahiz eta berari atsegin zaion bere burua “salbatzaile” gisa sentitzea eta halakotzat gur dezaten uzten duen. Sufrimendua bera, sufritzen duenaren desplazerra borrokatzen du berak, ez horren kausa, ez benetako gaixo egotea, – horrek izan behar du gure printzipiozko eragozpenik handiena apaizen medikazioaren aurka. Baina apaizak ezagutzen duen eta daukan ikuspegi bakar horretan kokatu ondoren, bertatik ikusi, bilatu eta aurkitu den guztia mirestea nekez amaitzen da. Sufrimenduaren ibitzea, era guztietako “kontsolamenduak”, – hori

⁸⁵ Lukas, 10, 42. Jesusek Martari esandako hitzak.

⁸⁶ Ideia bera adierazten du *Zientzia pozkariotsua* obrako 250. aforismoan.

apaizaren jenialtasuna bezala agertzen da: nolako asmamenaz ulertu duen bere kontsolatzaile-egitekoa, zeinen era zabar eta ausartez hautatu dituen horretarako bitartekoak! Bereziki, kristautasunaz zilegi litzateke esatea altxorraren ganbara handi bat bezalakoa dela kontsolatzeko bitarteko txit burutsuz betea, hainbeste baitira bertan metaturik dauden gauza azkargarri, ibigarri, narkotizagarriak, hainbeste baitira gauza txit arriskutsu eta harrigarriro menturazkoak ausarki helburu horrekin ekindakoak, hain handiak izan dira horien sotiltasuna, horien errefinamendua, horien errefinamendu hegoaldearra bereziki aztiatzeko zer afektu estimulagarri motaz menpera daitekeen, denboraldi batean behintzat, depresio sakona, nekadura berunezkoa, fisiologikoki ezinduen tristura beltza. Zeren termino orokorretan hitz eginez: erlijio handi guztietan zeregina, funtsean, halako epidemia bat bihurturiko nekadura eta astuntasunaren aurkako borroka izan da. Aldez aurretik ezar daiteke egiantzekotzat, noizean behin, lurreko toki jakinetan, masa zabalez ia ezinbestean jabetu behar duela butxatze-sentimendu fisiologiko batek, baina jakite fisiologikoaren faltaz, sentimendu hori ez da halakotzat kontzientzian sartzen, halako moldez, non horren “kausa”, baita bere erremedioa ere, bide moral-psikologikoz soilik bilatu eta entseia baitaitezke (– hori da, izan ere, nire formula orokorrena eskuarki “erlijio” deitzen dena izendatzeko). Butxatze-sentimendu horrek jatorri desberdinak izan ditzake: beren artean heterogeneoegiak diren arrazen beren arteko gurutzatze baten ondore izatea, adibidez (edo estamendu desberdinena – estamentuek jatorri eta arrazazko desberdintasunak adierazten dituzte beti: europar “min kosmikoa”, XIX. mendeko “ezkortasuna”, funtsean, estamentuen zentzugabeki bat-bateko nahastearen ondoreak dira); edo emigrazio hutseginak baldintzaturik egotea -klima batean eroritako arraza zeinentzat bere moldatze-indarra ez baita aski gertatzen (Indiako indiarren kasua); edo arrazaren zahartze eta nekatzearen ondorioa (paristar ezkortasuna 1850. urteaz geroztik); edo janeurri faltsu batena (Erdi Aroko alkoholismoa; begetarianoen zentzugabekeria, zeinek beren alde Christoph gentleman shakespearearraren autoritatea baitute); odolaren usteltzea, malaria, sifilia, eta antzekoak (alemaniar depresioa Hogeita Hamar Urteko Gerratearen ondoren, zeinek Alemania erdia kutsatu zuen gaitz txarrez eta horrela lurra prestatu zion alemaniarren morrontzakeriari, alemaniarren txepelkeriari). Kasu horietan behin eta berriz ahaleginak egiten dira, estilorik handienarekin, desplazerezko sentimendua borrokatzen; laburki informa gaitzen bere praktika eta era garrantzizkoenez. (Erabat alde batera uzten dut hemen, naturala denez, filosofoen benetako borroka desplazerezko sentimenduaren aurka, beti aldiberekoa izan ohi dena – interesgarri samarra izaten da, baina zentzugabezia, axolagabezia praktikarekiko, armiarma-saretsu eta zer-asmazkoegiak; adibidez, mina errore bat dela, errorea hartan berrezagutu bezain laster minak desagertu beharko omen lukeelako auresupostu inozoaren pean frogatu nahi denean – baina gauza arraroa!, desagertzetik gorde egin zuen bere burua...) Desplazer nagusikoi horri lehenik bizi-sentimendua orokorrean mailarik beherekoeneraino deprimitzen duten bitartekoez borroka egiten zaio. Ahal denean, inolako nahirik, inolako desirarik gehiago ez; afektua sortzen duen, “odola” sortzen duen guztiari ihes egin (ez jan gatzik: fakirren higieña); ez maitatu; ez gorrotatu; ekuanimitatea; ez mendekatu; ez aberastu; ez lan egin; eskean egin; ahal den heinean, emakumerik ez, edo ahalik eta emakume gutxien: aspektu izpirituean Pascalen printzipioa “il faut s’abêtir”⁸⁷ [aberetu egin behar da]. Emaitza, termino psiko-moraletan adierazia: “buruukapena”, “santutzea”; termino fisiologikotan adierazia: hipnosia, – animalia espezie

⁸⁷ *Gogoetak*, 136.

batzuentzat negu-loa dena eta alderdi torridoetako landare askorentzat uda-loa diren hori gutxi gora-behera lortzeko ahalegina, materia eta metabolismoaren kontsumo gutxiena, zeinean biziak ozta-ozta jarraituko bailuke, baina kontzientziara iritsi gabe. Helburu hori lortzeko giza energia kantitate harrigarri bat erabili da -alferrik agian?... Ez dago inondik ere zalantzan jartzerik “santutasuna”ren sportsmen [kirolari] horiek, garai guztietan ugari izan direnak, ia herri guztietan, izatez hain training [trebakuntza] gogorrekien borrokatzen zuten horretatik askapen erreala aurkitu dutela, -ezin zenbatu ahala kasutan errealki askatu ziren depresio fisiologiko sakon hartatik beren hipnotizazio-bitartekoen sistemaren laguntzarekin: hortik beren metodika gertakari etnologiko orokorren artean aurkitzea. Halaber, ez dago inolako eskubiderik pentsatzeko jadanik gosearen bitartez gorputzekotasuna eta irritsa menperatzeko asmoa eromen-sintoma bat denik (“librepentsalari” eta Cristoph gentleman roastbeef-irensleen espezie baldar bati pentsatzea atsegin zaionez). Hainbat ziurragoa da, aldiz, asmo hark balio duela, era guztietako perturbazio izpiritualak, “barne-argiak”, adibidez, Athos Mendiko ⁸⁸hesikastoetan gertatzen denez, sortarazteko balio duela, soinu eta formen haluzinazioak, sentsualitatearen gainezkatzeko atseginkoi eta estasiak (Santa Teresaren historia). Afektatuek bere egoera horiez ematen dituzten azalpenak pentsa litekeen fantastiko eta faltsuena izan dira beti, begibistakoa denez; baina ez bedi oharkabea pasa esker on guztiz konbentzitzuzko tonuak egiten duen durundi jadanik interpretazio-mota hori emateko nahimenean. Egoera gorena, berrerospena bera, hipnotizazio erabateko hura eta azkenean lorturiko azken gelditasun hura, haiek beti bere baitako misteriotzat hartzen dituzte, zein adierazteko ez baitira aski ezta sinbolo jasoenak ere, gauzen barrenera itzuli eta bihurtzeaz, hitz egiten dutenak bezalakoak lilura orotatik askatzeaz, “jakiteaz”, “egiaz”, “izateaz”, xede, desira eta egintza ororekiko desatxikitzeaz, ongia eta gaizkiaz haraindi batez ere. “Ongia eta gaizkia, dio budistak, – biak kateak dira: biei nagusitu zitzaizen perfektua”; “eginak eta egin gabeak, dio Vedantaren sinestedunak, ez diote inolako minik sortzen; ongia eta gaizkia bere buruagandik jakintsu batek bezala astintzen ditu; bere erresumak ez du jadanik ezein egintzarengatik pairatzen; berak ongia eta gaiztoa gainditu egin ditu, biak gainditu ditu”: – kontzepzio erabat indiarra, beraz, budista bezain brahmanikoa. (Ez mentalitate indiarak, ez mentalitate kristauak, ez uste dute “berrerospen” hori bertutez, hobekuntza moralez lorgarria denik, nahiz eta oso goi jartzen duten bertutearen balio hipnotizatzailea: ez bedi ahantz hori – gainerakoan, gertakarien errealtateari dagokio besterik gabe. Puntu horretan egiazko irauñ izana agian hiru erlijio gorenetan, gainerakoan hain erroitik moralizatutan, dagoen errealismoaren zatirik hoberentzat hartu behar da agian. “Iniziatuarentzat ez dago inolako betebeharririk...” “Bertuteen agregazioz ez da berrerospena burutzen: zeren hori Brahmarekin bat egitean baitatza, ezein perfekzio-agregaziorako gaieza denarekin: eta akatsen deposizioarekin ere ez da burutzen; zeren Brahma, zeinekin bat egitea berrerospena baita, betiraunkorki garbia da” – horiek Çankararen Iruzkineko pasarteak dira, Paul Deussen nire adiskideak, Europan dagoen filosofia indiarren lehen ezagutzaile errealak aipatuak)⁸⁹. Errespetatu egingo dugu, beraz, “berrerospena” erlijio handietan;

⁸⁸ Mendebaleko kietisten antza zeukan sekta bat. Estasia lortzeko begiak zilborrean finkatzen zituzten, arnasari eutsiz, eta orduan argi distiratsu bat, apostoluek Tabor mendian ikusitakoa bezalako ikusten zutelakoan zeuden.

⁸⁹ Paul Deussen (1845-1919) Nietzscheren ikaskidea izan zen Pforta eta Bonnen. Gerora Kielen irakasle eta indiar filosofiaren itzultzaile eta agertzaile izan zen. 1887an, Nietzsche *Moralaren genealogia* obra idazten ari

aldiz, zail samarra gertatzen zaigu serio egotea bizitzaz nekatu horiek, amets egiteko ere nekatuegi horiek, lo sakonaren eskaintzen duten estimazioarekiko, – hau da, lo sakona Brahman sartze bezala ulertua, unio mystica lortua [batze mistiko] bezala Jainkoarekin.”Bera erabat lokartu denean -esaten da horretaz “Idazki” antzinakoen eta gurgarrienean –, bera erabateko atsedenera iritsi denean, halako moldez, non jadanik ez baitu lotan inolako imajinarik ikusten, orduan, oi maitea, iritsi da badenarekin batzera, bere baitan sartu da, – berbera ezagutzaileak inguraturik, ez du jadanik inolako kontzientziarik kanpoan edo barruan dagoenaz. Zubi hori ez dute ez egunak ez gauak zeharkatzen, ez zahartzaroak, ez heriotzak, ez sufrimenduak, ez obra onak, ez obra gaiztoak”. “Lo sakonean, diote halaber erlijio honetako sinestedunek, zein baita hiru erlijioetan sakonena, arima gorputzetik kanpora igo, argi gorenean sartu eta, horrela, bere irudi propioan agertzen da: hemen bera txantxetan eta jostari eta gozatzen alderrai dabilen izpiritu gorena bera da, bai emakumeekin, edo karrozekin, edo adiskideekin, hemen bera ez da pentsamenduarekin itzultzen gorputzaren eranskin honetara, zeini prana (bizi-hatsa) loturik baitagokio gurtaberea gurdari bezala”. Guztiarekin ere, hemen ere ez dugu ahaztu behar, “berrerospen”aren kasuan bezala, honekin barrenean zera bakarrik adierazten dela, nahiz eta bapikatze orientalaren handiostasunarekin izan, Epikuro luzido, hotz, helendarki hotz baina nahikoarekiko identikoa den preziazio bat: ezerezaren sentimendu hipnotikoa, lorik sakonenaren atsedena, hitz batean, sufrimenduaren absentsia – sufritzen dutenei, errotik destrenpatuei zilegi zaie hori ongi gorentzat hartzea, balioen baliotzat, zerbait positibotzat preziatu behar dute, positiboa bera bezala sentitu behar dute. (Sentimenduaren logika horren berorren arabera, ezerezari, erlijio ezkor guztietan, Jainko deitzen zaio.)

18

Sentsibilitatearen, minberatasunaren hipnosizko hilduratze global hori baino maiztasun handiagoarekin, indar arraragoak auresuposatzen dituen hilduratze bat, kuraia, iritziaren mesprezioa, “estoizismo intelektuala”, depresio-egoeren aurka bestelako training [trebaketa] bat erabiltzen da, zeina den, edozein kasutan, errazagoa: jarduera makinala. Ez dago inolako zalantzarik izate sufriztaile bat horrela arindurik gelditzen dela gradu ohargarrian: gertakari horri gaur egun, egiatitasun gutxi samarrekin, “lanaren onespena” deritzo. Arintzea datza sufritzen duenaren interesa sufrimendutik metodikoki aldendurik gelditzen dela, -zeinean kontzientzia inbaditzen baitu era iraunkorrean egite batek eta berriz ere egite batek bakarrik, eta, ondorioz, tarte txikia gelditzen da bertan sufrimendurako: zeren meharra baita giza kontzientziaren ganbara hori! Jarduera makinala eta horrekin erlazionatzen dena -erregulartasun erabatekoa, esanekotasun puntual eta gogoetagabea, behin betiko bizimodu bat lortzea, denbora mukuruturik edukitzea, halako baimen bat, areago, “inpersonalitate”rako hazkuntza bat, nork-bere-burua-ahazteko, “incuria sui”rako ⁹⁰[nork bere burua zabartzea] -: zeinen era sakon eta delikatuan jakin duen apaiz aszetikoak gauza horiek minaren aurkako borrokan erabiltzen! Behe-estamentuetako

zela, bisita egin zion Sils-Mariara eta *Die Sûtras des Vedânta* (Berlin, 1887) sanskriteratik itzulitako liburu argitaratu berria eman zion. Hartatik jasotzen ditu egileak aipuak.

⁹⁰ Geulincx-en esamoldea da, Nietzschek K. Fischer-en liburutik jasoa: “Humilitas est incuria sui. Partes humilitatis sunt duae: inspectio sui et despectio sui” [Umiltasuna nork bere burua zabartzea da. Umiltasunaren parteak bi dira: nork bere burua aztertzea eta nork bere burua mesprezatzea.] 41. or.

pertsona sufritzaileekin tratatu behar zuenean hain zuzen, lanaren esklabo edo presoekin (edo emakumeekin: zein, kasurik gehienetan, bi gauzak batera baitira, lanaren esklabo eta preso), apaiz aszetikoak abilezia txiki bat baino askoz gehiago ez zuen behar izaten izenak aldatu eta gauzak birbataiatzeko, une horretatik aurrera, arintze bat ikusarazteko, zoriontasun erlatibo bat gauza gorrotatutan: -esklaboak bere zoriarekiko duen kontentagaiztasuna ez da, edozein kasutan, apaizek asmatua izan. – Depresioaren aurkako borrokan oraindik bitarteko preziatuago bat poz txiki bat preskribatzean datza, erraz eskuratzekoa eta arau bihur daitekeena; medikazio hori maiz erabiltzen da aurrez aipatuarekiko loturan. Erarik sarriena, zeinean horrela poza sendabidetzat preskribatzen baita poza-eragitearen poza da (hala nola: mesedeak egin, opariak egin, arindu, lagundu, pertsuaditu, kontsolatu, goretsi, adeitasunez tratatu); “hurkoarenganako maitasuna” preskribatzean, apaiz aszetikoak horrekin barrenean pultsio indartsuenaren, bizitzaren baieztatzaileenaren estimulazio bat preskribatzen du, nahiz eta dosi oso arretazkoan, ahalmen-nahiaren estimulazio bat. Mesede egite orok, soroste, laguntze, adeitasunez tratatze orok berekin duen “nagusitasun minimo”aren zoriontasun hori, fisiologikoki ezinduek baliatzen duten pozbide sarriena da, ongi aholkatuak daudela suposatuz: alderantziko kasuan, elkarri min egiten diote, jakina, oinarrizko instintu berari obedituz. Kristautasunak erromatar munduan izandako hasierak ikertzen direnean, elkarri laguntzeko elkarteak aurkitzen dira, behartsuei, gaixoei laguntzeko elkarteak, lurperatzeak egitekoak, orduko gizartearen lurzorurik beherekoenean sortuak; elkarte horietan kontzientzia betean, depresioaren aurkako bitarteko nagusi hori erabiltzen zen, hau da, poz txikia, elkarri on egitearen poz txikia, – agian hori orduan zerbait berria zen, egiazko aurkikuntza bat? Horrela sustatutako “elkarrekikotasun nahimen” horretan, artalde bat, “komunitate” bat, “zenakulu” bat eratzeko nahimen horretan, horrela estimulatutako ahal-nahimen horretan, nahiz eta gradu minimoan, bere aldetik irrupzio berri eta askozaz osoago batera iritsi behar du: artaldegintza funtsezko pauso eta garaitia dira depresioaren aurkako borrokan. Komunitatearen hazkuntzak sendotu egiten du, gizabanakoarentzat berarentzat ere, interes berri bat, zeinek oso maiz eramaten baitu bere gogaitaren, bere buruarenganako aiherraren (Geulincx-en “despectio sui”) elementu guztiz pertsonalaz harantzago. Gaixo guztiek, gaixoti guztiek instintuz jotzen dute, desplazer sorra eta ahulezi sentimendua beren gaineratik astintzeko desira batez, antolakuntza gregario baterantz: apaiz aszetikoak igarri egiten dio instintu horri eta sustatu egiten du; artaldeak dauden tokian, ahulezi instintua da artaldea nahi izan duena, eta apaizaren adimena antolatu duena. Zeren ez baita hori oharkabean pasatu behar: beharrian naturalez jotzen dute indartsuek disoziatzera ahulek asoziatzera adina; lehenak elkartzen direnean, hori egintza agresibo orokor bati eta bere ahal-nahimenaren asetze orokor bati begira soilik gertatzen da, kontzientzia banakoaren erresistentzia handiarekin; aldiz, azkenak taldekatu egiten dira, zinez taldekatzeko horrekiko plazerrean, -beren instintua horrenbestez ibiturik gelditzen da, “jaun” jaioen (hau da gizaki deituriko animalia harrapari bakartien espeziea den horren), instintua barrenean antolakuntzak sumindurik eta artegaturik uzten duen adina. Oligarkia ororen azpian beti ezkutaturik – historia osoak irakasten du – irritis tiranikoa dago; oligarkia oro kordokatu egiten da etengabe gizabanako orok hartan jokoan jarri behar duen tentsioarengatik irritis hori menperatzen jarraitu ahal izateko. (Hori gertatzen zen, adibidez, Grezian : Platonek ehun pasartetan testigatzen du, Platonek, bere kideak ezagutzen zituenak -baita bere burua ere...)

Orain arte ezagutu ditugun apaiz aszetikoaren bitartekoak – bizi-sentimenduaren iratopen osoa, jarduera makinala, poz txikia, batez ere “hurkoarenganako maitasuna”, antolakuntza gregarioa, komunitatearen ahalaren sentimenduaren itzarpena, zeinen ondorioz gizabanakoak bere buruarekiko duen gogaita isildurik uzten baitu komunitatearen loratzean sumatzen duen plazerrak – bitarteko horiek dira, metro modernoaz neurturik, bere bitarteko errugabeak desplazerraren aurkako bere borrokan: itzul gaitzen bitarteko interesgarrietara, “errudun”etara. Horietan guztietan gauza bakarraz tratatzen da: sentimenduen desbalaztatzeren batez, -kondizio minezko, sor, geldiarazle, luzatuaren aurka hildurazte-bitarteko guztiz eraginkor gisa erabilia; horregatik apaiz-asmamena auzi bakar honen azterketa sakonean agortezina izan da: “zer bitartekoz lortzen da sentimenduen desbalaztate bat?”... Horrek soinu gogorra du: argi dago soinu atseginagoa izango lukeela eta agian hobeki belarrietaratu litzatekeela baldin banio, adibidez, ”apaiz aszetikoa beti baliatu izan da afektu indartsu guztietan dagoen suharraz.” Baina zergatik jarraitu gure moderno emetuen belarri bigunduak laztantzen? Zertarako amore eman, urrats bakar bat ere, geure aldetik, horien hitz-tartufokeriari? Guretzat psikologoontzat horretan balegoke jadanik egintzaren tartufokeria bat; nazka emango ligukeelakoa alde batera utzirik. Psikologo batek, gaur egun, bere gustu ona du (-beste batzuek nahiago dute esan: bere zintzotasuna), nonbait izatekotan, gizakiaren eta gauzen epaitze moderno oro likiskiro kutsaturik dagoen berbategi lotsagarri moralizatuari kontrajartzean. Bada ez dezagun geure burua engaina horri buruz: arima modernoen, liburu modernoen bereizgarriak propioena eratzten duena ez da gezurra, baizik eta errugabetasun zaharkitua bere gezurtasun moralistaren barruan. Berrito “errugabetasun” hori alderdi guztietan aurkitu behar izatea – hori da seguraski gure lanaren, lan guztiaren parterik higuinarriena, bere baitan problematikotasun gutxikoa ez dena, gaur egun psikologo batek men egin beharrekoa; gure arrisku handiaren parte bat da, -agian zuzenean nazka handira eramango gaituen bide bat da... Nik ez dut inolako zalantzarik zein den gauza bakarra, zeinarako liburu modernoek (suposatuz iraungo dutela, zeina, hori bai, ez den beldurtzekoa, eta suposatuz halaber izango dela noizbait ondorengotza bat gustu zorrotzago, gogorrago, osasuntsuago batez hornitua) balio izango duten, -gauza bakarra, zeinerako balioko bailioke ondorengotza horri moderno den orok: okagarritarako, -eta hori bere gozakoitze eta faltsukeria moralen indarrez, bere feminismo guztiz intimotik, zeinek atsegin baitu bere burua ”idealismo”tzat kalifikatzea, eta, edozein kasutan ere, idealismoa dela sinestea. Gure gaurko jakintsuek, gure “onek”, ez dute gezurrik esaten -hori egia da; baina horrek ez ditu ohoratzen! Benetako gezurra, gezur petoa, erresolbitua, “jatorra” (zeinen balioaz Platoni entzun baitakioko)⁹¹, horientzat zerbait zorrotzegia, bortitzegia litzateke, horiei eskatzea zilegi ez den zerbait eskatuko luke, hau da, beren buruaren aurka begiak irekitzea, beren baitako “egiazkoa” eta “gezurrezkoa”ren artean bereizten jakitea. Horiei ongi doakien gauza bakarra jatortasunik gabeko gezurra da: gaur bere burua “gizaki on” sentitzen duen oro erabat gaieza da zerbaiti aurre egiteko jatortasunik gabeko gezurtasunez izan ezik, gezurtasun amildegizkoz, baina gezurtasun errugabe, xalo, inozo, bertutetsuz. “Gizaki on” horiek, -horiek guztiak orain moralizaturik daude oinetik bururaino, eta, jatortasunari dagokionez, narriaturik eta alferrikaldurik gelditu dira betiera guztirako: horietako zeinek jasango luke oraindik egiarik “gizakiari buruz”!.. Edo, zehatzago galdetzeko, horietako zeinek jasango luke egiazko biografia

⁹¹ *Politeia* obrako zenbait pasartetan Platonek gezurraren balioaz hitz egiten du.

bat!... Hona zantzu banaka batzuk: Lord Byronek oso gauza pertsonalak utzi ditu idatziak bere buruaz. Baina Thomas Moore “onegia” zen haientzat: sutara bota zituen bere adiskidearen paperak⁹². Badirudi Gwinner doktoreak, Schopenhauerren hilburuko-betearazleak ere gauza bera egin duela: zeren Schopenhauerrek ere bere buruaz eta agian bere buruaren kontra (GRIEGO) zenbait gauza idatzirik utzi baitzituen⁹³. Thayer amerikar nekagaitzak, Beethovenen biografoak, bat-batean alto bat egin zuen bere lanean: bizitza ohoragarri eta inozo horren halako puntu batera heldurik, ez zuen gehiago jasan ...⁹⁴. Moraleja: zein gizaki argik idatziko luke gaur egun oraindik hitzerdirik bere buruaz? -Ausardia Santuaren ordenakoa izan beharko luke. Richard Wagnerren autobiografia bat agintzen zaigu: nork du zalantzarik autobiografia zuhurra izango delakoaz?⁹⁵. Gogora dezagun oraindik Janssen apaiz katolikoak sortu zuen izudura komikoa, Erreforma protestante alemaniarren mugimenduen bere imajina hain harrigarriro koadrikulatu eta kaltegabearekin⁹⁶; zer ez ote litzateke gertatuko norbaitek noizbait mugimendu hori beste era batera kontatuko baligu, baldin eta egiazko psikologo batek egiazko Lutero kontatuko baligu, ez noski herri txikiko elizgizonaren sinpletasun moralistarekin, ez noski historialari protestanteen ahalke gozokoi eta kontsideratuarekin, baizik, esate baterako, Taine baten erako izukaiztasunarekin, arimaren sendotasun batetik abiatu eta ez sendotasunarekiko barkaberatasun zuhur batetik?... (Alemaniarrek, bidenabar esateko, azken aldi honetan aski ongi ekoiztu dute azken horren tipo klasikoa, -beren buruari egotz diezaiokete, onerako erreibindika dezakete: beren Leopold Ranke⁹⁷, causa fortior [kausa indartsuago] ororen advocatus [abokatu] jaio eta klasiko hori, “objektibo” adimentsuen artean adimentsuena.)

20

Baina dagoeneko ulertu bide zait: -ez al da egia, gauzak oro har harturik, aski arrazoi dagoela guk psikologok geure burua aska dezagun gaur egun geure buruaren kontrako halako mesfidantza batetik?... Seguraski gu ere oraindik “onegiak” gara geure lanbiderako, seguraski gu ere oraindik biktimak, harrapakinak, garaiko gustu moralizatu horren gaixoak gara, nahiz eta horren mespreziatzailetzat ere badaukagun geure burua-; seguraski gu ere kutsatzen gaitu oraindik gustu horrek. Zeren kontra jartzen zuen ataizean diplomatiko hark bere kideei hitz egitean? “Batez ere, jaunok, geure lehen mugimenduez mesfida gaitzen!, zioen, onak izaten dira ia beti...”. Psikologo orok ere gaur horrela hitz egin beharko lieke bere kideei... Eta horrekin geure arazora

⁹²Nietzschenk bazuen Thomas Moore, Medwin eta Dallasek idatzirik Byroni buruzko obraren alemanezko itzulpena bere liburutegian. Thomas Moore (1779-1852), poeta musikari irlandarra, Byronen biografiaren egilea da.

⁹³W. Gwinner (1825-1917) harreman estuak izan zituen Schopenhauerrekin eta horren lehen biografoa izan zen. (GRIEGO) hitzek izenburu horrekin Schopenhauerrek utzitako eskuizkribuaren erreferentzia egiten dute.

⁹⁴A.W. Thayer (1817-1897), diplomatiko eta musikologo amerikarra. Beethovenen bizitza idazteko Vienan bere herrialdearen enbaxadan lana eskuratu zuen eta berrogei urte eman zituen bere obra idazten.

⁹⁵R. Wagnerren *Mein Leben* [Nire bizitza] autobiografia ez zen 1911 arte argitaratu, baina Nietzschek alde zuzenetik ezagutzen zuen.

⁹⁶J. Janssen *Geschichte des deutschen Volkes seit dem Mittelalter* [Alemaniar herriaren historia Erdi Arotik hasita] obrak zortzi liburuki ditu (1878-1894) eta XVI eta XVII. mendeetan Alemanian sentituriko ondorearen eragileak protestanteak izan zirela frogatzen ahalegintzen da.

⁹⁷Leopold von Ranke (1795-1886), alemaniar historialaria, Berlingo Unibertsitateko irakaslea. Bere obra nagusia *Deutsche Geschichte im Zeitalter der Reformation* [Alemaniaren historia Erreformaren garaian] da

itzultzen gara, zeinek izan ere doitasun apur bat, mesfidantza apur bat eskatzen baitu, batez ere “lehen mugimenduen” aurka. Ideal aszetikoa sentimenduaren desbalaztatzeko asmo baten zerbitzuan: -aurreko tratatua gogoan duenak dagoeneko funtsean igarri ahal izango dio orain azalduko dugunaren zazpi hitz horietan kondentsaturiko edukiari: Giza arima bere erro guztietatik atera, izularri, hotzikara, suhar eta estasitan murgilarazi, halako moldez, non, tximistak joa bezala, desplazatzen, letargo, gogaitak berekin dituzten kaxkarkeria eta ziztrinkeria guztiaz bere burua askatuko duen: zein dira helmuga horretara gidatzen duten bideak? Eta zein dira seguruenak?... Barrenean afektu handi guztiak, kolera, beldurra, atseginkoitasuna, mendekua, itxaropena, triunfoa, etsipena, ankerkeria, horretarako gai dira, supituki leher egingo dutela auresuposatuz; eta izatez apaiz aszetikoak bere zerbitzuan hartu du, inolako erreparorik gabe, gizakiaren baitan dagoen txakurteria basa osoa, eta batzuetan bata jaregiten du, eta beste batzuetan, bestea, beti ere tristura geldotik gizakia zuzperrarazteko helburu berarekin, bere min sorrari, bere miseria ezbaitiari, denboraldi baterako behinik behin, ihes eragiteko, eta hori beti interpretazio eta “justifikazio” erlijioso baten azpian egiten du. Mota horretako desbalaztatze sentimentalak bere prezioa kobratzen du, begibistan dagoenez -gaixoa gaixoagotu egiten du-: eta horregatik minaren erremedio gisako hori, neurri moderno batez epaiturik, espezie “errudun” bat da. Hala eta guztiz ere, hainbat gehiago hisiatu beharra daukagu, zeren horrela eskatzen baitu ekitateak, zeinean kontzientzia onarekin erabili baitzen, zeinean apaiz aszetikoak preskribatu baitzuen guztiz sakonki bere onuran, areago oraindik, bere izaera ezinbestekoan sinetsirik, -eta, maiztasun handi samarrarekin, ia bera ere amilduz berak sortzen zituen minezko deitoreen artean; esan dezagun era berean gehiegikeria horien errebantxa fisiologiko suharrek, eta agian baita perturbazio izpiritualek bere ere, ez dutela kontraesaten berez barrenean medikazio gisako horren zentzu orokorra: zeren, lehen erakutsi dugunez, horrek ez baitzuen gaitzak sendatzera jotzen, baizik depresioaren desplazerrari aurka egitera, hura arintzera, lokarraraztera. Helburu hori horrela ere lortzen zen. Apaiz aszetikoak bere buruari baimentzen zion amarru nagusia musika arrotzaileria eta estasizko gisa oro durundiarazteko – mundu guztiak daki hori – erru-sentimenduz baliatzean zetzan. Horren jatorria aurreko tratatuak laburki seinatu du -animali psikologiako atal bat bezala, hori besterik ez balitz bezala: horretan erru-sentimendua, nolabait esateko, egoera gordinean bezala aurkeztu zaigu. Apaizaren eskuetan soilik, erru-sentimendutan artista den horrenetan, iritsi zen forma izatera -oi, zer forma! “Bekatua” – zeren horrela deritza animalien “kontzientzia txarra”ren (atzerantz bihurturiko krudelkeriaren) apaiz-berrinterpretazioak- izan da orain arte jazoerarik garrantzitsuena arima gaixotuaren historian: horretan daukagu interpretazio erlijiosoaren trikimailu arriskutsu eta kaltegarriena. Gizakiak, bere baitan sufritut nolabait, edozein kasutan ere modu fisiologikoan, kaiola batean itxita dagoen animalia baten gisara gutxi gora-behera, argiro jakin gabe zergatik eta zertarako, arrazoiak aurkitzeko irrikitan -zeren arrazoiak arindu egiten baitute-, eta erremedioak eta narkotikoak aurkitzeko irrikitan ere bai, azkenerako aholkua eskatzen dio ezkutukoa ere ezagutzen duen norbaiti, eta hona hemen adierazpen bat jasotzen duela, bere aztiarengandik, apaiz aszetikoarengandik, bere sufrimenduari buruzko “kausa”z lehen adierazpena: bere barruan bilatu behar duela, erru batean, iraganeko parte batean, bere sufrimendua zigor-egoera bezala ulertu behar duela... Dohakabeak entzun du, ulertu du: inguruan marra bat ezarri dioten oiloarena gertatzen zaio: ez da marra-zirkulu horretatik irteten: gaixoa “bekatari” bihurtu da...”. Eta orain ez gara gaixo berri horren, bekatariaren itxuratik libratzen, zenbait milurtetan -inoiz libratuko ote gara?-, noranahi begiratzen dela ere, edonon ageri da

bekatariaren begirada hipnotikoa, beti norabide bakarrean mugitzen dena (“erru”ranzko norabidean, sufrimenduaren kausalitate bakartzat hartzen den horretarantz). Alderdi guztietan, kontzientzia txarra, piztia lazkarri hori [grewliche thier], Luteroren hitzekin esateko; alderdi guztietan, iragana berriz hausnartua, egintza desitxuratua, “begizkoa” edozein jarduterentzat; alderdi guztietan, sufrimendua gaizki-ulertu nahia, bizitzaren eduki bihurturik, sufrimendua erru-, beldur-, zigor-sentimendu gisa berrinterpretatzea; alderdi guztietan, diziplinak, zurdutza, gosez hiltzen utzitako gorputza, hildura; alderdi guztietan gurgilaren suplizioa, kontzientzia artega, gaixoti likits baten gurgil krudela bere buruari ezartzen dion bekataria; alderdi guztietan tormentu mutua, beldur ezin gehiagokoa, bihotz martiriotuaren agonia, zorientasun ezezagun baten karranpak, “berrerospena” eskatzen duen oihua. Izatez, prozedura-sistema horrekin depresio zaharra, astuntasun zaharra eta neke zaharra errotik gainditzea lortu zen; berriz ere bizitza oso interesgarri bihurtu zen: itzarrik, betierean itzarrik, logabe, irazeki, kiskaldu, unatu, eta, ahal ere, nekatu gabe - horrela portatzen zen gizakia, misterio horietan iniziatu-ko “bekataria”. Desplazerraren aurkako borrokan azti zahar eta handi horrek, apaiz aszetikoak -begibistan dago garaile atera zela, bere erreinua heldua zen: jendea ez zen jadanik minaren aurka kezkatzen, baizik eta irrikatu egiten zuten: “Min gehiago ! Min gehiago !”, horrela oihu egin zuten mendetan bere dizipulu eta iniziatuen irrikiak. Kaltea eragiten zuten sentimenduaren desbalaztatze oro, hautsi, nahastu, zanpatu, estasiratu, liluratu zuten guztia, tortura-ganbaren misterioa, infernuaren beraren asmamena – hori guztia aurkiturik, aztiaturik, baliaturik zegoen orain, dena belaginarekin zerbitzura zegoen, aurrerantzean denak bere idealaren, bere ideal aszetikoaren garaipenerako balio izan zuten... ”Nire erreinua ez da mundu honetakoa”⁹⁸ -jarraitzen zuten esaten orain lehen bezala: egiazki ba al zuten eskubiderik horrela hitz egiten jarraitzeko?... Goethek baieztatu zuten hogeita hamasei egoera tragiko bakarrik daudela⁹⁹: horrek aukera ematen du, beste ezer jakingo ez bagenu ere, Goethe ez zela apaiz aszetikoa izan igartzeko. Horrek – kopuru handiagoa ezagutzen du...

21

Apaiz-medikazio mota horretaz guztiaz, mota “errudunaz”, edozein kritika-hitz soberan dago. Sentimenduaren horrelako desbalaztatzea, apaiz aszetikoak kasu honetan bere gaixoei preskribatu ohi izan zuenez (izenik santuenen pean, ulertzen da, eta bere helburuaren santutasunaz konbentziturik gainera), gaixoren batentzat onuragarria izan dela, nork luke horrelako baieztapen bati eusteko atsegini? Gutxienez ados jarri beharko litzateke “onuragarri izan” esamoldeaz. Horrenbestez esan nahi bada tratamendu-sistema horrek gizakia hobetu egin duela, orduan ez dut ezer egoztekorik: soilik niretzat “hobetu”k zer esan nahi duen gehitzea – ”bezatu”, “ahuldu”, “lurreratu”, “errefinatu”, “bigundu”, “irendu” (hau da, ia kaltetuk adina...). Baina gaixoak kontraeginak, deprimituak direnean nagusiki, sistema horrek gaixoa gaixoagotu egiten du, “hobeki” jartzen duela suposatuz ere; galde bekie zoroen medikuei zer ondorio ekartzen duen beti tormentu pekatzaileak, hildurak eta berrerospen-karranpak metodikoki ezartzeak. Galde bekio halaber historiari: apaiz aszetikoak gaixoei tratamendu hori ezarri dien alderdi guztietan, gaixotitasuna haziz joan da beti sakoneran eta hedaduran bizkortasun makurrez. Zein izan da beti “arrakasta”? Nerbio-sistema desegin bat, jadanik gaixo zegoen guztiari gehitua; eta hori bai

⁹⁸ Joan, 18,36.

⁹⁹ *Eckermannekiko elkarrizketak* (1830, otsailaren 14a)

handiengan eta bai txikiengan, bai gizabanakoan eta bai masetan. Pekatze- eta berrerospen-
trainingaren [trebakuntza] atzetik egundoko epidemia epileptikoak aurkitzen ditugu, historiak
ezagutzen dituen handienak, San Vito eta Donibaneko dantzari ertarotarrenak bezalakoak¹⁰⁰; bere
eraginaren beste era bat bezala, paralisi lazkarri eta depresio iraunkorrak aurkitzen ditugu,
zeinekin batzuetan herri baten edo hiri baten (Geneba, Basilea) adiurrea eraldatzen den, behin
betiko, lehen zenaz bestelakora; -horkoa da era berean sorginen historia ere, loibiltaritzaren
antzeko zerbait (1564 eta 1605 bitartean soilik horien zortzi leherketa epidemiko handi-);
aipaturiko training-aren atzean heriotza irrikatzen zuten eldarnio kolektiboak aurkitzen ditugu
halaber, zeinen oihu lazkarria “evviva la morte” [gora heriotza] Europa osoan barrena entzun zen,
batzuetan idiosinkrasia atseginkoiek eta beste batzuetan idiosinkrasia suntsitzaileek etena: eta
efektu-aldaketa hori berori, supituko aldizkotasun eta eraldakuntza berekin, nabarmentzen da gaur
egun ere alderdi guztietan, non bekatuari buruzko doktrina aszetikoak beste behin triunfo handi
bat lortzen duen (neurosi erlijiosoa “gaiztoa izatea”ren era bat bezala agertzen da: horretaz ez dago
zalantzarik). Zer da neurosi hori? Quaeritur [galdetzen da]. Larriki hitz eginez, ideal aszetikoa eta
bere kultu sublimeki morala, sentimenduen desbalaztatzearen bitarteko guztien sistematizazio guztiz
asmamentsu, guztiz zabar eta guztiz arriskutsu hori asmo santuen azpian era ikaragarri eta
ahaztezinean inskribatu da gizakiaren historia osoan: eta, zoritxarrez, ez historian soilik.... Nik ez
nuke jakingo seinalatzen ezer osasuna eta arraza-kemena, batez ere europarrena, suntsigarriago
kaltetu duen beste ezer; zilegi da, inolako bapikatzerik gabe, benetako patu deitzea europar
gizakiaren osasunaren historian. Gehienera ere eragin bereziki germaniarrarekin konpara liteke:
Europaren pozoitze alkoholikoaz ari naiz, gaur egun arte germaniarren nagusigo politiko eta
arrazazkoaren pauso berean zorrozki joan dena (horiek beren odola txertatu zuten tokian, beren
bizioak ere txertatu zituzten). – Saileko hirugarren osagaitzat sifilia aipatu beharko litzateke –
magno sed proxima intervalo [tarte handira, baina oso hurbil].

22

Apaiz aszetikoak usteldu egin du arimako osasuna nagusi izatera iritsi den toki guztietan, eta,
ondorioz, usteldu egin du gustua halaber, in artibus et litteris [arteetan eta letretan] –oraindik
usteltzen jarraitzen du. “Ondorioz?”. Espero dut “ondorioz” hori besterik gabe onartuko zaidala;
gutxienez ez dut eskaini nahi hemen horren froga. Datu bakar bat: kristau literaturako oinarriko
liburuaz, bere benetako ereduaz, “bere baitako liburua”z. Oraindik distira greko-erromatarren
erdian, liburu-distira ere bazen horretan, artean zimeldu eta hondatu gabeko mundu literario baten
aurrean, artean liburu batzuk irakurtzea posible zen aro batean, zeinen jabe izatearren gaur egun
literatura osoen erdiak emango genituzkeen, agitatzaile kristauen sinpletasun eta banitatea –
Elizako gurasoak deitzen zaie- jadanik dekretatzera ausartu zen: “Guk ere badugu geure literatura
klasikoa, ez dugu grekoena behar”, -eta hori esatean harrotasunez adierazten ziren elezahar-
liburuak, apostoluen gutunak eta apologiazko tratatutxoak, gutxi gora-behera gaur egun
“Salbamen Armada” ingelesak, antzeko literatura batekin, Shakespeare eta beste “jentil” batzuen
aurka borroka egiten duen antzeratsu. Nik ez dut atsegin Itun Berria, igartzen da; ia artegatu egiten
nau hain bakarrik aurkitzea neure gustuarekin guztiz estimatua, guztiz gainestimatua den obra

¹⁰⁰ *Tragediaren jaiotza* obran, I. kapituluan, Nietzschek gai horri berorri buruz hitz egiten du.

literario horrekiko (milurtetako gustua nire kontra dago): baina zer erremedio geratzen zait! “Hemen nago ni, ezin dut besterik egin”¹⁰¹ – neure gustu txarraren kuraia dut. Itun Zaharra -bai, hori zeharo bestelakoa da: nire errespetu guztia Itun Zaharrari! Hartan gizaki handiak aurkitzen ditut, paisaje heroikoa eta lurrian oso arraroa den zerbait, bihotz indartsuaren xalotasun paregabea; areago oraindik, herri bat aurkitzen dut. Aldiz, Itun Berrian, sekta-arazotxoak bakarrik, arimaren rokokoa bakarrik, arabeskoz apainduriko gauzak bakarrik, angelutsuak, estrainioak, konbentikulu-giro hutsa, ezintasun bukolikozko tartekako hats bat ahaztu gabe, zein arokoa (eta erromatar probintziakoa) baita eta judu baino helenistiko areago. Umiltasuna eta hanpuruskeria, hertsiki elkarri lotuak; ia gortzailea den sentimenduaren berritsukeria bat; grinakortasuna baina ez grina: mimika neketsua; hemen heziera on oro falta izan da bistan dagoenez. Nola eman lekieke, akats txikiei gizakitxo pietatetsu horiek ematen dieten garrantzia! Inor ez da horiez arduratzen; eta askoz gutxiago Jainkoa. Amaitzeko, probintziako jendetxo horiek guztiak “betiko bizitzaren koroa”¹⁰² bera ere eduki nahi dute: zergatik?, zertarako? – ez dago modestia eza urrunago eramaterik. Petri “hilezkor” bat, nork jasango luke! Barre eragiten duen handinahiaren jabe dira: jende horiek mastekaturik ematen dizkigute beren arazorik pertsonalenak, beren tentelkeriak, tristurak eta nagi-kezkak, gauzen-bere-baita horretaz kezkatzera beharturik balego bezala, jende horiek ez dira nekatzen sarturik dauden nahigabe txikienetan ere Jainkoa nahasteaz. Eta etengabe Jainkoarekin hika hitz egite hori gustu ezin txarragokoa da! Jainkoarekiko mutur – eta hanka-ezagupide judu, eta judua bakarrik ez den hori!... Badira Asiaren ekialdean “jentil-herri” txiki eta mespreziatuak, zeinetatik lehen kristau horiek funtsezko zerbait ikasi ahal izango zuketean, errespetuaren kontu pixka bat; misiolari kristauek testigatzen dutenez, herri horiek Jainkoaren izena ahoskatzeko ere ez dute baimenik hartzen. Hori gauza delikatu samarra iruditzen zait: egiaz delikatuagia gertatzen da ez “lehen” kristaumentzat bakarrik: kontrastea hautemateko, gogora bedi, esaterako, Lutero, Alemaniak eman duen “etorri handieneko” eta modestia gutxieneko baserritarra, eta tonu luterarra, hain zuzen ere Jainkoarekiko elkarizketetan erabiltzen atseginen zuena. Elizaren santu bitartekariari Lutero zien kontrakarra (batez ere, “aita santu, deabruaren urdama” horri) bere azken hondoa, ez dago horretaz zalantzarik, Elizaren gustu hieratikoen errespetuzko etiketa hura gaitzi zaitzaion traukil baten kontrakarra besterik ez zen, zeinek jende iniziatuago eta isilagoi bakarrik baimena ematen baitie santurik santuenean sartzeko, eta aldiz traukilei sarbidea ixten baitie. Behin betiko, hain zuzen hemen horiek ez dute hitz egin behar – baina Lutero, baserritarrak, gauzak zeharo bestelako era batean nahi zituen, hari ez zeritzon aski alemaniar: batez ere, zuzenean hitz egin nahi zuen, berak hitz egin, “zeremoniarik gabe” hitz egin bere Jainkoarekin... Eta, jakina, egin egin zuen. – Ideal aszetikoa, igartzen zaio, ez zen izan inoiz eta inongo tokitan gustu onaren eskola, gutxiago oraindik manera onena, -kasurik hoberenean, manera hieratikoen eskola izan zen –: horrek egiten du bere baitan manera on guztiekiko heriozko etsaikortasuna duen zerbait izatea, – moderazio eza, moderazioarekiko aiherra, non plus ultra bat ere bada.

¹⁰¹ Alemanian oso ezaguna den esaldia, Luterori egotzia, agidanez Wormseko Dietan esan zuen 1521eko apirilaren 18an. Nietzschek beste zenbait obratan ere aipatzen du.

¹⁰² Apokalipsia, 2, 10.

Ideal aszetikoak ez ditu osasuna eta gustua bakarrik usteldu, baita hirugarren, eta laugarren, eta bosgarren, eta seigarren gauza bat ere – gorde egingo dut neure burua zenbat esatetik (noiz amaituko nuke!). Hemen agerian jarri nahi dudana ez da ideal horrek burutu duena, baizik, aitzitik, esan nahi duena bakarrik eta eskusiboki, igartzen uzten duena, horren atzean, horren azpian, horren barruan ezkututzen dena, hura, zeinaren adierazpen azaleko, ilun, galdekizunez eta gaizkiulertzez zamatua den. Horren ondorioen munstrozkoari, baita ondorio txit kaltegarriei begirada bat ez aurrezte, helburu horri buruz soilik egin ahal izan dut: hau da, ideal haren esanahiari buruzko galderak niretzat duen aspektu azkeneko eta beldurgarrienerako prestatzearenari buruz. Zer esan nahi du zehazki ideal horren botereak, bere ahalmenaren munstrozkoak? Zergatik eman zaio amore neurri horretan? Zergatik ez zaio aitzitik erresistentzia kontrajarri? Ideal aszetikoak nahimen bat adierazten du: non dago alderantzizko nahimena, kontrako ideal bat adieraziko lukeena? Ideal aszetikoak helmuga bat du, – eta hori aski unibertsala da, horrekin alderaturik, giza izateko gainerako interes guztiek ziztrin eta mehar itxura har dezaten; aroak, herriak, gizakiak, ideal aszetikoak helmuga bakar horretarantzko norabidean interpretatzen ditu gupidagabeki, ez du beste ezein interpretazio, ezein beste helmuga baimentzen, bere interpretazioaren zentzuan bakarrik arbuiatzen, ukatzen, baieztatzen, sendesten du (– eta izan al da inoiz interpretazio azkeneraino pentsatuagorik?); ez dio ezein ahali men egiten, baizik eta beste edozein ahalekiko bere nagusitasunean, beste edozein ahalekiko lerrune-tarte baldintzagabe sinesten du, –sinesten du ez dagoela lurrean beste ahalik beragandik zentzu bat, izateko eskubide bat, balio bat hartu behar ez duenik, bere obrarako tresna gisa, bere helmugarako, bere helmuga bakarrerako bide eta bitarteko gisa... Non dago nahimen-, helmuga- eta interpretazio-sistema trinko horretarako aurrezkoa ? Zergatik falta da aurrezkoa?... Non aurkitzen da beste “helmuga bakarra”? Ez dela falta esaten zait, luzaroan arrakastaz ideal haren aurka borroka egin ez ezik, baita arazo garrantzitsu guztietan ere, hartaz nagusitu ere egin dela: horren testigantza litzateke gure zientzia moderno guztia, – zientzia moderno horrek errealitatearen benetako filosofia izateagatik, bistakoa denez bere buruan bakarrik sinesten duena, bistan dago bera izateko kuraia duena, bera izateko nahimena duena, eta orain arte aski ongi moldatu da Jainkorik gabe, haraindik gabe, bertute ukatzailerik gabe. Alabaina, agitatzaile-zarata horrek eta berritsukeria horrek ez didate inolako zirrarak sortzen: errealitatearen tronpetajole horiek musikari txarrak dira, horien ahotsak ez dira igotzen sakonenetik era aski hautemangarrian, horietan ez du hitz egiten kontzientzia zientifikoaren amildegia – zeren gaur egun amildegia baita kontzientzia zientifikoa –, tronpetajole horien muturretan “zientzia” hitza ahalkeizun bat da, abusu bat, lotsagabekeria bat. Egia hemen baieztatzen denaz kontrakoa da hain zuzen: zientziak ez du gaur egun besterik gabe inolako sinesmenik bere buruan, eta are gutxiago bere buruaren gaineko idealik, – eta oraindik grina, maitasun, suhar, sufrimendua den tokian, ez du errepresentatzen ideal aszetiko haren kontrakoa, baizik haren forma arestiko eta nobleena. Arrotz gertatzen al zaizue hau guztia? ... Egia da gaur eguneko jakintsuen artean ere langile-herri jator eta apal nahikoa dagoela, bere txokoan atsegina hartzen duena, eta, hartan atsegina hartzen duelako, batzuetan apaltasun gutxi samarrarekin jasotzen du ahotsa, esanez gaur oro har pozik egon behar dugula, zientzian batez ere, – zeren hartan hain zuzen ere gauza onuragarri asko egiteko omen dagoelako. Ez diot inolako eragozpenik jartzen; eta nik gutxien egin nahiko niekeena langile jator horiei lanbideko plazerra hondatzea da: zeren ni alaitu egiten bainaiz horien lanaz. Baina gaur egun zientzia

doitasunez lan egiteak eta langileak pozik egoteak ez du frogatzen zientziak bere orokortasunean helmuga bat, nahimen bat, ideal bat, sinesmen handiak berean duen grina bat duenik. Esan dugunez, alderantzizkoa gertatzen da: zientzia ideal aszetikoaren agertze-erarik arestikoena ez den tokian, – kasu bakanegi, nobleegi eta hautatuegiak dira judizio orokorra haiengatik okertua izan dadin –, zientzia gaur egun ezkutaleku bat da umore txar, sinesgogortasun, har hozkari, despectio sui [bere buruarenganako mesprezioa], kontzientzia txarrantzat, – idealgabeziaren sosegurik eza da, maitasun handiaren gabeziarengatik sufrimendua, nahigabeko askitasun baten askieza da. Oi, zenbat gauza ez dituen gaur zientziak ezkututzen! Zenbat ezkutatu behar dituen gutxienez! Gure aditu hobereenen gaitasuna, horien behargintasun gogoetagabea, gau eta egun borborrean daukaten burmuina, lanbidean duten maisutasuna bera ere bai -zeinen maiz gertatzen den horren guztiaren benetako zentzua nork bere buruari zerbait ez ikusteko begiak itsutzean egotea! Zientzia nork bere burua sorgortzeko bitarteko gisa: ezagutzen al duzu haori?... Batzuetan hitz kaltegabe batekin jakitunak hezurmuineraino zauritzen ditugu -horiekin tratatzen duen orok sumatu du-, geure kontra jartzen ditugu adiskide jakitunak ohoratzea pentsatzen dugun unean, beren onetik ateratzen ditugu errealitatean norekin tratatzen ari garen aztiatzeko kamutsegiak izan garelako soilik, sufritzen ari diren eta zer diren beren buruari aitortu nahi ez dioten izakiekin, izaki sorgortu eta gogoetagabeekin, gauza bakar baten beldurra, kontzientzia hartzera iristearen beldurra ... dutenekin

24

Eta orain azter ditzagun, aldiz, aipatu ditudan kasu bakanago horiek, filosofo eta jakitunen artean gaur dauden azken idealistak: horiengan al ditugu agian ideal aszetikoaren arerio bilatuak, horren anti-idealistak? Izatez halakotzat uste dute beren burua, “sinesgogor” horiek (zeren horiek guztiak baitira); badirudi horien azken sinesmen-hondarra horretan dagoela hain zuzen, ideal horren arerio izatean, hain dira serioak puntu horretan, hain grinatsu bihurtzen dira hemen beren keinuak eta beren hitzak: – eta horregatik bakarrik izan behar al du egiazkoa haiek sinesten dutenak?... Guk, “ezagutzaileok”¹⁰³ denborarekin fidakaitz bihurtu gara sinestedun-mota guztien aurrean; gure konfiantzak pixkanaka trebatu egin gaitu garai batean ateratzen ziren ondorioei kontrajarritako ondorioak ateratzeko: hau da, inferitzen, sinesmen baten sendotasuna lehen planoan asko agertzen den toki guztietan, badela han frogagarritasunaren halako ahulezia bat, baita sinesturikoaren egiantzekotasun-gabezia bat ere. Guk ere ez dugu ukatzen sinesmenak zoriontasuna ematen duela¹⁰⁴: zinez horregatik ukatzen dugu sinesmenak zerbait frogatzen duela, -sinesmen sendoa, zoriontasuna ematen duena, sinesten den haren aurkako susmo bat da, ez da “egia”ren froga, halako egiantzekotasun baten froga da -lilura batena. Zer gertatzen da gaur kasu honetan? – Gaur egungo ukatzaile eta baztertzaila hauek, gauza bakarrean, garbitasun intelektualaren eskakizunean baldintzagabeak diren hauek, gure garaiaren ohore diren izpiritu gogor, zorrotz, abstenitzaile, heroiko hauek, ateista zurbil, antikristo, inmoralista, nihilista hauek guztiak, eszeptiko, efektiko, izpirituaren hektiko hauek (azken hori guztiak dira, zentzuren batean), ezagutzaren azken idealista

¹⁰³ “Gu, ezagutzaileok” obra honetan Nietzschek egiazki morala ezagutzen dutenei ezarritako epiteto gisako bat da. Irakur bitez Hitzaurreko lehen lerroak.

¹⁰⁴ *Markos*, 16,16. Badu ironia puntu bat, zeren alemanezko *selig machen* esamoldeak *memelotu*, *lelotu* esanahia ere bai baitu.

hauek, bakarrak, zeinetan kontzientzia intelektuala ostatatu eta haragitu baita, – izatez guztiz jareginak sentitzen dira ideal aszetikotik, “izpiritu libre, oso libre” horiek: eta, hala ere, horiek beroriek ikusi ezin dutena erakutsiko diet – zeren hurbilegi baitaude-: ideal hura hain zuzen ere beren ideal dute, berek, eta agian beste inork ez, erreprezentatzen dute gaur hura, berak dira ilorrik izpiritualduena, gerrari eta miaketarien tropa aurreratua, beren sedukzio-era maltzur, delikatu, atzemaiezinezkoena: – zerbaitetan baldin banaiz ni enigma-deszifratzaile, baieztapen honetan izan nahi dut!... Oso urrun daude izpiritu libre izatetik: zeren oraindik egian sinesten baitute... Gurutzari kristauak Ekialdean Asasiñoen Ordena menperaezin, par excellence izpiritu librean Ordena zen harekin topo egin zutenean, zeinen gradu beheerak ezein ordena monastikok lortu ez zuen obediencia batean bizi baitziren, jaso zuten, halaber, bideren batetik, adierazpenen bat goren graduentzako beren secretum gisa bakarrik zen sinbolo eta esaldi/ezkutu hartaz: ”Ezer ez da egia, dena baimendurik dago...”. Bada, hori izpirituaren askatasuna zen, horrekin egian bertan sinesteari uzten zitzaion... Desbideratu al da inoiz izpiritu libre europar, kristaurik, esaldi horretan eta bere ondorio labirintozkoetan? Ezagutzen al du esperentziaz infernu horretako Minotauroa... Zalantzan jartzen dut, areago, zerbait bestelakoa dakit: – ezer ez zaie arrotzagorik gauza bakar baten baldintzagabe horiei, “izpiritu libre” horrela deituriko horiei, zentzu hartako askatasuna eta askapena baino, beste ezein aspektutan ez daude irmoago loturik, egiarekiko sinesmenean hain zuzen daude beste ezein ez bezala irmo eta baldintzagabe. Nik hori guztia agian hurbilegitik ezagutzen dut filosofo-kontinentzia laudagarri hura, zeinera sinesmen horrek behartzen baitu, endelguaren estoizismo hura, zeinak azkenerako hain zorrotz debekatzen baitu baietza zein ezetza, errearen aurrean gelditu-nahi izate hura, factum brutum-aren [gertakari gordin] aurrean, “petits faits” en [gertakari txikiak] fatalismo hura (ce petit fatalisme, nik deitzen dudanez), zeinean frantses zientziak orain bilatzen baitu alemanaren gain nagusitasun moral gisako bat, interpretazioari erabat uko egite hura (bortxatu, birdoitu, berrebaki, ezabatu, birbete, imajinatu, faltsutu, eta interpretatzearen esentziakoa den gainerako guztiari) -hori da, larriki hitz eginez nola bertutearen aszetismo baten hala sentsualitatearen ukapenaren adierazpen bat (barrenean, ukapen horren modus bat besterik ez da). Baina horretara bortxatzen duena, egiaren nahimen baldintzagabe horrek, ideal aszetikoaren berarekiko sinesmena da, bere inperatibo kontzientearen eran bada ere, ez gaitezen engaina horretaz, – balio metafisiko batekiko, egiaren bere baitako balio batekiko sinesmena da, ideal hartan bakarrik bermaturik eta berretsirik aurkitzen denez (harekin batera irauñ eta desagertzen da.) Ez dago, zorrotz epaituz gero, “auresuposturik gabeko” zientziarik, horrelako zientzia baten pentsamendua pentsaezina da, paralogikoa: beti egon behar du han filosofia batek, “sinesmen” batek horretatik zientziak norabide bat, zentzu bat, muga bat, metodo bat, izateko eskubide bat atera dezan. (Alderantzitara ulertzen duenak, “oinarri zorrozki zientifiko baten” gainean filosofia kokatzeari ekin nahi dionak, horretarako, lehenik, filosofia ez ezik, egia bera ere buruz behera jartzea behar du: bi dama hain errespetagarriekin egin daitekeen begirunearen aurkako iraina!) Bai, ez dago zalantzarik -eta hemen neure “Zientzia pozkariotsua” ri uzten diot hitz egiten, ikus bedi bosgarren liburua, (198 orrialdea) – ”gizaki egiatiak, zientziarekiko sinesmenak auresuposatzen duen zentzu ausart eta azkeneko hartan, bizitzaz, naturaz eta historiaz bestelako beste mundu bat baieztatzen du horrekin; eta > beste mundu hori < baieztatzen duen neurrian, nola?, ez al dauka ukatu beharra, hain zuzen ere horregatik, hari kontrajarria, mundu hau, gure mundua?... Zientziarekiko gure sinesmena sinesmen metafisiko batean dago beti bermaturik – guk ere egungo ezagutzaren gizakiok, guk

ateo eta antimetafisikook, guk ere geure garra milaka urtetako sinesmen batek, Platonen sinesmena ere izan zen sinesmen kristau hark irazekitako su hartatik ateratzen dugu, Jainkoa egia delako, egia jainkozkoa delako sinestetik... Baina nola da hori posible, baldin eta gauza hori gero eta sinestezinago bihurtzen bada, jadanik ezer ez badago jainkozkozkat agertzen denik, errorea, itsutasuna, gezurra izan ezik, – Jainkoa bera gure gezurrik luzeena bezala agertzen bada?” – Puntu honetan beharrezkoa da gelditu eta luzaroan gogoeta egitea. Zientziak berak beharrezko du aurrerantzean justifikazio bat bere buruarentzat (horrekin ez da esan hori badagoenik.) Azter bitez, horri dagokionez, filosofiarik antzinakoenak eta arestikoenak: horietan guztietan kontzientzia falta da egia-nahimenak berak zer puntutaraino justifikazioa behar duen, bada hemen hutsune bat filosofia guztian – zeri zor zaio hori? Ideal aszetikoa orain arte filosofiaren jaun izanari, egia bera izaki bezala, Jainko bezala, instantzia goren bezala jarria izanari, egiari inola ere arazo izatea zilegi izan ez zitzaiolakoari. Ulertzen al da “zilegi izan” hori? Ideal aszetikoaren Jainkoarekiko sinesmena ukatua den une beretik, bada arazo berri bat: egiaren balioarena. – Egia-nahimenak kritika bat behar du -horrekin geure ataza propioa definitzen dugu –, egiaren balioa auzitan jar daiteke noiz edo noiz, esperimentu-bidez... (Horri laburregi deritzonari “Zer neurritaraino garen gu oraindik pietatetsu” (196 hh.) izenburua duen “Zientzia pozkariotsua”ko saila irakurtzea gomendatzen zaio, eta, askozaz hobeki oraindik, aipaturiko obrako bosgarren liburu osoa, baita “Goizalba”ren hitzaurrea ere).

25

Ez! Ez betorkit inor zientziarekin ni ideal aszetikoaren antagonista naturalaren bila nabilenean, galdetzen dudanean: “non dago kontrako nahimena, kontrako bere ideala adieraziko dena?”. Ezta urrunetik ere zientzia ez da behar adina bermatzen bere buruan hori izan ahal izateko, aurrena, zentzu guztietan, balio-ideal bat behar du, ahalmen-balioen sortzaile bat, zeinen zerbitzuan zilegi baitzaio berari bere buruan sinestea, – bera halakoa den heinean ez da inoiz balio-sortzaile. Ideal aszetikoarekiko bere harremana ez da bere baitan, inola ere, harreman antagonistikoa; aitzitik areago errepresentatzen du, nagusienean, haren barne-konfigurazioko indar bultzatzailea. Bere kontraesanak eta bere borrokak, era sotilagoz aztertutik, ez dute inola ere idealera berera destatzen, horren aitzinapenetara soilik, horren mozorrora, maskara-jokora, aldizko gogortze, lehortze, dogmatizatzeetara – zientziak askatasuna bihurtzen dio ideal aszetikoan dagoen bizitzari, hartan exoterikoa dena ukatuz. Biak, zientzia eta ideal aszetikoa, izan ere, lursail berean bermatzen dira – dagoeneko emana dut aditzera hori – (zuzenago, egiaren estimaezintasuna, kritikaezintasunarekiko sinesmen berean), eta horrexegatik hain zuzen, derrigorrez dira aliatu, – horrela bada, borroka egiten zaien supostuan, ezin zaie borroka egin eta auzitan jarri batera izan ezik. Ideal aszetikoaren balioaren preziazio batek berekin dakar ezinbestean zientziaren balioaren preziazioa ere: ireki bitez begiak eta zorrotz bitez belarriak gauza hori garai guztietan hautemateko! (Artea, esan bedi era aurreratuan, zeren noizbait itzuliko naiz gai horretara astiroago, – artea, zeinean gezurra santutzen baita, eta engainu-nahimenak bere alde daukan kontzientzia ona, ideal aszetikoari zientzia baino askozaz errotikago kontrajartzen zaio: horrela hauteman zuen Platonen instintuak, orain arte Europak sortu duen artearen etsai handienak¹⁰⁵. Platon Homeroren kontra:

¹⁰⁵ Platonek pasarte ugari ditu gai horri buruz, *Politeia* obran batik bat.

hori da erabateko, benetako antagonismoa – alde batetik borondate hobereneko “haraindizalea”, bizitzaren kalumniatzaile handia, bestetik horren, urrezko naturaren, nahigabeko jainkotzailea. Ideal aszetikoaren zerbitzuan artistak bere burua lotzea horregatik da egon litekeen haren usteltze propioena, eta, zoritxarrez, sarrienetako bat: zeren ezer ez baitago artista bat baino ustelkorragorik). Gauzak ikuspegi fisiologiko batetik kontsideraturik zientziak ideal aszetikoaren lur berean hartzen du atsedena: bizitzaren halako pobretze bat da, bai kasu batean eta bai bestean, bere auresupostua, – afektu hoztuak, tempo berandutua, dialektika instintuaren lekua hartzen, seriotasuna aurpegietan grabatua eta keinuak (seriotasuna, metabolismo neketsuago baten, borrokan ari den bizitza baten, zailtasun gehiagorekin lanean ari den zantzu zalantzagabe hori). Azter bitez gizon jakintsua lehen planoan ageri den herri baten aroak: nekadura-arroak dira, sarritan inularrekoak, dekadentziakoak, – indar gainezkatua, bizi-ziurtasuna, etorkizun-ziurtasuna, desagertu egin dira. Mandarinaren nagusitzeak ez du inoiz ezer onik adierazten: ezta demokrazia agertzeak ere, ezta gerren ordezkari bake-epaiketak ere, emakumeen eskubideen berdintasuna, errukiaren erlijioa eta beheraka doan bizitzaren gainerako sintoma guztiak ere. (Zientzia arazo bezala kontzebitua: zer esan nahi du zientziak? – ikus bedi honetaz Tragediaren jaiotzaren hitzaurrea)¹⁰⁶. – Ez!, “zientzia moderno” hau – aski da begiak irekitzea! – oraingoz ideal aszetikoaren aliatu hoberena da, eta zientzia inkontzienteena, nahigabeena, sekretuena eta lurpekoena izategatik da hain zuzen ere! Orain arte joko bera jokatu dute “izpirituz pobre”ek eta ideal haren arerio zientifikoek (gorde dezagun geure burua, bidenabar esanik, horiek haien antitesi direla, izpirituaren aberats gisako zerbait pentsatzetik – ez dira horrelako, nik izpirituaren hektiko izendatu ditut). Azkenekoen garaitzpen sonatu horiek: zalantzarik gabe garaitzpenak dira, – baina zeren gaineakoak? Ideal aszetikoa ez zen haietan inola ere menperatua izan, aitzitik, sendoagotu egin zen, hau da, atzemaneginago, izpiritualago, amarrutsuago, zientziak gupida gabe murrutua, hari itsatsiriko eta itxura zantarragotu zion gotorleku bat behin eta berriz eraitsi izanagatik. Benetan pentsatzen al da, adibidez, astronomia teologikoaren porrota ideal horren porrota izan zela?... Agian gizakia izatearen enigmaren soluzio harainditar baten behar gutxiagoko bihurtu al da, harrez gero, izate hori gauzen ordena ikuskorrean oraindik doakoago, baztertuago, alferrikoago agertzen delako? Ez al dago aurreratze geldiezin batean, Kopernikogandik hasita, gizakiak bere burua txikitzea, bere burua txikitzearen nahimena? Ai, desagertu egin da giza duintasuna, singularitatea, ordeztzezintasunarekiko sinesmena izakien eskala hierarkikoaren barruan, – gizakia animalia bihurtu da, metafora, murrizpen eta erreserba gabeko animalia, bera, aurreko bere sinesmenean ia Jainko zena (“Jainkoaren seme”, “gizaki Jainko”)... Kopernikogandik hasita, badirudi gizakia plano inklinatu batean erori dela, -gero eta bizkorrago doa piririka, erdigunetik urrunduz – norantz? ezerezerantz?, “ezerezaren sentimendu zulatzailerantz”?... Ongi!, hori izango litzateke hain zuzen bide zuzena -antzinako idealerantz?... Zientzia orok (eta ez astronomiak soilik, zeinen eragin umiliagarri eta degradatzaileaz egin baitzuen Kantek aitortpen ohargarria, “horrek deuseztu egiten du nire garrantzia...”)¹⁰⁷, zientzia orok, nola naturalak hala ez-naturalak – horrela deitzen diot nik ezagutzaren autokritikari – orain arte bere buruari zion aprezioetik disuaditzera jotzen du, aprezio hori uzi aldrebes bat besterik izan ez balitz bezala; zientziak bere harrokeria, jarri ere egiten duela esan liteke, gizakiak nekez lorturiko bere

¹⁰⁶ Nietzsche “Autokritikazko entseia”z ari da, bere liburuaren bigarren edizioaren atarian jarri baitzuen, 1874an berriz argia ikustean.

¹⁰⁷ *Arrazoi praktikoaren kritika* obrako Konklusioan ageri da aipua.

buruarbuio hori bere baitan zutik eutsarazten, bere ataraxia estoikozko era latz propioa ere jartzen duela, bere apreziorearen erreibindikazio azken eta serioena bezala (arrazoiz, izatez: zeren mespreziatzen duena “preziatzea oraindik ahaztu ez duen...” norbait baita). Egiazki horrela lan egiten al da ideal aszetikoaren aurka? Oraindik pentsatu egiten al da agian, seriotasun osoz (garai batean teologoek imajinatu zuten), adibidez, kontzeptu teologikoen dogmatikarekiko (“Jainkoa”, “arima”, “askatasuna”, “hilezkortasuna”) Kanten garaitzapenak porrokatu egin duela ideal hura? – hori dela-eta ezerk ez digu axola izan behar oraingoz Kantek berak ere izan ote zuen gisa horretako zerbait egiteko asmorik. Kontua da, Kantengandik hasita, espezie orotako transzendentalistek berriz ere jokaldia irabazita eduki dutela, -emantzipatu egin dira teologoengandik: a zer zorientasuna! – Kantek bide sekretu bat aurkitu die, zeinean orain zilegi baitzaie entregatzea, beren bitarteko propioekin eta ohore zientifiko hoberenarekin, beren “bihotzeko gurarietara”. Halaber: nork har liezaieke gaizki agnostikoei, horiek, ezezaguna eta misteriozkoaren gurtzaile diren heinean, orain Jainko bezala adoratzea galde-zeinua bera? (Xaver Doudanek ¹⁰⁸ aipatzen ditu behin batean l’habitude d’admirer l’inintelligible au lieu de rester tout simplement dans l’inconnu-k [ulertezina mirestearen aztura besterik gabe ezezagunean gelditu ordez] sorturiko ravages-ak [sarraskiak]; berak uste du antzinakoek alde batera utziko zituzketela). Suposatuz gizakiak ezagutzen duen ezerk ez dituela bere “gurariak” asetzen, aitzitik, kontraesan eta uxatu egiten dituela, zeinen ihesbide jainkotiarra zilegi izatea horren errua ez “gura izatean”, baizik “ezagutzean” bilatzea!... Ez da inolako ezagutzerik existitzen: ondorioz – existitzen da Jainkoa?: bai elegantia syllogismi berria [silogismoaren dotoretasuna]!, ideal aszetikoaren a zer triunfoa!-

26

Ala agian historiografia modernoak, bere osotasunean, bizitzaren jarrera ziurrago bat, idealaren ziurrago bat erakutsi al du? Bere uzirik nobleena gaur ispilu izatea besterik ez da: arbuiatu egiten du teleologia oro; jadanik ez du ezer “frogatu” nahi: uko egiten dio epaile-zeregina betetzeari, eta horretan dauka bere gustu ona, – ez du baieztatzen ez ukatzen, konstarazi egiten du, “deskribatu”... Hori guztia aszetikoa goren graduan; baina aldi berean, oraindik gradu garaia batean, nihilista, ez gaitzezen engaina puntu horri buruz! Begirada triste, gogor baina deliberatu bat ikusten dugu, –urrunera begiratzen ari den begi bat, bakarturik gelditu den Ipar Poloko bidaiari batek urrunera begiratzen duen bezala (agian barrura ez begiratzeko?, agian atzera ez begiratzeko?...) Hemen elurra dago, hemen bizitza mututu egin da; ahotsa entzuten zaien azken belatxingek diote: “Zertarako?”, “Alferrik!”, “Nada!”¹⁰⁹ – hemen jadanik ez da loratzen ez hazten ezer, gehienera ere metapolitika petersburgarra eta “erruki” tolstoiarra. Baina beste historialari-espezie horri dagokionez, agian oraindik espezie modernoago bat den horri, espezie gozatzailerik, atseginkoi, bizitzarekin adina ideal aszetikoarekin koketeatzen duena, goante gisa “artista” hitza erabiltzen duena eta gaur egun kontenplazioaren laudorioa erabat monopolizatzen duena: oi, buruargi ezti horiek zeinen aszeta negu-paisaien egarri handia eragiten duten! Ez! Daramala deabruak herri kontenplazailerik hori!” Askoz nahiago dut nihilista historiko haiekin batera bide egin

¹⁰⁸ Xaver Doudan (1800-1872), idazle frantsesa. Nietzschek bere liburutegian zeukan *Mélanges et lettres*, Paris, 1878, haren obra.

¹⁰⁹ Hitz hau gaztelaniaz ageri da Nietzschearen jatorrizkoan.

laino ilun, gris eta hotzenetan barrena! -areago oraindik, hautatu behar izatearen supostuan, ez lidake axola izango belarriak ematea norbait erabat eta egiazki ahistorikoari, antihistorikoari (Dühring horri bezalakoari, zeinen azentuekin horditzen baita, egungo Alemanian, orain arte herabetia, oraindik aitortu gabea izan den “arima ederren” espezie bat, species anarchistica proletalgo kultoarean barruan). Ehun bider txarragoak dira “kontenplatzailak” -: nik ez dut ezagutzen ezer goralari handiago eragiten didanik besaulki “objektibo” horietako bat baino, historiaren gozatzaille perfumatu horietako bat baino, erdi-apaiza, erdi-satiroa, parfum Renan, zeinek salatzen baitute, beren txaloaren faltsete zorrotzarekin, zer den falta zaiena, non falta zaien, non maneiatu duen Parkak bere guraize krudela, modu, ai! kirurgikoegian! Horrek asaldarazi egiten du nire gustua eta nire egonarrria ere bai: gorde beza bere egonarrria horrelako ikuspenean aurrean horrekin zer galdurik ez daukanak, – ni ikuspen horrek sumindu egiten nau, “ikusle” horiek amorrarazi egiten naute “ikuskitzen”aren aurrean horrek (historiak berak, uler bekit) baino ere gehiago, nahi izan gabe datozkit burura, kontenplatzean, txantxa anakreontikoak. Zezenari adarrak eta lehoiari (GRIEGO) [hortzetako irekidura] eman dien naturak, zergatik eman dit niri oina?... Zapaltzeko, ala Anakreonte Santua!, eta ez ihes egiteko bakarrik: besaulki pipituak kontenplazio koldarra, historiarekiko eunukismo likitsa, ideal aszetikoekiko koketeoa, ezintasunak erabilitako justiziaren tartufokeria zapaltzeko! Nire errespetu guztia ideal aszetikoarentzat, jatorra den heinean!, bere buruan sinetsi eta ezustekoa ematen ez digun bitartean! Baina ez ditut jasaten tximitx koketo horiek guztiak, zeinen askogura aseezina baita infinitu-usaina izateari dagokionez, harik eta azkenean infinituak tximitx-usaina hartzen duen arte; ez ditut jasaten bizitza parodiatzen duten hilobi zurituak: ez ditut jasaten nekatu eta ahituak, jakituriaz beren burua bildu eta “objektiboki” begiratzen dutenak; ez ditut jasaten heroi gisara jantziriko agitatzaileak, idealaren ikusezintasun-mantua burutzat daukaten lasto-azao horren inguruan ezartzen dutenak eta barrenean bufoi tragikoak besterik ez direnak; horiek ere ez ditut jasaten, idealismoan espekulatzaille txit berriak diren horiek, antisemitak, gaur beren begiak gizaki on kristau-ario gisara begiak ixten dituztenak eta herriaren animalia adardunaren elementu propio guztiak kitzikatzen ahalegintzen direnak abusu baten bitartez, egonari guztia bukatzen duena, agitazio-bitarteko merkeenarena, afektazio moralarena (-gaur eguneko Alemanian arrakasta izateari ez uztea espezie orotako izpiritu iruzurgileek izpiritu alemaniarraren narriadura pixkanaka ukaezin eta jadanik haztagarriarekin zerikusia duen zerbait da, zeinen kausa nik elikatzean bilatzen baitut, eksklusibitate handiegiz, egunkari, politika, garagardo eta Wagnerren musikaz osatuan, zeini gehitu behar baitzaio janeurri horren auresupostua dena: lehenik, itxitura eta banitate nazionalak, “Deutschland, Deutschland über alles” [Alemania, Alemania guztiaren gainetik]¹¹⁰, eta gero “ideia moderno”en paralisis agitans-a). Gaur Europa aberatsa eta buruargia da, estimulagarriak asmatzeari dagokionez batik bat; badirudi “estimulagarri”ak, edaribizia baino gehiago ez duela beste ezer behar: hortik dator idealen, izpirituaren edaribizi goren horien faltsutze erraldoia ere, eta halaber, alderdi guztietan hedatzen ari den aire nazkagarri, kirats, faltsu eta sasi-alkoholduna. Jakin nahiko nuke idealismo imitaturiko zenbat kargamentu, heroi-jantzi eta hitz handien latorri dulundarizko, erruki azukreturiko eta alkoholdunezko zenbat tona (arrazoi soziala: la religion de la souffrance [sufirimenduaren erlijioa]); “sumintze noble”zko zenbat egurrezko hanka, izpirituaren oin-lauen

¹¹⁰ Antzinako himno aleman nazionalaren hasierako hitzak, 1822an Heinrich Hoffman von Fallersleben (1798-1874), Breslauko Unibertsitateko irakasleak sortuak.

laguntzarako; ideal moral-kristauaren zenbat komedianta esportatu beharko lirakeen gaur Europatik kanpora, berriro bertako aireak usain garbiagoa izan lezan... Begibistan dago gaineoizpen horrek merkataritza-aukera berri bat irekitzen duela; begibistan dago “negozio” berri bat egin litekeela idealaren idolotxoekin eta dagozkien “idealiste”kin -ez bedi oharkabea pasa aipu argi hori. Nork dauka behar adina adorea horretarako? -geure eskuan daukagu lur osoa “idealizatzea”!... Baina zer diot adorea, hemen gauza bakarra behar da, eskua hain zuzen, eskrupulurik gabeko esku bat, erabat eskrupuluetatik askea...

27

– Aski da! Aski da! Utz ditzagun izpiritu modernoaren bitxikeria eta konplexutasun horiek, zeinean barre egiteko eta haserretzeko gauza-kopuru bera dagoen. Hain zuzen ere gure arazoak, ideal aszetikoaren esanahiaren arazoak alde batera utz ditzake horiek. – Zer du horrek ikustekorik atzokoa eta gaurkoarekin! Gauza horiek sakonera eta gogortasun handiagorekin aztertuko ditut beste testuinguru batean (“Europar nihilismoaren historia” izenburupean; horretarako prestatzen ari naizen obra batera igortzen dut: Botere-nahimena. Balio guztien balio-ordezpenaren entseia). Hemen adierazi izana interesatzen zaidan bakarra hau da: esferarik izpiritualenean bertan ere ideal aszetikoak egiazko etsai eta kaltegile-espezia bakarra izaten jarraitzen du oraingoz: ideal horren komediantak, -mesfidantza eragiten baitute. Gaur izpirituak zorrotz, indartsu eta faltsukeriarik gabe lan egiten duen gainerako toki guztietan, horietan guztietan abstenitu egiten da erabat idealetik -abstinentzia horren herri-adierazpena “ateismoa” da: bere egia-nahimena deskontaturik. Baina nahimen hori, ideal-hondar hori, sinetsi nahi bazait, ideal hura bera da formulaziorik zorrotzenez, izpiritualenean, ideal hura guztiz eta erabat exoteriko bihurtua, kanpo-aparatu guztiaz gabetua, eta, ondorioz, ez da hainbeste ideal haren hondarra haren muin baizik. Ateismo baldintzagabe eta egiatia (– eta bere airea da guk, aro honetako gizaki izpiritualenok arnasten dugun bakarra) ez da aurkitzen, horren arabera, ideal harekiko kontrajarria, lehen begiradan dirudenez; aitzitik, haren garapenaren azken faseetako bat da, haren azken formetako bat eta haren ondorio logiko barnekoetako bat, – egiarako bimilurteko hezkuntza baten katastrofea da, errespetua ezartzen duena, azkenean, Jainkoagan sinestean dagoen gezurra bere buruari debekatzen diona. (Bilakaera-prozesu hori berori gertatu da Indian ere, erabateko independentziarekin, eta, beraz, zerbait frogatzen du: ideal bera konklusio berera bortxatua; puntu erabakigarria europar aroa baino bost mende lehenago lortua, Budarekin, edo, zehatzago: Budak herriratu eta erlijio bihurtu zuen filosofia sankhyarekin¹¹¹ berarekin. Zer da hura, doitasun guztiarekin galdetzen badugu, Jainko kristauaren gainetik garaitzapena lortu duen hori? Erantzuna “Zientzia pozkariotsua” nire liburuan (216. h) aurkitzen da: “Moralitate kristaua bera, egiatitasun kontzeptua gero eta zentzu doiagoan hartua, guraso aitortzen sotiltasun propioa, kontzientzia kristauarena, kontzientzia zientifikoan itzuli eta sublimatua, garbitasun intelektualean edozein prezioetan. Natura Jainkoaren ontasunaren eta babesaren frogatzat hartzea; historia arrazoi jainkozkoaren ohoretan interpretatzea, munduaren ordena etikoaren eta azken asmo etikoen lekukotasun iraunkor gisa; norbere bizipenak interpretatzea, gizaki pietatetsuek hain aspaldidanik interpretatu izan dituzten bezala, dena xedapen bat, zeinu bat, balitz bezala, dena arimaren

¹¹¹ Indiar filosofiako agian sistema handietako antzinakoena, Kapilak sortua.

salbamenerako pentsatu eta xedaturik balego bezala: orain hori jadanik pasatua da, kontzientzia bere kontra dauka, izpiritu finenek desgisako, desonestutzat daukate hori, gezur, feminismo, ahulezia, koldarkeritzat daukate, – eta hain zuzen ere doitasun horren indarrez gara europar onak, zerbaiten indarrez bagara, eta Europako burugainditze luzatu eta kementsuenaren oinordekoak...” Gauza handi guztiak beren eskuetan iraungitzen dira, buruezabatzezko egintza batez: hala nahi du bizitzaren legeak, bizitzaren funtsean dagoen beharrezko “burugainditze”aren legeak, – azken unean beti esaten zaio legegileari berari: patere legem, quam ipse tulisti [paura ezazu zeuk ezarritako legea]. Horrela iraungi zen kristautasuna, dogma gisa, bere moral propioaren eskuetan; eta horrelaxe dauka orain kristautasunak moral gisa iraungi beharra, – gu jazoera horren atalasean aurkitzen gara. Egiatitasun kristauak bere konklusioak banan-banan atera ondoren, bere konklusiorik bortitzena ateratzen du azkenean, bere buruaren kontrako konklusioa; eta hori gertatzen da: “Zer esan nahi du egia-nahimen orok?” galdera planteatzen duenean”... Eta hemen ukitzen dut nik neure arazoa, gure arazoa, ene adiskide ezezagunok (– zeren oraindik ez baitut adiskideren berri): zer zentzu izango luke gure izateak oro, ezik egia-nahimen hark gudan bere buruaren kontzientzia hartzea arazo bezala?... Egia-nahimen horrek bere buruaren kontzientzia hartze horrek hondarazi egiten du hemendik aurrera – ez dago inolako zalantzarik-morala: ehun ekitalditako ikuskizun handi hori, Europaren datozen bi mendei erreserbatuak dagoena, ikaragarriena, arazotsuena, eta agian ikuskizun guztien artean itxaropentsuena ere bai...

28

Ideal aszetikoa alde batera uzten badugu, orduan gizakiak, gizaki animaliak, ez du izan orain arte inolako zentzurik. Lur gainean izan duen existentziak ez du inolako helmugarik izan; “zertarako inola ere gizakia?” – erantzunik gabeko galdera bat izan da; gizakia eta lurrerako nahimena falta zen; destino handi ororen atzean lelo baten gisara “Alferrik” baten durundia oraindik indartsuago entzuten zen! Zeren hain zuzen ere horixe adierazten baitu ideal aszetikoak: zerbait falta zela, hutsarte neurgabeak inguratzen zuela gizakia, –horrek ez zekien justifikatzen, esplikatzeko, bere burua baieztatzen, bere zentzuaren arazoa sufritzen zuen. Beste kausa batzuegatik ere sufritzen zuen, nagusienean animalia gaixoti bat zen: baina bere arazoa ez zen sufrimendua bera, baizik galderaren oihuari erantzuna falta izatea: “Zertarako sufritu?”. Gizakiak, animalia kementsuen eta sufritzera ohituenak, ez du bere baitan sufrimendua ukatzen: nahi du, bilatu ere egiten du, horren zentzu bat erakusten zaiola auresuposatuz, sufrimenduaren honetarako bat. Sufrimenduaren zentzu-falta bat, eta ez sufritzea bera, zen orain arte gizateriaren gain hedaturik zegoen madarikazioa, – eta ideal aszetikoak zentzu bat eskaini zion horri! Orain arte zentzu bakarra izan zen; zentzuren bat hobe da zentzurik eza baino; ideal aszetikoa, aspektu guztietan, orain arte izandako faute de mieux [gaitzerdia] par excellence gertatu da. Berarengan sufrimendua interpretaturik ageri zen; hutsarte neurgabeak bete ziren; atea itxi egiten zen nihilismo suizida ororen aurrean: Interpretazioak – ez dago zalantzarik- sufrimendu berri bat zekarren berekin, sakonagoa, intimoagoa, pozoitsuagoa, bizitzaren irenseleagoa: sufrimendu oro erruaren ikuspegiak kokatzen zuen... Baina hori guztia gora-behera, – gizakia horrela salbaturik gelditzen zen, zentzu bat zuen, aurrerantzean ez zen haizean dabilen orri bat, absurduaren, “zentzugabezia”ren pilota bat bezala, orain zerbait nahi izan zezakeen, oraingoz axolagabea zen zer nahi zuen, zertarako nahi zuen eta zerekin nahi izango zuen: nahimena bera salbaturik zegoen. Ezin da ezkutatu azken finean

zer adierazten duen propioki ideal aszetikotik bere orientazioa hartu zuen nahi izate hark guztiak: gizakizkoa denaren kontrako gorroto hori, areago, animaliazkoa denaren kontrakoa, zentzumenekiko higuin hori, arrazoiarekiko berarekiko, zorientasunaren eta edertasunaren beldurra, itxura, aldaketa, bilakaera, heriotza, gurari, joranetik bertatik aldentzeko joran hori – horrek guztiak, ausart gaitezen ulertzea, ezerezaren nahimen bat esan nahi du, bizitzaren aurkako aiherra, bizitzaren auresupostu oinarritzkoenen arbuioa, baina izan, eta ez dio uzten izateari, nahimen bat da!... Eta hasieran esan nuena amaieran errepikatuz: gizakiak nahiago du ezereza nahi izan ez nahi izan baino...